

24

Soziologiazko Euskal Koadernoak
Cuadernos Sociológicos Vascos

2007

IRUÑEA, ALDE ZAHARREKO KOMUNITATE DIAGNOSI PARTEHARTZAILEA

*Andoni Iso Tinoco
Patxi Jimenez Arellano
Zesar Martinez Garcia
Imanol Telleria Herrera
Patxi Pascual Ibiriku*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

Iruña, Alde Zaharreko Komunitate diagnosi partehartzailea

Andoni Iso Tinoco
Patxi Jimenez Arellano
Zesar Martinez Garcia
Imanol Telleria Herrera
Patxi Pascual Ibiriku

2007

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

BILDUMA HONETAKO BESTE ZENBAKI BATZUK

1. **La actitud emprendedora en la CAPV** • *Kualitate Lantaldea*
2. **Institucionalización política y reencantamiento de la socialidad. Las transformaciones en el mundo nacionalista** • *Begoña Abad, Javier Cerrato, Gabriel Gatti, Iñaki Martínez de Albeniz, Alfonso Pérez-Agote, Benjamín Tejerina*
3. **La cultura del trabajo y la actitud emprendedora en el ámbito profesional de la CAPV** • *Miguel Ayerbe, Esther Buenetxea*
4. **La población vasca ante el periodo de tregua de ETA 1998-1999** • *Gabinete de Prospección Sociológica*
5. **Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua** • *Txoli Mateos*
6. **Análisis postelectoral de Elecciones Autonómicas 2001** • *Gabinete de Prospección Sociológica*
Belén Castro Iñigo, Miguel Angel García Montoya, Amaya Zárraga Castro
7. **Acción colectiva y sociedad de movimientos. El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro** • *Jesus Casquette*
8. **El sector de la Cooperación al Desarrollo en la CAPV en el bienio 1999-2000** • *Varios autores*
9. **Euskal eskolaren muin eta mamiaren bila: ikerkuntza-prestakuntza prozesu bat** • *Maite Arandía, Idoia Fernández, Pilar Ruiz de Gauna, José Luis Marañón, Juanjo Gómez*
10. **La familia en la C. A. P. V. – 1997** • *Kualitate Lantaldea*
11. **La familia en la C. A. P. V. – 2002** • *Gabinete de Prospección Sociológica*
12. **El Concierto Económico Vasco: historia y renovación. Las valoraciones de la población de la C. A. P. V. al respecto** • *Varios autores*
13. **Gaztetxoak eta Aisialdia: Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)** • *Kontxesi Berrio-Otxoa, Jone Miren Hernández, Zesar Martínez*
14. **Nuevos procesos de jubilación en las sociedades industriales contemporáneas: El caso vasco** • *Paulina Osorio Parraguez*
15. **Integración socio-cultural y adaptación psicológica de los inmigrantes extranjeros en el País Vasco** • *Nekane Basabe, Anna Zlobina, Darío Páez*
16. **Jolasgaraia: gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak** • *Jone Miren Hernandez*
17. **¿Sirven los grupos de trabajo autónomos para cambiar las organizaciones?** • *Aitor Aritzeta*
18. **Gobernanza y territorio en Iparralde** • *Igor Ahedo, Eguzki Urteaga*
19. **Inmigración y empresa** • *Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi (CEAR-Euskadi)*
20. **Etorkinak eta hizkuntza-ereduak** • *Mario Zapata Solano*
21. **La reducción del tiempo de trabajo, 1995-2005** • *José Ignacio Imaz Bengoetxea*
22. **Alfabetizazio berriak: Euskal Herriko neska-mutilak eta komunikabideak** • *Jose Inazio Basterretxea, Petxo Idoyaga, Txema Ramírez de la Piscina, Esther Zarandona*
23. **Desarrollo rural en el país vasco. Hacia un modelo de evaluación cualitativa** • *Beatriz Izquierdo Ramírez*

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak ikerlan hau argitara emateko erabakiak ez dakar berekin inolako erantzukizunik bertan agertzen diren edukiekiko; testuaren erantzukizuna egileena da, erabat.

Argitaraldia:	1.a 2007eko abendua
Ale-kopurua:	500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Lehendakaritza
Argiratzaila:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonpozaketa:	R.G.M., S.A.
eta imprimaketa:	Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
I.S.S.N.:	1575-7005
L.G.:	BI-2080-99

ESKERRAK

“Iruñea eta Alde Zaharraren arteko Topaketak”en parte hartu zuten Zulmari, Elianari, Maria Jesusi, Sigifredori, Albertori, Olgari, Carlosi, Martari, Anari, Txusi, eta Karmeni. Mila esker zuen prestutasunagatik, zuen ekarpen jakintsuak jakintsuago bihurtu gaitu gu ere.

Iruñeko Udaleko edo Nafar Gobernuako teknikari diren Carmeni, Albertori, Amparori, Goyori, Iñigori, Jose Antoniori, Juani, Maria Jesusi, Maria Vicentari, Miguel Angeli, Ireneri, Jesusi, Marisoli, Mertxeri, Olgari, Maiteri, Txemari, Juantxori, Santiagori, Margari, Mikeli, Silviari, Juani, Anari, Mireni eta Estheri. Esker onak zuei parte hartzeagatik, komunitateari laguntzeko duzuen ikuspegiagatik, kalera jaisteagatik, ikasteko duzuen grinagatik eta irakasteko duzuen gogoagatik.

Martari, Iruneri, Sarari, Blasi, Pedrori, Peñari, Ainhoari, Juliari, Izaskuni, Oihanari, Mariari, Nataliari, Txusi, Anari, Aniri, Josuri, Jose Luisi, Inesi, Maria Jesusi, Itziarri, Sergiori eta Carlosi. Zuekin ikusi dugu errealitatea gero eta konplexuagoa dela, eta badirela komunitate garapena lan profesionalaz akuilatzen duten erakundeak. Mila esker zuen eremutik atera eta zuen ahalegina gureari batu eta publiko egiteagatik. Eskerrik asko galdetutakoan baietz erantzuteagatik.

Erraldoien Konpartsari (Txikiak eta Handiak), Alde Zaharreko Kiliki eta Zaldikoei, Gazteluen Lagunen Elkarteari, Aldezarkoei, Alde Zaharreko Auzo Elkartekoei, Yarleku Merkatarri Elkartekoei, ENTko 2.mailako ikasleei, Popi eta Zarratrakori, T'Ombli-go Antzerkikoei, Paz de Zigandako Zanpantzarri, Alde Zaharreko Txalapartariei, Sumpango Batukadakoei, Etorkinen Elkarteen federazioari (FAIN), San Francisco eta Santo Tomaseko Gurasoen Elkartei, Lantxotegiri, HIESaren Aurkako Batzordeari, Zabaldiri, ANAPEHri, Gaztelani, Izaga Kolektiboari, Gazte Asanbladari, Avante Jubilatuen Elkarteari, Gure Lan Berriri, CCCPri (Aitor ordezkari zutela), Portalapeari, Alde Zaharreko Gazte Asanbladari, Dotazioen Batzordeari, Emakumearen Batzordeari, Maese Gepettori, IKARI, AEKri, Aproeri, La Majariri, Muthiko Alaiak (Peña, Fanfarre eta Dantzariak), Zurriburburi, San Fermin Txikito jaietako Jai Batzordeari, Alde Zaharreko Kultura Koordinadorari, San Cernin Gotzain Zentroari, Karrikiriri eta Eguzki Irratiari. Zuek guztiei aldaketa sozialean bidelagun zaituztegunako, Kolektiboak eta Hiritarrak Batzordean parte hartzeagatik; hilaren 11ko kalejiran barre eragin, dantzarazi eta pentsarazteagatik, egunero-egunero egiten duzuen lan eskergagatik eta behar genuenean laguntzeagatik. Auzolanaren barruan sentitzen zareten guztioi mila esker.

Faizuriri, Eduardori, Inmari, Javierri, Migueli, Maiteri, Patriciari, Franciscori, Jesusi, Pellori, Maria Carmeni, Tereri, Pijutiri, Juani, Nataliari, Josemiri, Oscarri, Aitorri, Inmari, Javiri, Ibrahimiri, Alaini, Oscarri, Goyori, Txemari, Maiteri, Jesus A.ri, Olgari, Marisoli, Ireneri, Patxiri, Sarari, Mariari, Iruneri, Patxiri, Sarari, Mariari, Iruneri, Matiasi, Sergiori, Jesus D.ri, Carlosi, Iñakiri, Itxasori, Unairi, Unairi, Anari, Luisari, Ma-

ria Joseri, Manolori, Joaquinari, Maria Joseri, Marijoseri, Natiri, Piliri, Elvisi, Garaziri, Albari, Anari, Mariari, Mariri, Hydrisi, Teori, Sergiori eta Matiasi, Dominika eta San Franziskoko gurasoei, Muthikoko bi koadrilei, euren mahaian eta bizitzan lekua egin zigutelako, euren ikuspuntua eman zigutelako. Oparitu zeniguten esaldi eta isilune bakoitzagatik mila esker.

Alde Zaharraren egunean, Gaztelu Plazan, eguzkitan ditziratsu zintzilikatutako metakrilatozko paneletan ekarpena egin zigun lagun bakoitzari, panelak arretaz irakurri zituztenei, eta egun horretan grabatu genuen bideoan ekarpenak egin zituztenei, esker mila.

2005eko ekainean Teknikariak eta Hiritarrak tailerretara hitzordurik galdu gabe etorri ziren lagunei. Aurrerabidean bultzatzeagatik, ñabardurak planteatzeagatik, pentsatzeagatik, hau guztia sinesteagatik, eskerrik asko.

Iruñeko alderdi politikoei, Diagnosi honetan eta Alde Zaharreko Komunitate Planean izaten ari zireten interesagatik.

Aldapa aldizkariari eta Eguzki Bideoaki, Planarentzako bi komunikabide oso berezi diren aldetik. Kazetari eta komunikatzaile bezala duzuen zorrotasun eta konpromisoagatik, guretzat eskurazina dena eskura ipintzeagatik, jende gehiagorengana argitasunez iristeko bitartekari lana egin duzuelako.

Maese Gepetto Elkarteari, gure aparteko mezenasi, bere egoitza lan egiteko eskaintzeagatik, Auzoenea Komunitate Zentroari, Elkartearen Guneari, Nabarria Kultur Guneari, Erraldoi Txokoari, neguko arratsalde hots hauetan aterpea eman zizuten guztiei, esker mila.

Dominicasen Santo Tomas ikastetxeari, San Frantzisko eskola publikoei, Osasun Zentroari, Hizkuntz Eskolari, Alde zaharrari buruzko datuak biltzen lagundu zituzten Iruñeko Udaleko sail guztien teknikariei. Guztiei, eskerrik asko.

Diagnosiaren Koordinazio kontseiluan noizbait ala nolabait parte hartu zutenei. Nachori, Alfredori, Caminori, Jesusi, Jesusi, Conchitari, Manueli, Begoñari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Euskal Herriko Unibertsitateari. Mila esker zuen gomentio, zuzenketa, hausnarketa eta denboragatik. Zuen laguntza pribilejioa izan da.

Landa-lanean aritu diren Virginia, Marina, Garbiñe eta Jaione etorkizuneko soziologoek. Mila esker zuen ahaleginagatik.

Maria Eugenia eta Euskadiko Kutzari, Nafar Gobernuako Osasun Saileko Fermiñi, Mariajeri, Abeli, Mikeli, Marijoseri, Mariviri eta Margari; aldaketa prozesu hau sehaskan genuenean ere engaiatu ziren kolektibo eta pertsonen. Mila esker proiektua ekonomikoki zein moralki bideragarri egin duzuelako, amets hau zuena ere bada.

Nola ez, Marco eta Luzi. Marcori, izan ere, bere irakasle tronutik jaitsi eta hurbileko lagunaren gisara jokatu baitu. Berari ere, "Komunitate hitzaren egiazko esanahia erakutsi digulako, berarekin Fuerteventuran iragan genituen egun gogoangarriengatik, bere ezagutza amataezina geure zerbitzura jartzeagatik, bere bidaiengatik, bere bi-

zitasunagatik, bere ikuspegiagatik, bere altruismoagatik, bere profesionaltasunagatik, geuri ikasten irakasteagatik eta bidelagun izan zaitugulako. Gure lana ez zegoen bere menpe, baina, bera egon ez balitz, gu ez geundeke gauden lekuan. Grazie Marco.

Imanoli eta Zesarri, zientziaren eske joan gintzaizkien eta haien erantzunaren tainak txiki utzi zituen gure usteak: elkartasuna, metodoaren zorrotasuna, lana eta zur eta lur utzi gaituen grina. Diren bezalakoak direlako eta une pattaletan aurrera tira digutelako. Ikaragarritzko zorte eta ohorea izan dugu haiekin topatzea, jada, gure historiaren baitan daude. Eskerrik asko, betirako auzo honetako gogoan, betirako gure bihotzetan.

Josebari, Asierri, Pericori eta Parte Hartuz-eko gainerako taldeari. Post-graduan leku txo bat egin diguzuelako, amets urrunagoak elkarrekin ikusi ditugulako, mila esker.

Rebecari eta Andoniri, Planaren Komunitate Taldeari, euren ahaleginagatik, estresatzeagatik, pisua galtzeagatik, gure pizgarri izateagatik, lan txukuna egiteagatik, komunikatzeagatik, batzuetan, lan tekniko hutsa baino haratago jo behar dela ulertarazi, eta halaxe jokatzegatik, mila esker.

Talde Eragilean izan zareten guztiei:

Albertori, Albertori, Leireri, Xabiri, Landerri, Maritxuri, Anari, Andoniri, Daniri, Ene-kori, Iruneri, Josuri, Joxeri, Juliari, Kristinari, Letiziari, Toniri, Luisari, Miriami, Miriami, Txikiri, Oierri, Patxiri, Patxiri, Santiri, Txutxini, Uxueri, Rauli eta Jesusi. Aisialdia lanaldi bihurtu dutelako, eguneko hiruzpalaugarren bileragatik, euren irribarreagatik, bukatu osteko poteengatik, euren aldarte bikainagatik, merezi duen auzo bateko akuilu saltseroa izateagatik, eskerrik asko.

Auzoan bizi diren 12.599 lagunei. Auzoan bizi direnei bezalaxe auzoa bisitatzera bertaratzen direnei... Dokumentu hau egunero barre egin, erosi, saldu, ospatu edo kezatzan den komunitatearentzako da. Alde Zaharra berezi egiten duen jende guztia-
rentzako da, bihotz-bihotzez, mila esker.



AURKIBIDE OROKORRA

Aitzin solasa	11
1. Sarrera	15
2. Helburuak eta lan metodologia	19
2.1. Ikerketaren helburuak	19
2.2. Ikerketaren planteamendu metodologikoa	21
3. Biztanleria, auzoaren izaera eta gizarte-sareak	27
3.1. Kokagune geografikoa eta historiari buruzko aipamena	27
3.2. Biztanleriaren egitura eta aldaketak	30
3.3. Auzoa eta Gune historikoa, Alde Zaharraren nortasun zeinuak	35
3.4. Gizarte-sareak eta eragileen arteko harremanak	40
3.5. Kultura-aniztasuna	46
4. Bizi-baldintzak eta gizarte baliabideak	53
4.1. Haurtzarora eta hezkuntza komunitatea	53
4.2. Gazteen behar espezifikoak	63
4.3. Adineko jendearen behar espezifikoak	65
4.4. Gizarte eta osasun zerbitzuak auzoan	68
5. Egitura urbanoa, ekipamenduak eta garapen ekonomikoa	83
5.1. Egitura urbanoa eta pertsona edo ibilgailuen mugikortasuna	83
5.2. Etxebizitzaren baldintzak eta eskuragarritasuna	91
5.3. Ekipamenduak: kultura eta aisialdirako guneak	97
5.4. Garapen ekonomikoa eta potentzial turistikoa	102
6. Aurrerabiderako ondorio batzuk	111
7. Bibliografia	117
Egileak	121

TAULA, GRAFIKO ETA MAPEN AURKIBIDEA

Taulak:

1. taula: Espazio publikoen eta etxebizitzaren metro karratua Iruñeko Alde Zaharrean	28
2. taula: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren ikasketa maila orokorra	33
3. taula: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren ikasketa maila zehatza	33
4. taula: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren lan sektoreak	34
5. taula: Iruñeko Alde Zaharrean lana edo goitza duten elkarte eta bestelako entitateak	41
6. taula: “San Francisco eskolako hezkuntza ereduaren matrikula	54
7. taula: “Santo Tomas” ikastetxeko ikasleen banaketa, sexu, adin eta bizi diren auzoen arabera	55
8. taula: Alde Zaharreko Elkarteen aktibitateen partaideak	59
9. taula: Euskara ikasteko erakundearen matrikula	62
10. taula: Iruñeko Alde Zaharreko kaleetako eraberritzearen kronologia	87
11. taula: Pertsonen sarrerak Iruñeko Alde Zaharreko hainbat kaletatik	88
12. taula: Iruñeko Alde Zaharreko etxebizitzek burgoetan duten kokapena . .	92
13. taula: Alde Zaharreko Dotazio Komisioaren Alde Zaharreko beharren inkestako emaitzak	101
14. taula: Alde Zaharreko Dotazio Komisioaren “Euskal Jai”ko orubeko erabileraren inkestako emaitzak	101
15. taula: 2005eko enpresa jardueraren Iruñeko Alde Zaharrean	104
16. taula: Iruñeko Alde Zaharreko merkatari establezimenduen sailkapena . . .	106
17. taula: Iruñeko Alde Zaharreko ostalaritza establezimenduen banaketa . . .	108

Grafikoak:

1. grafikoa: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren banaketa adinaren arabera.	31
2. grafikoa: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren bilakaera	31
3. grafikoa: Iruñeko Alde Zaharreko kalez kale merkatari establezimenduen distribuzioa	105

Mapak:

1. mapa: Iruñeko Alde Zaharreko mapa	27
2. mapa: Iruñeko Alde Zaharreko zarata maila	90



AITZIN SOLASA

Aguretuak hirugarren adinean badaude, gure auzoa agian hogeigarren adinean da: hamaika aldiz sortua eta birsortua, beste hainbatetan suntsitua, Nabarrerria muinoan jaio zen baskoien herrixka, gero civitas bihurtutako erromatarren kanpamentu militarra, Iruñeko Erresumaren hiriburu lehenik, eta Nafar Erreinu osoaren hiriburu geroxeago penintsula erdiaren jabe izan zena.

Ate eta harresi artean gotortutako auzoa, 1920an harresiak eraitsiz geroztik, hiriarekin bat eginik begiesten dugu. Gertakari hori, lehen eta orain bertako auzokideek izan duten nortasunaren erakusgarri da: jatorrizko nortasun sendoa, baina, desberdina denarekiko ireki eta abegitsua.

Behialako hiria auzo hauxe zen, batzuk zaharra deitzen diote, ez da ordea bidean nekatuta pausatu den zahartzarrea, arpilatzeak eta raziak jasan eta gero, bere burua etengabe asmatzen, hobetzen eta zaharberritzen jakin baitu.

Burgoen artean, finean, anaien artean borroka gordinak ezagutu dituen auzo hau 1423an batu zen. Orduz geroztik, diferentziekiko begirunea badaki zer den, baina, ez du inongo banaketarik ametitzen. Horregatik, badaki interes komuna interes partikularrari nagusitzen.

Gure auzoaren bide luzeaz hitz egitea kondairazko iraganaz mintzatzea da. Horregatik, sar hitz honetan historiaz hitz egin nahi dugu, baina, egiteke dagoen bideaz, egiteke dagoen historiaz, etorkizunaren paper zurian izkiriatu nahi dugunaz. Zergatik ez egungoari aurre egin begirada etorkizunean dugula? Zergatik ez arazoei gure desioen neurri eta tamainako konponbideak jantzi? Zergatik men egin egunerokotasunari, unean unekoari, geure arteko sakabanaketari?

Erraza da galderak egitea, baina, ez erantzun egokiak topatzea. Zer egin, nola, nondik abiatu, nork?

Honela hasi ginen, galderek bildu gintuzten Komunitate Planaren Talde Motorreko partaideok hasieran. Ez dugu behin betiko erantzunik topatu, baina, behintzat bidea, egin dugun bidea eta bideko paisaian zehar egin ditugun gogoetak proposatu nahi dizkizugu.

Nork galderaren erantzuna sinplea da: guzti-guztiok inor kanpoan utzi barik, auzokide, bisitari, talde, kolektibo, teknikari, gobernari eta partiduek. Iritzi guztiak dira bidezko eta denok dugu ekarpenen bat egiteko.

Zer egin galderari erantzutea nekezago suertatu zitzaigun, baina, Marco Marchioni aditua izan genuen bidelagun. Aholkatu eta, ekimen eremu ezberdinak (osasuna, ekipamenduak, etxebizitza, hirigintza, merkataritza, etab.) zein populazio sektoreak (haurrak, gazteak, adinekoak, gutxiengo etnikoak, etab.) bilduko zituen Komunitate Plana egiten orpoz orpo lagundu zigun.

Nola galderaren erantzuna baldintza batzuek osatzen dute. Formari lotutako baldintzak: begirunea, adostasuna eta akordioen bilaketa. Metodologiari buruzko baldintzak: gaien integraltasuna, aniztasuna parte hartzean eta sakontasuna mamian.

Abiapunturik onena komunitate diagnosis genuela uste izan dugu. Diagnosiak errealitatearen argazki aldakorra, errealitate horretan murgildutako aktoreen iritziak, arazoen analisisa eta berauen konponketarako proposamenak bildu behar zituen. Hori nola egin jakin gabe, zientziaren atea jo genuen eta parez pare ireki zitzaigun. Bi unibertsitate, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Euskal Herriko Unibertsitatea, ikasgeletatik atera eta karrika ukitu zuten, batuta atera eta banda zuzendu zuten. Ez da ezertxo ere aski izanen egindakoa eskertzeko.

Hau da urtebeteko lanaren fruitua. Ikuspuntu askoren artean topatu dugun begirada partekatua: denon ahaleginak ereinez lortuko dugun fruituaren hazietako bat gure baratza den auzo maite honetan.

Eta hau hasiera besterik ez da. Oraindik ere bilera, ahalegin, frustrazio eta gorabehera urte asko gelditzen da. Oraindik ere asko dago idazteke auzo txuri lisatu berri honetan. Errealitatearen interpretazio egokia egitea bezain garrantzitsua da errealitatea hobetzeko ibili beharreko bidea.

Alde Zaharrak oroitzapen gozo-gaziak gordetzen ditu bere oroimenean eta geure akatsetatik ikasten dugu. Horrela bizi gara eta horrela goaz bidean aurrera. Baina oraingoan, oraingoan desberdina izango da.

Orain badugu Plana.

Iruñean, 2006ko Otsailaren 9an

Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Planaren Talde Eragilea



Auzo bizi baten Komunitate Diagnostia dugu hau. Bizia da, izan ere, bizitzak eramanen utzi beharrean, auzokideek daramate euren eskutan. Beraien lorpen ugarien artean, Plan hau duzue, bertakoen bizimodua hobetzeko ahalegina.

Pertsonen bizimodua hobetzeak lehenik, errealitateaz (batzuetan itxaropentsua, besteetan ezkorra) jabetzea esan nahi du. Eta bigarren, gauzak alda daitezten konpromisoa erakutsi eta borrokatzea da. Gauzak diren bezala mantentzeko etsipenean erori gabe, ezagutza eta eraldaketa sozialerako subjektu sentitzea da.

Iruñeko Alde Zaharrean 12.599 lagun bizi dira. Lagun bakoitzeko hainbeste ilusio eta amets daude ezen zaila baita pentsatzea lan hau guztientzako denik, baina ala da. Bertakoen zein bertakotuen artean hamaika identitate aurki genitzake. Batzuk adinekoak dira eta bizi osoa daramate auzoan. Beste batzuk etorkinak dira eta euren ametsak beste lurralde batzuetan dute habia. Beste hainbat eskuinekoak dira, batzuk euskaraz mintzo dira eta beste batzuk berriz, gazteleraz. Badira ere indarrez lepo dauden gazteak eta badira, baita ere, besteen laguntza edo babesa behar dutenak.

Komunitate Plana eta Parte Hartuz-i esker, horientzat denentzat lan egin ahal izan dugu. Badakigu hainbati ez zaiola idatzitakoa gustatuko eta, leunegiak izateaz, ala kritikoeziak izateaz salatuko gaituzte. Haatik, lan honek denentzako izaten jarraitzen du. Gaiei buruz eztabaidatzeko bakarrik bada ere, auzoa pizteko tresna bilakatuko litzateke.

Etxebizitzekin, adinekoen laguntzarekin, gazteen aisialdiarekin, kaleetan oinezkoen bideak jartzearekin edota komertzio txikiaren ereduarekin arazoak, egon, badaude. Baina, bada baita ere, era guztietako kolektiboen gizarte ehun joria, haurrez betetako eskolak, kulturen arteko elkarbizitza eta, batez ere, giza harremanen garrantziaren kontzientzia.

Hori da Alde Zaharraren benetako akuilua. Ez komunitate diagnostiek (unibertsitatekoak), ez eta herritarren parte hartze planek (instituzioenak) ordezka dezakete hezur haragizko 12.599 lagun horien historia eta protagonismoa, egunez egun auzo zaharberri honen kale eta plazatan idazten dena.

Besterik gabe, gure eztabaida talde, jarraipen batzorde eta galderak jasan dituzten hamaika lagunei geure esker onak helarazi nahi dizkizuegu. Asko ikasi dugu zuetaz eta espero dugu zuek ere zerbait ikastea lan honekin.

Mila esker.

Komunitate Diagnostia Taldea
(Patxi, Andoni, Patxi, Zesar eta Imanol)
Bilbo/Iruñea, 2006ko Urtarrilaren 31n

1. Sarrera

Diagnosi hau Alde Zaharreko Komunitate Planaren ekimenaren baitan sortzen da. Komunitate Planaren ekimena hainbat lagunek osatutako Talde Eragileak abiarazi zuen. Lagun horietako batzuk bertako auzogintzari lotuta daude, beste batzuk, antolaturik egon gabe, ilusioz hartu dute ekimen honetan aritzea. Ekimen hau 2003an hasi zen martxan bi oinarritatik: auzoko bizi-baldintzen hobekuntzari integraltasunez, eta ez sektorialki bakarrik, eustea; eta auzokideek nahi duten auzo eredia parte hartzearen bidez zehazten joatea.

Ezin bide bazterrean ahantzita utzi Marco Marchioniren ekarpen erabakigarria. Komunitate garapen prozesuetan aditu dugun gizarte ikerlari honek borondate hutsez aholkatu du hasiera-hasieratik Talde Eragileak. Inoiz ez du erabaki uneetan parte hartu, bertakoen autonomia errespetatu du, baina, hartu beharreko norabideari buruz gidatu gaitu, beharrezko formakuntza metodologikoa eskaini digu, beste esperientzietara lotu gaitu eta unerik zailenak presentzia hutsez samurtu ditu.

Ekimen honen luze zabalean honako jarduerak burutu ditugu Talde Motorreko partaideok: herritarren parte hartze eta komunitate planei buruzko formakuntza ikastaroak, komunitatea protagonista duten garapen lokaleko beste esperientzietara hurbilketa, halako planak aholkatzen dituzten profesional eta dinamizatzaileekin hartu emanak; eta azkenik, elkarte, teknikari, administrari eta kargu politikoeekin interlokuzioak, ekimenaren berri eman zein bertan parte hartzera gonbidatzeko. Azkenean, Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Plana 2004ko apirilean aurkeztu zen jardunaldi batzuetan. Jardunaldiotan 160 bat lagunek parte hartu zuten: auzokideak, merkataria, eragile sozial eta politikoak, elkarateak, irakasleak, gizarte langileak, Osasun Etxea, zinegotziak, Alkatea, Alde Zaharreko Bulegoa, Gizarte Ongizaterako Departamendua, "Urban"-eko teknikariak...

Jardunaldiotan Komunitate Plana horrela definitu genuen: komunitatea protagonista duen gizarte eraldaketarako prozesua, gauzak aldatzea xede duena auzoko bizi-baldintzak hobetzeko. Eraldaketa horretan herritarrak, teknikariak eta politikariak elkarlanean aritzea da helburua. Izan ere, guztiak baitira komunitate lokalaren parte, esan nahi baita, lurralde jakin batean dauden eragile eta harremanen sarearen parte. Proposamena hau da: protagonista bakoitza bere eremuan aritzea, besteen eremu eragotzi gabe, baina, elkarlanean. Ahalegin eta baliabideak koordinatuko dituen eraikuntza prozesua abian jartzea, alegia. Jakina, oraino nagusiak izan diren mesfidantzak gaingitu beharreko oztopoak dira, zailtasun konpongaitzak dira gainera. Zentzu horretan, desadostasunak, tentsioak eta gatazkak halako prozesuetan presente izaten diren osagaiak ditugu.

Prozesu honetan funtsezko lanabesetako bat Komunitate Diagnostika dugu. Diagnostikaren zeregina auzoko errealitatea, beharrak eta lehentasuneko ekimenak zehaztea da. Hori guztia, noski, parte hartze zabaleko prozesu baten baitan zehazten joan behar da. Gainera, analisi eta gogoeta horretan komunitateak biltzen dituen alde ezberdin guztien inplikazioa lortzea. Orube komun horretatik izango da posible den artean auzoa eraldatzea.

Zentzu horretan, Komunitate Planaren sortze prozesuan abiatu zen elkarlanaren sustapena: eremu, baliabide eta ikuspegi desberdinetatik, baina lurralde berean diharduten aktoreak elkarlanean ipintzeko lana. Eta elkarlan eta sinergia horiek ahalbidetzeko saiakera 2004ko jardunaldi arrakastatsuetan ikusi zen. Zoritxarrez, elkarlanerako saiakera horrek halako pitzadura bat ezagutu zuen udal instituzioen eta auzoko hainbat gizarte eragileen artean liskarrak hasi zirenean. Horrek halako "impasse" egoera batean murgildu gintuen, eta handik aurrera aurreikusi genuen antolakuntza eskema moldarazi zigun.

Erronkaren zailtasuna tarteko, Talde Eragilea gogoeta berri baten aurrean paratu zen: komunitate prozesuen ikerketan eta formakuntzan aritzen zen sare zabalago bateko baliabideak nola piztu. Horrela, Parte Hartuz-ekin harremanetan jarri ginen. Parte Hartuz Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoa, Soziologia eta Hezkuntzako ikerketa talde bat da. Hainbat irakasle, ikerlari, bekadun eta kolaboratzailek osatzen dute. Parte Hartuz-ek parte-hartzezko demokrazia prozesuak ikertzen eta sustatzen ditu. 2005eko hasieran erabaki zuten plan hau laguntzea eta diagnostika zuzentzea, eta esan beharra dugu altruismo hutsez egin zutela.

Oraindik baina, gure lurraldeko komunitate akademikoaren balidazio eta aholkua behar genuen. Nafarroako Unibertsitate Publikoa genuen aliatu naturala. Giza Zientzietako Dekanotza, Soziologia eta Gizarte Laneko departamenduak bezalaxe, laster batu zitzaigun ideiera. Horiek, Iruñeko Udaleko Soziologia departamenduko kide batek, Parte Hartuz-ek, Talde Motorrak, eta noizbehinka Marco Marchionik, Diagnostikaren Koordinazio kontseilua osatu zuten. Diagnostikaren prozesuan erabakigarria gertatuko zen aholkularitza eta bitartekaritza mahaia osatu zen horrela.

Ikerketaren jarraipena egiteko orduan, jakina, herritarren, administrazio teknikarien eta auzo eragileen aholku eta ekarpenak berebiziko garrantzia zuten. Metodologia eskema berari jarraituz, kolektibo eta herritarren Batzordea eta Teknikarien Batzordea osatu ziren.

Gaur egun ere, urtebeteko ibilbidea egin eta gero, elkarlanaren eremuan izandako galerak osatzeak ahalegin berezia suposatzen digu. Eta abiapuntuan genituen baldintzak eta genituen parte hartze helburuak ez dira izan espero genituen bezain zabalak (batez ere arduradun instituzionalen aldetik). Erronka, beraz, handia zen, eta halaxe izaten jarraitzen du. Dena den, hasiera-hasieratik pentsatu izan dugu alde kontrajarriak agertuta ere, ezin zela egindako lana pikutara bidali. Desadostasunak desadostasun, oraindik ere gauza bera pentsatzen dugu: norberak bere eremuan egiten duen lana eragotzi gabe, bakoitzari berea aitortuz, elkarlana bultzatu behar dela.



interes komuneko puntuetan. Hori da auzoko baliabideak eta bizi-baldintzak hobetzeko bermea.

Hori izan da ideia gorpuzten hasi ginenetik presente izan dugun kezka nagusia. Hara hemen emaitza. Auzo hau bizileku hobe bihurtuko duela espero dugu.

2. Helburuak eta lan metodologia

2.1. Ikerketaren helburuak

Jada esan dugunez, diagnosi hau Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Planaren baitan sortzen da. Plana komunitatea protagonista duen bizi-baldintzen hobekuntza eta eraldaketa gisa definitu dugu.

Prozesu horretan aurrera jotzeko dugun tresnetako bat Komunitate Diagnostika dugu. Diagnostika bi xede nagusi ditu:

- a) Parte-hartzearen bidez auzoko errealitatea aztertzea. Analisiaren hiru dimentsio interesatzen zaizkigu: auzoan dagoena (baliabideak, zerbitzuak, azpiegiturak, gizarte-sareak...), nola hauteman eta baloratzen den errealitate hori (argi/itzalak, potentzialtasunak-gabeziak), eta lehentasunezko ekimenak (komunitateak egin nahi duena eta egin dezakeena).
- b) Komunitatea, bere ezberdintasun eta kolore guztiak kontuan hartuz, analisisan inplikatzeko, behar eta ekimen komunak zehazteko. Gerora, eraldaketa prozesua gerta dadin.

2.1.1. Ikerketaren sakoneko helburuak

Parte hartze metodologia duten lan guztietan bezala, gaiari lotutako helburuak zehazteaz gain, Diagnostikaren testuinguruarekin lotutako helburuak zehaztu beharrean gaude: nortzuk egiten dugun, zein funtzioekin egiten dugun eta norentzako egiten dugun diagnostika.

Nortzuk galderari erantzunez, ikerketa hau Parte Hartzeko bi kidek, Talde Eragilearen beste bi kidek, eta Planaren Komunitate Taldeko teknikari batek zuzendu dugu. Landa lanerako, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Soziologia ikasten ari diren lau kideren laguntza izan dugu.

Ikerketa honen zergatiari dagokionez, esan beharra dugu Talde Eragileak eskatutako kolaborazioa gogo onez onartu dugula adostasuna dugulako ekimen sozial honekiko. Lehen esan bezala, ekimen hau herritarren parte hartzean, erabakiak hartzean eta euren bizi-baldintzen hobekuntzan oinarritzen baita, eta hori ere gure lan-filosofia da.

Ez dugu hori izan ekimen honetan kausitu dugun hurbiltasun edo sintonia bakarra, ekimen hau auzokide batzuek abiatu eta dinamizatu izatea (batzuk auzogintzari lotutako

kolektiboetan dihardutenak eta, beste batzuk, komunitate-planak akuilatu dituztenak), hots, behetik gorako dinamika integratzailea sortzen duen herri ekimena izatea, egitasmo honetan positiboki baloratu dugun beste elementu bat dugu. Parte Hartuz-ek normalean botererik ez duten sektoreei komunitatean protagonismo eta eragiteko bostere gehiago ematen dituzten ekimenak babesteko jarrera adierazi nahi du. Gure ideala komunitatearen prozesu parte hartzaile hauek gero eta gizarte zibil auto-antolatua goa eta bere kaxa prozesu parte hartzaileak garatzen dakiena eraikitzea da.

Aurreko horixe dugu prozesu honetan sartzearen zergati filosofiko-ideologiko funtsezkoa. Bestalde, ikerketa eredu hau, komunitate-diagnosia, gure inguruan oso gutxitan garatu da eta praktika eta ikasteko esperientzia berrietan murgildu gaitu.

Azkenik, ikerketaren funtzioari erantzun nahi genioke. Komunitate batean elkarbizitzaren inguruan dauden lehentasun edota usteak desberdinak direla, sarri asko kontrajarriak, jakitun gara. Aitzitik, aktore guztien artean, desberdintasun horri uko egin gabe, auzoko bizi-baldintzen eta baliabideen hobekuntzan elkarpuntua bilatzen dituzten eremuak sortzeko dugun borondatea adierazi nahi dugu.

2.1.2. Gaiei dagozkion ikerketaren helburuak.

Komunitate-planaren helburua auzoko bizi-baldintzen hobekuntza den aldetik, diagnosia helburu horretara hurreratzeko tresna dugu. Zentzu horretan, auzoko komunitatearen bizitzaren dimentsio ezberdinak bustitzen dituzten gaiei dagozkion helburu jakin batzuk zehaztu ziren. Ez da ahaztu behar, dena den, ikuspegi integrala erdieste delako gure helburua, eta ez sektorekako diagnosi batzuen batuketa egitea. Gaiei dagozkion helburuak era berean, garatu ditugun lau lan-eremuak ditugu:

- a) Lehenik, Iruñeko Alde Zaharraren testuinguru orokorra aztertu dugu, bertako ingurune fisikoa eta biztanleria. Auzoaren historia hurbila ere kontuan hartu dugu azken aldiko gertaera esanguratsuenak identifikatzeko. Egiturazko elementuen analisian, gaur egungo biztanleriaren oinarritzko ezaugarriak xehekiago ikusi ditugu. Adina, sexuaren araberako banaketa, heziketa maila, profil soziolinguistikoa edota lan-merkatuaren araberako posizioa (okupazio-maila eta banaketa). Datuok garrantzitsuak ditugu auzokideak euren inguruneaz jabe daitezen, komunitatea bere errealitateaz kontzienteago bilaka dadin.
- b) Interes berezikoa dugu gizarte-sareen analisia, eragile desberdinak lotzen dituzten sare formal eta informalei so egitea. Nola edo hala auzoko bizitzan eragina duten kolektiboak, elkarreak, gizarte-mugimenduak, eta gainerako eragileak: merkatariak, ostalariak, profesionalak, administrazioaren alor politikoa eta teknikariena, hau da, komunitatea zentzu orokorrean, lurralde jakin batean eragiten duten eragile eta harremanen sarea bezala ulertuta.
- c) Auzoko baliabideak, zerbitzuak eta ekipamenduak analizatzea. Biztanleriak nola hautematen dituen zerbitzu hauek, antzematen dituen gabeziak. Hezkuntza-baliabideen, osasun eta gizarte-zerbitzuen, hala nola, kultura, kirol eta aisialdiko



ekipamenduen analisia. Helburua hauen funtzionamenduan, koordinazioan eta erantzuteko gaitasunean sakontzea da, auzokideen beharrei erantzutearren. Diagnosiaren helburua ere, zerbitzu hauek lan egiten duten biztanleriari buruzko informazio zehatzagoa izatea da, beharrezkoa balitz, komunitatearen beharrei hobeto egokitzeko.

Baliabide eta ekipamenduez gain, diagnosi hau gai transbertsalei irekita egotea planteatu genuen. Gai hauek dira duten berritasunagatik edota, kezka pizteagatik, esanguratsuak direnak gaurkotatzen diren; atzeritiko datozen auzokide berriak dakarten kultura-aniztasuna edota zaharrek eta gazteek dituzten behar espezifikoa gaur egun funtsezkoak dira auzokideek euren auzoa hautemateko duten eran.

- d) Azkenik, etxebizitzaren analisiari (baldintzak eta eskuragarritasuna) leku berezia eskaini diogu. Horrekin batera, hiri egiturak biztanleen ongizatean duen eraginari erreparatu diogu: jendearen mugikortasuna eragozten duten oztopoak, trafikoa, aparkalekua, berdeguneak, jendearen arteko harremana errazten duten topaguneak... Eta azkenik, azken urteotako garapen ekonomikoari (ostalaritza, merkataritza eta turismoa) so egin diogu, horretarako, jarduera horietan dabil-tzan eragilean lekukotasuna jasoz.

2.2. Ikerketaren planteamendu metodologikoa

Lehentxeago ikusi dugun bezala, Parte Hartuz-eko bi kidek, Talde Eragilearen beste bik eta planaren Komunitate Taldeko teknikari batek gorpuztu dugu talde misto hau. Osaera honek, aktore sozialek ekintzarako euren buruaren hausnarketa egitearen dimentsioa indartu nahi du, taldekideak prozesua ahalbidetzeko behar diren metodologietan trebatuz.

Aldi berean, Diagnosi honetako zuzendaritza-taldeak aldizka Komunitate diagnosirako Koordinazio Kontseiluarekin lan egin du. Kontseilu hau Soziologia eta Gizarte-laneko Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) hainbat irakaslek, Komunitate-Planaren Talde Eragilearen ordezkariak eta, beraien aholkulariak, Marco Marchionik osatu dute. Hauei guztiei gure esker ona berretsi nahi diegu egindako ekarpen eta emandako aholkuengatik. Erabaki pertsonalez kontseiluan parte hartu duen Iruñeko udaleko Soziologia saileko kide bat ere eskertu nahi genuke. Bestalde, Udal Gobernuko ordezkari politikoak, behin eta berriz gonbidatu ditugunak, eta alkateordea eta herritarren parte hartzerako zinegotzi den kidearekin bildu ostean, kontseilu honetan eta diagnosi-prozesuan parte hartzeari uko egin diotenak ere eskertu nahi ditugu.

2005eko otsailetik urria bitarte, Komunitate-diagnosiaren lanak, alde batetik, dokumentazio lana eta Iruñeko Alde Zaharrari buruzko beste ikerketa batzuetatik hartutako bigarren mailako informazioaren analisia ekarri zuen. Bestetik, hainbat auzokide, herritar, teknikari eta administrazio zein gizarte erakundeetako kidekin izandako elkarrizketa, eztabaida talde eta jarraipen batzordeetako ekarpen ere aztertu ditugu.

Honekin guztiarekin batera, umeeekin eta lagun-koadrilekin ere hainbat talde-dinamika espezifiko egin ditugu. Azkenik, helburu bikoitzarekin: bizipenak eta iritziak jaso eta hausnarketa tailerretan parte hartzeko gonbidapena luzatu, elkarrizketak eta auzoko bizitza jasotzen dituen ikus-entzunezkoa (DVDa) burutu dugu.

Bestalde, lan honek ere burututako beste hainbat ekimen osagarriren informazioa jaso du, besteak beste, *Topaketak Alde Zaharrean*-ena. Topaketa hauetan hiru mahai-inguru burutu ziren Immigrazioa, Osasuna eta Etxebizitza-Hirigintza aztertzen, eta bertan, gai hauetan aditu ditugun hainbatek parte hartu zuten. Era berean, makina bat auzokidek euren ekarpena utzi ziguten Alde Zaharraren egunean Gaztelu Plazan iltzatuta egon ziren Komunitate Planaren metakrilatozko paneletan.

Prozesu honetan eman den beste urrats metodologikoetako bat *Eztabaidarako eta adostasunean jartzeko ibardunaldiak* etan emandakoa dugu. Jardunaldiok egindako lana plazaratzea ahalbidetu digute; eta, horrela, komunitateak diagnosirako eskaini digun ezagutza komunitateari itzultzea eta eztabaidan jarraitzea ekarpen berriak jasotzeko eta lan ildo berriak definitzeko. Jarraian, erabilitako teknika bakoitzarentzat egindako diseinua zehazten dugu:

- a) Pertsonen Elkarrizketak (PE).
 - b) Eztabaida-taldeak (ET).
 - c) Talde-dinamika espezifikoak.
 - d) Jarraipen batzordeak
 - e) Parte-hartze tailerrak.
 - f) Eztabaida eta adostasunean jartzeko Jardunaldia
- a) *Pertsonen Elkarrizketak (PE)*: helburua Alde Zaharreko errealitatera hurbiltzea izan genuen, bertako gaurkotasuna eta historia hurbila ikuspegi, interes eta errealitate ezberdinetatik aztertuz. Elkarrizketak 2005eko otsaila eta martxoan egin genituen.

_ Elkarrizketa	PE1 Gizarte-mugimendua
_ Elkarrizketa	PE2 Auzo elkarte
_ Elkarrizketa	PE3 Dendarien elkarte
_ Elkarrizketa	PE4 Auzo elkarte <i>San Cernin</i> zonaldea
_ Elkarrizketa	PE5 Udaletxea, soziologia-saila
_ Elkarrizketa	PE6 Udaletxea, <i>auzo unitatea</i>
_ Elkarrizketa	PE7 Udaletxea, <i>URBAN</i> planaren-teknikariak
_ Elkarrizketa	PE8 Gizarte-zerbitzuetako profesionalak
_ Elkarrizketa	PE9 <i>Centro pastoral San Cernin</i>
_ Elkarrizketa	PE10 <i>Zarreko</i>ko langileak



b) *Eztabaida-taldeak (ET)*: helburua Iruñeko Alde Zaharrean bizi, lan egin edota auzoarekiko beste loturaren bat zutenen ikuspegiak eta beharrak identifikatzea izan genuen. Aldi berean, auto-diagnosi honetara eragile ugari barneratzen hasi ginen. Hara deitutako pertsona orori lan honen zergatiaren eta funtzioaren berri eman genien eta era iraunkorrean parte hartzeko deia luzatu genien. Eztabaida-talde hauek 2005eko martxoa, apirila eta maiatzean egin genituen.

Auzoko errealitateari buruzko diskurtso eta bizipen ezberdinak jasotzeko bost bereizketa-ardatz definitu genituen:

- 1) Auzoarekiko lotura mota: auzokidea, profesionala, aisialdikoa, kulturgintza-koa eta antolakuntzako (peñak, kolektiboak, taldeak...)
- 2) Status sozioekonomikoa: bizilekua auzoaren barruan (erdiguneko kaleak ala periferikoagoak) eta lanbideak.
- 3) Adina: ume-aroa eta amatasuna/aitatasuna; gazteak eta adinekoak.
- 4) Jatorria eta gutxiengo etnikoak: bertakoak eta bertakotuak (hegoamerikarrak, magrebtarrak, Europa ekialdekoak, Sahara azpiko afrikarrak...); eta bertako gutxiengoren bateko jatorrizko biztanleak (ijitoak).
- 5) Generoa: etxean lan egiten duten emakumeak, auzogintzan dabilzan emakumeak, emakume etorkinak, guraso bakarreko familietako emakumeak; ostalaritzako ala merkataritzako emakume profesionalak.

Bost ardatz hauek gurutzatuz 8 eztabaida-talde egin ziren. Profil hauetako batzuekin harremanetan jartzeko eta berauek parte hartzeko izan dugun zailtasunagatik eztabaida hauetan ez dira nahi beste ikuspegi islatu. Eztabaida talde bakoitzean honako soslai sozialeko jendea izan genuen (azpimarratuta agertzen dira talde bakoitza osatzeko definitu genituen ardatz nagusiak, eta beltzez par-tehartzaileen soslai nagusia):

- **ET1 (6/8 lagun)**

- 1) Auzoarekiko lotura: **bertan bizi eta lan**.
- 2) Status sozioekonomikoa: **altua eta ertain-altua**, erdiguneko kaleetan bizi dira eta hostalariak/merkatariak ditugu kaleotan (S.Nicolas, Gaztelu Plaza, Sarasate, Redin, S. Saturnino); lan mailan, lanbide liberaletakoak (enpresariak, abokatuak, sendagileak, enpresetako goi-teknikariak...) eta funtzio sozialeko zerbitzuetako langileak (irakasleak, funtzionario publikoak, osasungintzakoak...).
- 3) Adina: **helduak (35-65)**.
- 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakoak**.
- 5) Generoa: **biak**.

- **ET2 (6/8 lagun)**

- 1) Auzoarekiko lotura: **aisialdikoa, kultura-elkarteren bateko kideak**.

- 2) Status sozioekonomikoa: **ertaina edo ertain-altua**, unibertsitateko ikasleak, funtzio sozialeko zerbitzuetako langileak (irakasleak, funtzionario publikoak, osasungintzakoak...), lanbide liberaletakoak (enpresariak, abokatuak, sendagileak, enpresetako goi-teknikariak...).
 - 3) Adina: **gazteak (16-34) eta helduak (35-65)**.
 - 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakoak**.
 - 5) Generoa: **biak**.
- **ET3 (6/8 lagun)**
 - 1) Auzoarekiko lotura: **bertan bizi eta bertan lan**.
 - 2) Status sozioekonomikoa: **baxua edo ertain-baxua**, kale periferikoetan bizi direnak (Descalzos, Jarauta, Merced, Dormitaleria...) eta kaleotan ostalari/merkataria; lan mailan, eraikuntzako, industriako edo ostalaritzako soldatapekoak.
 - 3) Adina: **helduak (35-65) eta adinekoak (>65)**.
 - 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakoak**.
 - 5) Generoa: **biak**.
 - **ET4 (6/8 lagun)**
 - 1) Auzoarekiko lotura: **bertan bizi direnak eta aisialdi mailako lotura dutenak**.
 - 2) Status sozioekonomikoa: **baxua**, kale periferikoetan bizi direnak (Descalzos, Jarauta, Merced, Dormitaleria kaleak...); lan mailan, langabetuak edota eraikuntzako, industriako ala ostalaritzako soldatapekoak.
 - 3) Adina: **helduak (35-65)**
 - 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakotuak (hegoamerikarrak, magrebtarrak, Europa ekialdekoak, subsahararrak...)** edota bertako gutxiengo etnikoetakoak (ijitoak).
 - 5) Generoa: **biak**.
 - **ET5 (6/8 lagun)**
 - 1) Auzoarekiko lotura: **bertan bizi direnak edota aisialdi mailako lotura dutenak**.
 - 2) Status sozioekonomikoa: **ertaina edo ertain-baxua**, kale periferikoetan bizi diren gazteak (Descalzos, Jarauta, Merced, Dormitaleria...) eta, beste auzoren batean bizi badira ere, Alde Zaharrean ibiltzen direnak. Unibertsitatekoak zein unibertsitatekoak ez diren ikasleak, beste norbaiten manupeko langileak.
 - 3) Adina: **gazteak (18-28)**.
 - 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakoak**.
 - 5) Generoa: **biak**.
 - **ET6 (6/8 lagun)**
 - 1) Auzoarekiko lotura: **bertan bizi direnak edota aisialdi mailako lotura dutenak**.



- 2) Status sozioekonomikoa: **ertaina eta ertain-baxua**, kale periferikoetan bizi diren adinekoak (Descalzos, Jarauta, Merced, Dormitaleria...) beste auzoren batean bizi baina lantzean behin Alde Zaharrean ibiltzen direnak.
- 3) Adina: **adinekoak (65 edo gehiago)**.
- 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakoak**.
- 5) Generoa: **biak**.

- **ET7 (6/8 lagun)**

- 1) Auzoarekiko lotura: **bertan bizi direnak**.
- 2) Status sozioekonomikoa: **ertaina eta ertain-altua**, auzoan bizi diren gurasoak, funtzio sozialeko zerbitzuetako profesionalak (irakasleak, funtzionario publikoak, osasungintzakoak...) eta autonomoak.
- 3) Adina: **etxean umea daukaten gurasoak (35-45)**.
- 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakoak**.
- 5) Generoa: **biak**.

- **ET8 (6/8 lagun)**

- 1) Auzoarekiko lotura: **mistoa**, bertan bizi direnak, kultura mailako edo bestelako elkarteren batean dabilzanak, merkataritza/ostalaritzako profesionalak.
- 2) Status sozioekonomikoa: **mistoa**, etxeoandreak, auzogintzan dabilzan emakumeak, emakume etorkinak, guraso bakarreko familietako emakumeak, eta ostalaritza edo merkataritzako emakume profesionalak.
- 3) Adina: **gazteak (16-34) eta helduak (35-65)**.
- 4) Sorterria eta gutxiengo etnikoak: **bertakoak** eta **bertakotuak**.
- 5) Generoa: **emakumezkoak**.

c) *Talde-dinamika espezifikokoak*: ordura arte behar adina jaso gabeko ikuspegi eta biztanle-sektoreetara hurbiltzea izan genuen xede:

- 1) Kale-dinamika umeekin: eurentzako esanguratsuak ziren auzoko txokoak grabatu eta leku bakoitzeko elementu positiboak eta negatiboak identifikatu. 2005eko uztailean.
- 2) Kale-dinamika txikitero koadrila batekin eguerdiko poteoan: euren elkarrizketetan parte hartu eta euren ikuspegitik azken urteetan auzoan jazotako aldaketa nabarmenenak jasotzea. 2005eko irailean.
- 3) Talde-dinamika gizonezko koadrila batekin euren peñan: afari-eztabaida Alde Zaharrean bizitzearen aldeko/kontrako arrazoiei buruz. 2005eko irailean.
- 4) Kale dinamika Alde Zaharraren egunean (2005eko maiatzaren 28an), auzoari buruzko inpresio zein lekukotasun desberdinak jasoaz batera tailerretarako eta batzordeetarako deialdia luzatu zen. *Zaindu maite duzun hori* ikusentzunezkoa burutu zen. Diagnosi horri egin zitzaizkion ekarpen batzuk jasotzen ditu bideo horrek.

d) Jarraipen-batzordeak: aurreko dinamika eta eztabaida taldeetan parte hartu duten pertsonak deitzen ditugu batzorde hauetara gogoeta eta ekarpen gehiago egin dezaten. Modu horretan, pertsona eta eragile horien etengabeko parte hartzea ahalbideratzen da prozesu osoan zehar, izan ere, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak une puntualagoetan egiten baitira. Honi esker, aktoreen auto-diagnosiari buruz mintza gaitezke, haien ekarpen eta hausnarketa jarraitua baita. Azken batean, eragileek batera hausnartu eta lehentasunezko behar eta ekimenak adosteko baldintzak sortzea dugu diagnosi-prozesuaren helburua. Bi jarraipen batzordeak jardun dute aldi berean, batean, gizarte eragileek eta Alde Zaharreko auzokideek jardun dute, bestean, aldiz, auzoan diharduten administrazioko teknikariek nahiz gizarte erakunde batzuetako profesionalak.

- 1) Gizarte eragileen Jarraipen Batzordea: hiru lan eta eztabaidarako bilkura tartekatatu dira auto-diagnosi honen une desberdinetan. Parte-hartzeak 8tik 10 lagunera jo du. Parte hartzaileak kolektiboak edo auzoko norbanakoak izan dira. Saio hauek 2005eko apirilean, ekainean eta urrian zehar burutu dira.
- 2) Teknikarien Jarraipen Batzordea: Bilerak, gai sektorialeiei buruzko elkarrizketa espezifikokoak eta lan-saio bateratuak tartekatatu dira. Ekarpinak egiten 40 bat teknikari eta entitate sozial ezberdinetako profesionalak aritu dira, hala nola, ikastetxeetako, administrazioko zein osasun-etxeko kideak. Bilkura hauek 2005eko ekainean eta urrian zehar burutu ziren.

e) Parte hartze tailerrak: 2005eko ekainean komunitate-diagnosiaren lehen zirriborroari buruzko tailer monografikoak antolatu ziren. Zirriborro hori lehenengo kontrastatzeko, 70 lagun bildu ziren talde zein lan dinamika desberdinetan parte hartuz. Bilkurotako metodologia gai bakoitzeko lehentasunezko ekimenak adostera zuzendu zen.

Bildutako lagunei ikerketaren hurrengo faseetarako Jarraipen Batzordeetan parte hartzeko deia luzatu zitzaion.

Azkenik, arestian aipatu dugunez, *Eztabaidarako eta adostasunean jartzeko Ibar-dunaldien* bitartez eginiko lana plazaratzeko aukera eman digute, hots, komunitateak diagnosirako aurreratu digun ezagutza komunitateari itzultzeko aukera. Azken finean, lan honek eragile eta ekimen anitzentzako tresna izan nahi du eta, helburu horretan, hiru formatutan zabaldu zen auzoan, informazio hau ahalik eta jende gehienarentzat eskuragarri nahiz ulergarri suerta dadin.

3. Biztanleria, auzoaren izaera eta gizarte-sareak

3.1. Kokagune geografikoa eta historiari buruzko aipamena.

Alde Zaharra, Iruñerriaren iparraldean eta Iruñearen erdigunean kokatzen da.

Alde Zaharrak 442.006 metro karratuko azalera du eta bere mugak iparraldean Arga ibaia eta Vergel bidea, hegoaldean Sarasate pasealekua eta Gaztelu plaza, ekialdean Labrit jaitsiera, eta mendebaldean Takonera kalea ditu. Itsasmailatik 442 metroko garaieran dagoen meseta batean dago. Meseta horixe, Errotxapeak eta Arga ibaiak mugatzen dute eta iparraldeko perimetroan 40 metroko koska osatzen du.

1. mapa: Iruñeko Alde Zaharreko mapa



Alde Zaharrak duen arkitektura, arkeologia eta hiri ondareagatik Arte eta Historia Ondare Gune izendatu zuten 1968an. Hori dela eta, Alde Zaharraren eremua Historia Ondare-aren legepean aurkitzen da. Egun, 1150 eraikinetatik 256k erabateko ba-

besa dute eta 214k halako babesen bat dute. Katedrala, Erret-jauregia, Nafarroako Museoa, San Saturnino eliza, Nafarroako Comptos Ganbera eta Condestable Etxea kultur intereseko ondare izendatu dira.

1920a arte Alde Zaharraren eta hiri osoaren mugek bat egiten zuten. Urte hartan harresiak eraitsi eta hiriaren hedagunea eraikitzen hasi ziren. Ordura arte harresiez haraindi eraikitzeke ezintasunak orubeak eta etxeak baldintzatu zituen, honela, egun ikusten ditugun lurzoruak eta eraikinak, orobat, hirigunearen forma, espazio mugatu hura kosta ala kosta aprobetxatuz sortu zen. Gaur egun ere, erdi aroko hiru burgoek bere horretan dira eta bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ditu.

1. taula: Espazio publikoen eta etxebizitzien metro karratua Iruñeko Alde Zaharrean

	Alde Zaharra	
Etxaldeek betetzen duten azalera	284.000 m2	%67,5a
Eremu publikoen azalera	136.800 m2	%32,5a

Iturria: PEPRI Alde Zaharreko Memoria (2001)

Lehentxeago aipatu dugun bezala, hiriak eta Alde Zaharrak 1920a arte ia bat egiten zuten, nahiz eta, ordurako bizigune batzuk egon Errotxapean, Arga ibaiaren bazterrean. Harresiak behin betiko eraitea dugu XX. mendeko lehen erdialdean jazotako gertakaririk esanguratsuen, izan ere, horrek hiria handitzea ahalbidetu baitzuen II.Hedagunea eraiki ahala. Gertaera horrek, dena den, ez zuen Alde Zaharreko biztanle-kopurua jaitsarazi (28.000-29.000 bat biztanle); baliabide ekonomiko gehien zutenak joatearekin batera, errenta baxuko jendea ere etorri zelako.

Aipatu urte hauek ditugu hiriak luzaroan ezagutu duen lehen hazkunde demografiko eta ekonomikorik handienekoak. 30 urtetan biztanleria bikoiztu zen eta, geroago industriari ateak ireki zizkieten lehen tailerrak azaldu ziren. Hiriaren hazkunde-rik itzelena hurrengo hamarkadetan gertatu zen arren, hurrengo hamarkadetan Alde Zaharrak beheranzko joera ezagutu zuen maila ekonomikoan zein demografikoan: 1950 eta 1981a artean hiria %160 hazi zen bitartean, Alde Zaharrak %49 egin zuen behera. Tailerrak kanpoaldera (bizitoki auzoetara) edota sortu berri ziren industria poligonoetara mugitu zituzten. Aldi horretan Alde Zaharreko ekonomia hirugarren sektorerantz lerratu zen.

Biztanleriaren beherakada horrek, maila demografikoan ez ezik, ekonomian eta etxebizitzian ere utzi zuen arrastoa. Errenta baxuagoko jendeak ezin zion eraikinen mantenturako kostuari aurre egin. Gainera, jabetzaren banaketari ere eragin zion, zeren eta, lehenagoko eraikin osoaren jabetzetatik, pisu bakarraren jabetzetara iragan baitziren. Iraganbide horretan, bistan da, eraikinak zaharberritzea nabarmen zaildu zen.

Bertako biztanleria abandonatu izanak bertako jardueraren gainbehera ekarri du, (...) eraikinak eraberritzeko obitura galarazi du. Obitura horren galera bizkortu dute biztanleen errenta baxuek, jabetza bertikaletik horizontalerako eboluzioak, eta birgaitzea zailtzen zuen Errentamendu Legeak. Horrela, eraikinak kaskartu, gizar-



te bazterketa areagotu, eta hiri egitura aldrebestu da. Gertakari horien artean zaila da kausa eta efektua bereiztea (Alde Zaharreko Topaketak: Hirigintza eta Etxebizitza).

Azken urteotan biztanleria 12.000 bat lagunetan iraunkortu zaigu. Auzunea instituzio zein zerbitzuetarako eraikinen eremu gisa sendotu da¹. Era berean, hirugarren sektorearen beherakada gertatu da, batez ere, merkataritzarekin lotuta. Azken aldian, zerbitzuetarako eraikinak ere lekualdatzeko asmoa agertu da, Musika Eskola eta Nafarroako Liburutegia kasu.

3.1.1. Azken 20 urteotako gertakaririk azpimarragarrienak:

- 1985- Alde Zaharreko Merkatarien Elkartea sortzen da.
- 1986- Santo Domingo Merkatuaren eraberritzea.
- 1986- Udalak Alde Zaharra ostalaritza establezimeduen *gune saturatu* izendatzen du.
- 1986- ORVE (Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoa) sortzen da.
- 1988- NUP ez da Alde Zaharrean kokatuko, horrela, Irakasle-eskola eta Enpresaritza eskolak ateratzen dira. Nafar Gobernuaren zerbitzu ezberdinak bertaratzen dira (Hezkuntza Saila Santo Domingo kaleko Ospitale Militarrean, INAPa lehengo Merkataritza Eskolan...)
- 1988- Ermita eta O. Plaza eraberritzen dira.
- 1992- San Francisco Plazako aparkalekua eraikitzen hasten da, lur azpian egindako lehena auzoan.
- 1994- Aldezar Aisialdiko Heziketa Elkartea sortzen da eta haur-gazteentzako lehen ekimenak jartzen ditu abian.
- 1994- Euskal Jai frontoia okupatzen da.
- 1996- Auzoan Oinezkoen bideak jartzen hasten dira.
- 1996- *San Francisco* eskola publikoak D eredia ezartzen du.
- 1997- Hiri garraioaren 6. ibilbideak auzotik pasatzeari uzten dio. 14.a 2002an pasatzen da URBAN planak aurreikusi bezala.
- 1998- Alde Zaharreko Osasun Etxea irekitzen da eta Compania Plaza berrurbانيتzen da. Bertan auzokideentzako lehen aparkalekua zabaltzen da.
- 1999- *Alde Zaharra bizileku: 2005erako 55 proposamen* jardunaldiak burutzen dira auzoko sektore guztien zein administrazioaren parte hartzearekin.

¹ Santo Domingo kaleko Hospital Militarra birgaitu egin zuten Nafarroako Gobernuko Hekuntza Sailerako. Berriki, Erret Jauregia birgaitu dute Nafarroako Artxibategi Orokorra bertan kokatzeko.

- 1999- Alde Zaharraren Eguna ospatzen da lehenengoz eta auzoko sektore guztiek parte hartzen dute.
- 2001-2006- *Urban* plana garatzen da. Lehen hiru urteetan herritarrek parte hartzen dute.
- 2001- Alde Zaharrerako *PEPRI* a onartzen da.
- 2001- Gaztelu Plazako aparkalekuaren hasiera. 2004an irekitzen da.
- 2003- Nafarroako Artxibategi Orokorrerako Erret Jauregia birgaitzen da.
- 2003-2004- Musika Eskola eta Nafarroako Liburutegia lekuz aldatuko direla iragartzen da. Udalak eta Nafar Gobernuak erabakita Mendebaldea auzora pasako dira.
- 2004- *Iruñea Gune Historiko* sozietate publikoa sortzen da.
- 2004- Santo Domingo Merkatuan supermerkatu bat jartzen dute.
- 2004- Euskal Jai frontoitik jendea kaleratzen dute.
- 2004- *Casco Antiguo centro comercial a cielo abierto* izendapena jartzen du Merkatarien Elkartek.

3.2. Biztanleriaren egitura eta aldaketak

Sarrera-atal honetan Alde Zaharreko Biztanleriaren egitura labur-labur deskribatuko dugu. Bertako aldaketa demografikoaren zertzelada batzuk ikusiko ditugu ikuspegi kuantitatibotik, geroxeago, ikuspegi kualitatibotik sakontzeko. Ez dugu Biztanleriaren analisi xehea egiten, batez ere, biztanleria-piramidearen deskribapena eta honen bilakaera aztertzen dugu. Ondoren, auzokideen formazio akademiko maila eta enplegua zein lanbideekin lotutako gaiei erreparatuko diegu.

Datu hauen bidez auzoko egoerari gainazaletik heltzen diogu geroxeago muinean barneratzeko, errealitatera bere konplexutasun eta argi-ilunean atxikitzeko. Hartara, oraingo honetan Komunitate prozesuari beste helduleku bat eskaintzen diogu auzoko bizi-baldintzak hobetzera begira.


2006an 12.599 biztanle ditugu Alde Zaharrean. 2006ko piramidean biztanleri heldua gailentzen zaigu: piramidearen oinarria estu antzean ageri zaigu, erdialdea (25-45 urteen artekoak) zabalen agertzen zaigun bitartean; gazteen eta haurren kasuan, euren presentzia eskasa da, hazteko joera badu ere. Gehien nabarmentzen zaigun taldea 20-40 urte bitarteko jendearena da (%37,35), gainera, azken hauen kopuruak gora egin du 1996tik. 65 urtetik gorakoak %17,97 ditugu, 15 urtetik beherakoak berriz, %10,61

Emakumeen portzentajea doi-doi gizonekoena baina altuagoa da, %51,66koa hain zuzen ere. Honek zera esan nahi du: 100 gizoneko 107 emakume dagoela. Jaioberrietatik helduetara emakumezko adina gizoneko badaude ere, emakumeen portzentajea adinekoetan igotzen da bizitza-luzera handiagoa izanagatik.



1. grafikoa: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren banaketa adinaren arabera

Biztanleriaren piramidea, 2006/01/12




Iturria: Iruñeko Udala (2006)

3.2.1. Biztanleriaren bilakaera

2. grafikoa: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren bilakaera

Alde Zaharreko biztanleriaren bilakaera



Iturria: Iruñeko Udala (2006)

Orokorrean, Alde Zaharreko biztanleriak behera egin du 1981etik gaur egun arte, dena den, bilakaera horretan bi fase daudela esan daiteke. Lehen fasean biztanleria

nabarmen abailtzen da: 1.571 bat laguneko batz bestekoa bost urtero. 1981etik 1996ra auzoak Biztanleriaren %32 galdu zuen. Azken urte horretatik aurrera behe-ranzko joera gelditu egin zen. Segidan, urte horretatik aurrerakoa ikusiko dugu, izan ere, berreskuratze zantzu batzuk nabaritu dira²

1996 eta 2001a arteko hazkuntza %12,11koa dugu eta, azken urteotan, %11,26koa. Hazkuntza zertxobait geldotu da iazko jaitsiera txikia (%0,82koa) dela medio. *Plan Especial de Reforma Interior del Casco Antiguo (PEPRI)*a aintzat hartuz gero, 14.000 bat lagun³ barne hartzen omen ditu Alde Zaharrak eta Biztanleriaren hazkuntza perspektiba %10etik gorakoa litzateke. Edonola ere, *PEPRI*k Alde Zaharrerako aurreikusten dituen etxebizitza kopurua eta etxebizitza bakoitzeko dagoen pertsonen batz bestekoa kontuan hartuz gero, 15.000 lagun izatera hel gintezke. Honi ere, hazkuntzari dagokion azpiegitura nahiz zerbitzu berrien kopurua gehitu beharko genioke.

Hazkuntza honen arrazoietakoa bat azken aldi bertaratutako etorkinen ugartzean datza. Nafarroan 1998an ugartu zen etorkinen etorrera. Orokorri, auzokideak ugartu direnez, haurren zenbatekoa ere handitu egin da. Honela, 2006an dagoen haurkopurua aurreko urteetan baino handiagoa da. Joera honi kontrajarrita, gauza jakina da gure inguruko gizarteetan 15 urte arteko pertsonen portzentaje erlatiboak behera egin duela.

Aldi honetan ere, 65 urtetik gorako jendearen biztanleriak behera egin du irizpide absolutuan zein erlatiboan. 1996-2001 aldian 15 urtetik beherako 100 pertsonako 242 adineko genituen, 2001-2006 aldian oster, 100 adin txikikotik 169 adineko topatzen ditugu. Honek auzoa gaztetzen ari dela erakusten digu. Aitzitik, hiriko beste auzoekin alderatuz gero, gainerako auzoek baino adineko populazio gehiago du Alde Zaharrak. Honen arrazoia honako hauxe dugu: aurreko aldietan umea edukitzeke zeuden biztanle askok auzotik kanpora jo zuten bizitzera eta, ondorioz, adin txikikoak gutxitu ziren. Gainera, aldi honetan ere, orokorrean, ugalkortasun-tasak beherantz jo zuen eta adinekoen bizi-itxaropenak berriz gora.

Edozein kasutan, diagnosiko partaide askoren ustez, auzoko etxebizitzaren egoera txarrak, eta bestalde, haurrentzako zein hezkuntzako ekipamenduen gabeziak, lehen umea izan berri duten bikoteak kanpoan bizitzera bultzatu ditu. Joera hau, aurreko aldiekin erkatuta bederen (1981-1996koak), azken aldi gelditu egin dela ematen du. Dena den, ikusteke dago datozen urteetako joera demografikoa, batez ere bizibaldintzen hobekuntzaren eta populazioa bertan mantentzearen artean lotura zuzena dagoela kontuan hartzen badugu.

² Iturriak: *Población del Casco Viejo en diciembre de 2004* 2004 Iruñeko Udala; *Censo de 2001* Nafarroako Estatistika Institutua; *Padrón 1996* Nafarroako Estatistika Institutua.

³ *PEPRI*. Memoria, testu birmoldatuta. 2001eko ekaina.

3.2.2. Formazio akademiko maila

Alde zaharreko 16 urtetik gorako biztanleriaren erdia baino gehiagok, %56,81ek, bigarren graduiko ikasketak ditu (unibertsitate aurretik burututako ikasketak); lehen graduakoak dituztenak (5 urteko ikasketak, nahiz eta burutu gabekoak izan) %14,87 ditugu, eta hirugarren graduakoak burutu dituztenak %18,66ra iristen zaizkigu. Alfabetatugabeko biztanleria %0,26a dugu eta hauen %76,67 45 urtetik gorakoa da.

2. taula: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren ikasketa maila orokorra

	Alde Zaharra 2006
Alfabetatugabeak	% 0,26
Ikasketarik gabekoak	% 9,13
Lehen hezkuntza burutu dutenak	% 14,87
Bigarren hezkuntza burutu dutenak	% 56,81
Hirugarren hezkuntza burutu dutenak	% 18,66
ED	% 0,27

Iturria: Iruñeko Udala (2006)

Azpimarratzekoa da Alde Zaharrean zentsatutako populazioaren laurden batek (%26,26ek) ez duela inolako ikasketarik burutu. Populazio horretan gehiengoa 65 urtetik gorakoa dugu (%46,2). Halere, nabarmentzekoa da ikasketarik burutu ez dutenen artean %16,23k 20-35 urte bitartean dituela. Dena den, argi azaleratzen dena zera da, hezkuntza-sarearen hobekuntza dela eta, adin-txikiko eta gazteek adin er-tain-altukoek baino ikasketa gehiago burutu dutela.

3. taula: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren ikasketa maila zehatza

	2006	%
Ez daki irakurtzen edo idazten	30	0,26
Badaki irakurtzen eta idazten (5 urte baino gutxiago eskolan)	1.042	9,13
OHO, DBH edo Lehen Batxilergoa burutu ez dutenak	1.697	14,87
Lehen Batxilergoa, OHO edo DBH burutu dutenak	4.050	35,48
Bigarren Batxilergoa	1.326	11,62
LH I, LH (erdi gradua)	587	5,14
LH II	521	4,56
Diplomatura, Ingeniaritza ala Arkitektura, teknikoa	882	7,73
Arkitektura, Ingeniaritza, Lizentziatura edo baliokidea	1.182	10,36
Doktoretza	66	0,58
ED	31	0,27
Orotara	11.414	100

Iturria: Iruñeko Udala (2006)

1981etik 2006ra alfabetatugabeko populazioak behera egin du, eta era berean, inolako formazio mailarik egin ez dutenen portzentajeak behera egin du (%52,07tik %26ra). Ondorioz, lehen zein bigarren hezkuntza bukatu dutenen portzentajea goititu da. Horiek 1981ean %29 izatetik %75,97 izatera iragan dira 2001ean. Gehienbat, Goi hezkuntzako ikasketak burutu dituztenak izan dira auzoan gora egin dutenak, %6,5etik %18,66ra alegia.

Eskola graduatua eskuratu dutenak %12,81etik %35,48ra iragan dira eta Batxilergoa bukatu dutenak kasik 6 puntu egin dute gora (%5,91tik %11,62ra). Lanbide Hezkuntzako tituluren bat erdietsi dutenen kopurua hirukoiztu eginda (%3,46tik %9,6ra). Atentzioa deitzen du ere, unibertsitate ikasketak egin dituztenen portzentajeak (%6,5etik %28ra).

3.2.3. Enplegua eta lanbidea

Eskura ditugun datuak 2003-2004koak dira. Urte horietan langabezia-tasak %6,14tik %4,8ra egin zuen behera. 2004ko langabetuetatik %52,1 emakumeak ziren. Dena den, kontuan hartu behar da, orokorrean, emakumeen lan tasa gizonetzkoena baino baxuagoa dela. Honek esan nahi duena da, enplegua lortu nahi duten emakume zein gizonetzkoen kopurua parekoa izanik, enplegua duten emakumeen kopurua gizonetzkoena baino baxuagoa dela. 2004an, Nafarroa osoan, gizonetzkoen %69,65ek eta emakumezkoen %45,46k egiten zuten lan.

Jarraian, auzokideek dituzten lanbide motak ikusiko ditugu eta hori, lan egiten duten lekua kontuan hartu gabe. Auzokideen sektore eta lanbideak ikusiko ditugu.

Beheko taulan ikus daitekeenez, auzokide gehienek zerbitzuetan lan egiten dute. Bigarren talde esanguratsua industria langileena da. Bion artean populazio osoaren %89,6 osatzen dute.

4. taula: Iruñeko Alde Zaharreko biztanleriaren lan sektoreak

2001	Orotara (%tan)	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Nekazaritza	1,58	1,79	1,32
Energia	0,51	0,72	0,26
Industria	19,04	26,15	10,23
Eraikuntza	8,31	13,57	1,79
Zerbitzuak	70,56	57,77	86,40
Orotara	100	100	100

Iturria: Udal Errolda (2001)

Jarduera ekonomikoan gizonetzkoen kopurua handiagoa da emakumezkoena baino (100 emakumeko 124 gizon). Dena den, sektorearen arabera desberdintasun esan-

guratsuak daude. Zerbitzuenean esaterako, emakume gehiago dago (100 emakume-ko 83 gizon). Gainerako sektoreen kasuan, gizonezkoak ageri zaizkigu gailen, Industrian eta Eraikuntzan batik bat.

Populazioaren %50ek hiru lanbidetan lan egiten du: zerbitzu publiko edo administrazio-ko teknikari eta beste mota bateko langileak, merkataritzan dihardutenak, ostalaritzakoak, laguntza zerbitzu edota zerbitzu pertsonaletakoak, eta industria zein eraikuntzako langileak.

1981etik gehien igo den lanbide multzoa hezkuntza teknikari zein profesionalena, gizarte eta osasun zerbitzuena eta unibertsitate formaziodun administrazio kideena da. Egun %20,35 da multzo horren portzentajea. 1981ean aldiz, %11,75 genuen. Multzo horretan emakume gehiago ageri zaigu (85 gizon 100 emakume-ko).

Merkataritza, ostalaritza, eta zerbitzu pertsonaletako langileak ditugu bigarren talderik kopurutsuena (%16,33). Horietan gehiago dira emakumeak (56 gizon 100 emakume-ko). Halere, kopuru horrek behera egin du 1981etik (%17,76). Industria eta eraikuntzako langileena da gehien jaitsi den sektorea (%13), 1981ean %32,12 zena.

3.3. Auzoa eta Gune historikoa, Alde Zaharraren nortasun zeinuak

Atal honetan Alde Zaharreko errealitateari eta bizia ematen dion komunitateari buruz azaleko azterketa kualitatiboa egingo dugu. Beste era batera esanda, auzoan elkarrekin harremanetan dauden eragile anitzek bere auzoa nola ikusten duten deskribatzen saiatuko gara. Horrekin lotuta, komunitatea gehien asebetetzen duten elementuak, eta, kontrako kasuan, kezka gehien sortzen dizkietenak ikusiko ditugu. Segidan ikusiko dugun bezala, geroago sakonago aztertuko ditugun hainbat gai azalduko zaizkigu. Alabaina, gai hauek hasieran ikusteak, maiz elkarrekiko loturarik ez balute bezala lantzen diren gai hauen lotura estua antzematen lagunduko digu, irakurketa aurrera joan ahala, ikuspegi hau sendotuko delarik. Berresten dugu, sarri asko komunitateko aferen tratamendu sektorialagatik (hezkuntza, ekipamenduak, etxebizitza, kultura, gazteria...), gai hauen artean dauden lokarriak ikustea eragozten zaigu. Hartara, ikuspegi integrala lantzeari egoki deritzogu lokarri hauek antzemate aldera, azken finean, eguneroko bizitzan parte hartzen duten faktore anitzen artean sortzen den etengabeko hari mehearekin bat datorrelako.

Zentzu horretan, Alde Zaharrean bizi diren eragileek nortasun zeinu anitzekin lotzen dute gune hau. Bestalde, oso fenomeno ohikoa dugu hauxe, hiri askotako alde zaharrek duten garrantzia historiko zein funtzio aniztasunagatik. Nortasun zeinu eta lotura askotariko hauek bi aldetako nortasun honetan laburbil daitezke: alde batera, hiriko beste edozein auzoren modura, hainbat lagunen bizileku eta lantoki dugu auzoa; beste alde batera, gune historiko izanagatik, iruñear ororen ezinbesteko errefe-

rentzia dugu (aisialdia, erosketak, kultura, administrazioarekiko lotura...) eta, era berean, hiria bisitatzera datozenena (turismoa, jaiak, ondare historikoa...).

Ikusiko dugunaren arabera, bikoiztasun horrek (auzo izateak eta gune historiko izateak) oreka arazo bat mahai-gaineratzen digu. Hain zuzen ere, alde zaharrak turismo eta merkatal gune soil bihurtzeak, bertako biztanleentzako beharrezko azpiegitura eta zerbitzuak eskaintzea bigarren maila batean baztertzea ekar baitezake. Hortaz, aipatu bi nortasun zeinuen erantzungo dieten ekimenak bultzatu beharra dago, hau da, bizileku eta lantoki duten lagunen beharrei erantzutea, batetik, eta hiriaren gune sinbolikoa indartzeko ekimenak bultzatzea, bestetik.

Alde Zaharrari atxikitako bizipen eta erreferentzia desberdinak aztertzeko, ikus ditzagun esperientzia horiek protagonisten ahotik. Auzo honetako elkarbizitzan zer-bait nabarmentzekotan, bertan aurki daitekeen adiskidetasuna, berotasuna eta gertutasuna da:

Niri Alde Zabarrean gebien gustatzen zaidana bertakoen hurbiltasuna da. Jendeak bertakoa bazina bezala tratatzen zaitu, bertan betidanik bizi izan bazina bezala. Dendetan, jendeak obiko bezero zarelako ezagutzen zaitu, eta egunero-egunero adeitsu eta maitekiro agurtzen zaitu. (ET8)

*Beste edozein auzorekin alderatuz gero ikaragarritzko bizia dauka, eta, horretaz gain, ez dakit... nik bizi guztia hemen eman dudala ba... jendeak ezagutzen zaitue-
nez, herri txiki bat bezala da, hiri handi baten barruko herri txiki bat. Eskertzekoa da ogiaren bila atera zarenean aupa! aupa!, gero arte! gero arte! zer moduz? Zer moduz zaude? entzutea. Edo "bermuta" bartzera atera eta egunero joaten zaren tabernan jende ezaguna topatzea, ni horrek betetzen nau (ET5)*

Berotasun horrek, elkarbizitza harremanen hurbiltasuna horrek, auzoarekiko identifikazio sendoagoa sortzen du hiriko harreman hotz eta anonimoen aldean.

Maila praktikokan, Alde Zabarrean nire erosketak egitea, nire arrandegia, nire barategia, nire Santo Domingoko azoka gustatzen zaizkit, azken finean, giro hori. (ET2)

Ni zoriontsu naiz oso Alde Zabarrean, bigarren bedagunetik bona etortzea aldaketa izugarria izan da niretzat, askoz ere lotura estuagoa nabaritzen dut auzoarekiko eta jendearekiko. Bigarren bedagunean baino auzo giro handiagoa da hemen. (ET1)

Auzoarekiko identifikazio sendo horrek pertenez nahiz komunitate sentimendu indartsua sortzen du era berean, eta sentimendu hori, herriko edo nekazal giroko sentimenduaren parekotzat jotzen da. Dena den, auzoa bizitza sozial eta jatorri anitzeko pertsonen topagune izaki, hiritartasun sententzia ere sortzen da:

...giroa, jendea eta hiriko sententzia ere, badatorren eta badoan jendea, ezta? (ET1)

... giroa sekulakoa da, era guztietako jendea dago, bertakoak, kanpokoak... (ET4)

...bizi guztia hemen eman dudanez gero, txikia nintzenetik ezagutzen nauten emakumeekin topatzen naiz, erosketak...dena, ezta? Herria iruditzen zait, nik hemen lan egiten dut, bertan bizi naiz, eta bertan egiten dut festa; oso gustura nago. Halere, arazoak ere badaude, hobetzeko kontu dezente daude. (ET1)

Harreman pertsonalen gertutasunak elkartasunerako, elkar laguntzeko eta afektuzko lotura estuagoak emateko baldintzak sortzen ditu. Babes edo laguntza behar gehiago dutenek eskertzen dituzte bereziki balio horiek:

Adinekoentzat nik uste dut gauza gozoa dela Alde Zabarrean bizitzea, jende asko ezagutzen dutelako. Esaterako, pareko dendako emakumeak kalean doazen bain-bat amona kontrolatzen ditu eta amona hauek jaisten direnean agurtzen dute. Horrela, dendariak badaki amonak ondo daudela eta, dena delakoagatik, pasatzen ez badira, dendaria kezkatu egiten da ez dakit nor etorri ez delako, eta aldi berean, zer gertatu den ikustera pasa behar izaten da. (ET1)

Niri Alde Zabarrak nire herrialdeko giroa oroitarazten dit, jende andana ibili obida, uneoro jairen bat izaten da, borregatik, auzo hau izugarri gustatzen zait. Atzeritarrek ere badaudenez, babestuta sentitzen zara. (ET4)

Honela, kontraste eta paradoxak ere gertatzen dira, adibidez, adinekoentzako ekipamendu falta (igogailuak, berogailuak...) edo, auzoan zehar ibiltzeko zailtasunak (espalo estuak, obrak...). Arazo horiek guztiek zaildu egiten dute adinekoen bizi-modua. Aitzitik, gizatasun mailan, giro adeitsua topatzen dute, eta baita behar duten laguntza eta babesa ere.

Aurreko guztiaren haritik tira eginez, elkarrekiko adiskidantzak eta elkartasunak auzo-erakundearen identifikazioa indartzen duela ikusi dugu. Era berean, kanpotik datozenen arreta erakartzen duela. Eta, bestalde, bizikideen artean ehundutako sare adeitsu horrek era guztietako gizarte dinamikei ateak irekitzen dizkie (nahiz eta azkenaldian dinamika horiek beherantz egin dutela nabaritzen den). Honek guztiak, afektuen ikuspegitik, bizi-kalitatea ematen dio Alde Zaharrean bizitzeari:

Ni ez naiz Alde Zabarrean bizi, baina, bertan lan egiten dut eta ordu ugari iragaten ditut bertan. Alde Zabarrarekin maiteminduta nago. Nire bankek nabigabean eramaten naute bertara. (ET1)

Ez dakit zergatik baina Alde Zabarrak nolabaiteko erakarpen indarra dauka bertan bizi ala bisitatzeko. (ET4)

Edonola ere, komunitate bizi-modu hau idealizatzetik urrun, pertenezia, elkartasun eta harrotasun sentimenduak sortzen dituzten loturak galbidean daudela dioten pertsonak ere ez dira gutxi. Hori eragozteko Alde Zaharrean nortasuna sustatzea eta auzokideen beharrei erantzutea (etxebizitzaren baldintzak, hezkuntzarako ekipamenduak, ume zein gateentzako ekipamenduei begira...) planteatzen dute. Horretaz gain, auzoko desberdintasunek (sozialak, nortasunari edo sorterrari dagozkienak) sor ditzaketan mesfidantzari eta bazterketari aurre egiteko, auzoko talde zein norbanako guztientzako topaguneak sortzea proposatzen dute:

...kanpotik auzoa iraganbide moduan ikusten da, baina, egunerokotasunean, bertatik bertara auzoan bizi garenek auzo bat garela aldarrikitzeke eta auzoaren arazoerik buruzko laguntza eskatzeko eskubidea dugu. Nik uste dut horretan gabezia ugari ditugula. (ET8)

Hemen bizi ez naizenez ez dut etxebizitza kalitatearen, argiaren edota bezkuntzarako ekipamenduen faltarik. Hemen bizi ez banaiz ere, onartzen dut, auzo bonetan izugarrizko gabeziak daude. (ET1)

Ekarpen horiek guztiek auzoaren nortasun zeinuen berri ematen digute eta, lehen hausnarketa orokorra egitera garamatzate: litekeena da auzori buruzko bi ikuspegiaren artean gorabeherak egotea, nahiz eta, bi ikuspegiok osagarriak izan daitezkeen; afera, bi ikuspegiok era orekatu eta simetrikoan lantzea litzateke.

Auzokide askok esaten dute bertan burutu diren esku-hartzeek gune historikoa hornitzera eta bisitarien (paseatzera datozenak, turistak, kontsumitzaileak...) zerbitzuak ugaritzera jo dutela soilik. Horrekin, bertan bizi diren 12.600 laguneko beharrak ahanzi omen dira lehenik, eta, bestetik, iruindarren erreferentzia gune izatetik erortzen diren beste hainbat behar ere.

Zentzu horretan, eremu arkitektoniko eta bisitarien eskaparate hutsa bailitzan tratzea egotzen diote Iruñeko Udalari, noizean behingo bisitariari eguneroko biztanleei baino garrantzia handiago ematea, alegia:

Bada denbora udaletxeari auzokideek "enbarazu egiten" diotela pentsatzen dudana.

Dena desegin nabiko balute bezala da, gero, dena euren irudira egin abal izateko. (ET8)

...dena oinezkoen bide bihurtzen dutenean, auzoak ferriako tximinoen antzera ikusgai ipintzen gaituztenean... geure behar propioak ditugu... etxebizitza, polikiroldegia, garraioa, sarbidea... autoa dugu eta autoz joan nahi dugu etxeraino gauzak uzteko... (ET1)

Arestian aditzera eman dugun bezala, aldi berean auzo eta gune historiko izateak ez du zertan kontraesankorra izan, are gehiago, auzokideen (umeen, gazteen, adinekoen, etorkinen...) bizi kalitatea hobetzea ezinbesteko baldintza da gainerako auzoekin aldera daitekeen gune erakargarria eraikitzeo, edota bertako biztanleen lanean oinarritzen den merkatal zein turismo eskaintza eraikitzeo. Azken batean, bertan bizi direnek auzotik beste nonbait bizitzera jo behar izan ez dezaten. Horri helduz, auzoko eragile ekonomikoak jabetzen dira euren jardueraren zutabe auzokideak direnaz:

...gu konturatzen gara ingurunea eta auzoko bizi-baldintzak ikuspegi integraletik hobetu behar direla; ezin dugu baldintza kaxkarreko etxebizitza pila hau onartu, etxebizitzak hobetzeko ekimenak egin behar dira, gauza bera kultur edo bezkuntza-zerbitzuez ari garela... (ET3)

Zentzu berean, PEPRI idatzi zuten arkitektoek ondoko hauxe dioskute: *ekipamendu lokalen eskaintza hiri, eskualde edo herrialde ekipamenduenarekin uztartu behar bada ere, derrigorrezkoa da lehenik bertako Biztanleriaren behar premiazkoak asetzea, hau da, espazio eta eraikin potentzialak auzoaren onurarako erabiltzea.*⁴

⁴ "PEPRI". Memoria, testu birmoldatuta. 2001eko ekaina.

2005eko maiatzean Iruñeko Udalak egin zuen erabileren araudiari buruzko *PEPRI*a aldatzeko proposamenean interes kontraerriak uztartzea aipatzen zen. Interes horiek Alde Zaharrean ezaugarri diren hiru aspektu bilduko lituzkete: bizileku eremua (bizilekua, etxebizitza eta ekipamendua), hiriko erdigune funtzioa (aisialdia, merkataritza eta turismoa), eta gune sinboliko funtzioa (historia nahiz kultura ondarea). Komunitate Diagnosi prozesu honetan, ordea biztanleriarekiko (haurrak, gazteak, etorkinak, gurasoak edo adinekoak) nabarmendu da utzikieririk handiena. Aurreko orrialdetan barrena ikusten joan garen bezala, aipatu sektoreek dituzte eremuen, zerbitzuen edota azpiegituren maila behar eta hutsunerik handienak. Halere, komunitate Diagnosi honetan hiru funtzio horiek ez direla orekaz garatzen begiztatu ahal izan dugu. Honela, *bazkuntza ekonomiko* aren ize-nean (*“PEPRI”*aren aldaketa, 2005) auzoa turismo eta merkatal gune izatera murrizten duen ikuspegi bat bada. Ikuspegi horren erruz, bazterrean uzten da *PEPRI*ak berak eraikinen erabilerari buruz agintzen duen lehen helburua: *dotazio, azpiegitura, eta oinarritzko zerbitzuen eskasia konpontzea bertako bizilagunen interesei erreparatuz* (*“PEPRI”*aren aldaketa, 2005). *PEPRI*ak arestikoari honakoa gehitzen dio:

Planaren helburu guztiak orekaz bete nahi dira. Helburuen arteko gatazka edo baliabide faltarik balego, helburu sozialak lehenetsiko genituzke helburu fisikoen aurrean eta auzoko interesak hiriko interesen aurrean.

Honengatik, interes berezikoa dugu auzoko ondare eta izaera sinbolikoaren babesa auzoarentzako ekipamenduen politikarekin lotzea. Alde horretatik, *PEPRI*aren beste puntu batek lotura horixe berresten du. Ekimen orekatu horretatik bi ikuspegi uztartuko genituzke: auzoaren bizileku zein auzokideen elkarbizitza izaera eta iruñear ororentzako erdigune historiko eta erreferentzia-gune izaera .

Hortaz, erdigune eta erreferentzia-gune izaera sustatzen denean ezin zaio, inolaz ere, auzokideen bizi maila hobetzeari uko egin. Ikuspegi integralago horrek (ez bakarrik ekonomiko-komertziala baizik eta soziala eta komunitate mailakoa ere) elkartasun eta identifikazio loturak sendotzeko balioko luke. Testuan zehar ikusi dugunez, lotura horiek bizi-bizirik baitiraute eta balio eta ahalmen handia duen ondare soziala da Iruñeko Alde Zaharrean.

Alde horretatik, auzokideek uste dute Alde Zaharrak azken urteotan hobera egin duela ekimen urbanistiko eta auzogintza elkartearen biziberritze lanari esker (nahiz eta, geroago ikusiko dugunez, auzokideen uste horrek bere ñabardurak dituen, auzogintza elkartearen eta udal gobernuaren arteko liskarra dela medio). Auzoa ez da galtzen ari, aitzitik, alor batzuetan txukuntzen eta bertako bizitza hobetzen ari da. Joera orokor horrek halere, salbuespen ditu Jarauta, Descalzos eta Eslava zonaldeak. Zonalde horiek gabezia nabarmenak dituzte hirigintzaren arloan zein komunitate ekimenaren arloan. Utzikeria horrek bazterketa gune bihurtu ditu eta zaildu egiten du auzokideen arteko elkarbizitza; zentzu horretan, premiazko esku-hartze integralak behar dira bertan.

Horrexegatik, gauzak hobetu direnaren sentsazioa ez da erabatekoa, eta ez du konformismorik ekarri; hainbat lagunen ustez, hirigintza arloko hobekuntza horiek itxurakeriak dira, kosmetika ekintza hutsak. Alegia, kanpoko itxurak haratago, bertako biztanleen bizi-baldintzei eta eraikinen barrualdeari erreparatuz gero, oraindik gauza asko egiteke dagoela uste dute. Esaterako, populazioaren sektore esanguratsuak —umeak, hirugarren adinekoak, emakumeak, etorkinak, gurasoak...— ez omen dira azpiegitura, zerbitzu eta espazioen kudeaketan aintzat hartzen. Bide luzea, beraz, ibiltzeke dagoena, auzoaren garapena, guztiontzako garapen orekatua izan dadin; eta, auzokide-sektore guzti-guztiak espazio, zerbitzu eta azpiegitura egoiak eduki ditzaten.

3.4. Gizarte-sareak eta eragileen arteko barremanak

Iruñeko Alde Zaharraren beste ikur garrantzitsu bat aipatzekotan, ezin ditugu ahaztu auzoko norbanakoetatik hari mendre baten bitartez ehuntzen joan diren auzogintzari oratutako elkarte desberdinak: elkarteak, kolektiboak eta gizarte-mugimenduak. Horri hiriko peñek Alde Zaharrean dutela egoitza gaineratu beharko genioke, eta oro har, hiriko hainbat elkarten auzo honi atxikitzen diotela gizarte bizitza egiteko eremu izaera.

...beti izan da hau jarduera sindikal, sozial eta politikoaren gune nagusia, beti izan da Alde Zaharrean mugimendu dezente, ezta? (ET2)

...ez dut uste kontua etxabe merkeak daudela bakarrik denik, nire iritziz, borroka-ekin eta militantziarekin balako identifikazio soziala edo soziologikoa dago auzoan. (ET1)

...oso ondo lan egiten duten gazteak ikusi ditut egundoko kezkekin eta ez da egiten duten abalegina benetan baloratzen, kezka horiei esker gauza batzuk gertatzen dira...

...ez gara benetan gauzez jabetzen...egunkarian erakusketa bat edo kontzertu bat dagoela irakurtzen duzu eta ez zara obartzen benetan atzean duenaz, hemengo plazan kontzertu baterako egin behar den abalegin eskergaz... (ET5)

Jarraian duzuen taulak auzoa sozialki egituratzeaz gain, era guztietako ekimenak abiarazten dituzten kolektibo eta elkarten berri ematen digu:

5. taula: Iruñeko Alde Zaharrean lana edo egoitza duten elkarte eta bestelako entitateak

<p>Gizarte Elkarte eta Kolektiboak</p>	<p>ADSIS “Casco Viejo”, Aldezar, “Amigos-as de la RASD”, ANAPEH, Anat-Lane, Askagintza, Askapena, Askatasuna, “Pico Orhi” jubilatuen eta pentsionisten Elkarteak, Gazteluen Lagunak Elkarteak, “San Cernin burgoa” Taberna Elkarteak, “Kalean” Taberna Elkarteak, “Corte de San Fermin” Elkarteak, Merkatarien Elkarteak, “Avante” Jubilatuen Elkarteak, “Echemendi” Jubilatuen Elkarteak, Ebro Jubilatuen Elkarteak, “Amara” Ijitoen Elkarteak, “La Majari” Ijitoen Elkarteak, Alde Zaharra Auzo Elkarteak, “Roncesvalles” Alargunen Elkarteak, Bilgune Feminista, “Cáritas”, “San Cernin” Pastoralta Zentrua, “Ciudadanos Ciclistas de la Comarca de Pamplona”, Itoitz Koordinakundea, Izaga Kolektiboa, Estafeta Jubilatuen “Club”-a, Ekologistak Martxan, EHGAM, Emakume Internazionalistak, Gazte Asanblada, Gaztelan, Hautsi, “Hermandad Navarra de Minusválidos”, HIESaren Aurkako Batzordea, Ixim, Izar Beltza, KEM-MOC, Komite Internazionalistak, Gerrarik ez, Lapiku, Lumatza, Salhaketa, SOS Arrazakeria, “Se Ven Sioux”, “T.A.D.A.” Haur Diabetikoen Gurasoen Elkarteak, Gurasoak, Lantxotegi, Gorosti Biologia Elkarteak, “Llota-Lledo” Nafarroako Transexualen Elkarteak, Bakearen Aldeko Koordinakundea, Denontzat Paper eta Eskubideen Herriar Plataforma, Kattalingorri Kolektiboa, “Santa Maria de la Real” Etxekoandreen Elkarteak, “Irache” Kontsumitzaileen Elkarteak, Portalapea, Alde Zaharreko Komunitate Plana, “Asoc. Adjudicatarios Plaza del Castillo”, Santo Domingoko Auzokideak, “San Lorenzo”ko Auzokideak, Zabaldi, Zurriburbu</p>
<p>Kultura Elkarte eta Kolektiboak</p>	<p>Aitzina Kultur Elkarteak, “Alter Nativas”, “Amigos Camino Santiago”, Arrano Elkarteak, Kaldereroen Elkarteak, Gorosti, “Asoc. Gerónimo de Ustariz”, Eslava Kasinoa, Centro Recreativo Roncales, Alde Zaharreko Erraldoi eta Kiliki Konpartsa, Euskal Herriar Euskaraz, Eguzki Irratia, Aldapa aldizkaria, Eguzki Bideoak, “Fundacion Bartolome de Carranza”, IPES Elkarteak, Karrikiri Elkarteak, Nafarroako Bertsolari Elkarteak, “Nuevo Casino Orreaga”, “Casa De Castilla y León”, “Centro Riojano”, Egulbati Kultur Elkarteak, Sorginak, Zaldiko Maldiko, Trikimaiko, “Foro de Mujeres Urbanistas”, Duguna Dantza Elkarteak, Euskal Dantzarien Biltzarra, Iruña taldea, Muthiko Dantza Taldea, Ortazar Folklore Taldea, Yarleku, “Agrupacion Coral de Camara”, “Banda La Pamplonesa”, “Orfeón Pamplonés”, “Rondalla Navarrería”, Ziripot Txaranga, Jarauta 69 Txaranga, “Auroros”</p>
<p>Peña eta Elkarte Gastronomikoak</p>	<p>“Txupinazo Peña”, “Aldapa Peña”, “Alegría de Iruña Peña”, “El Bullicio Pamplonés Peña”, “Irrintzi Peña”, “La Jarana Peña”, “La Única Peña”, “Los de Bronce Peña”, “Muthiko Alaiak Peña”, Sukaldari eta Pastelero Elkarteak, Biltoki, Gazteluleku, Gure Ihestea, Gure Leku, “La Saeta”, “Los Irunsheimes”, Napardi, “San Fermín”, “San Cerningo Poziko” Elkarteak, Zahategi, Iparla</p>

Iturria: Egileek Sortua (2005)

Alde Zaharrean era guztietako kultura ekitaldiak, jaialdiak edota ekitaldi soziopolitikoak antolatu ohi dira. Osagai horiei arestian aipatu auzokideen auzoarekiko identifikazio sendoa gehitzen badiegu, auzoan ikaragarriko ekimen kolektiboa dagoela pentsa daiteke. Honek guztiak auzoaren garapenerako aktibo itzela suposatzen du:

...giro bau, auzo batekoa azken batean, jende aunitzek auzoa maitatzeko egiten duen abalegin ikaragarria iruditzen zait, auzoa aldarrikatzeke, egiten diren deialdiak ikusi besterik ez daude...beno, auzokideok kexaren bat egiten dugunean nabaritu egiten da, ikusi egiten da, irakurri egiten da eta entzun egiten da. (ET2)

Auzokideok dugun gauza onetako bat da elkartzen garenean benetan elkartzen gara, hori bai, denbora pasa abala, indarra galtzen dugu, hori dugu alde negatiboa. (ET5)

Aipatu ditugun auzoaren alde positiboak esker zaharberri ahal izan dira auzoko txoko kaskartu batzuk. Bestalde, kultur eta aisialdi ekitaldi ugari izanagatik, gizarte bazterketari aurre egin ahal izan zaio elkartasun eremuak zabalduz.

...garai batean Navarreria aski kaskartuta egon zen. Dena den, aisialdi mailan horri buelta ematen ari zaio.

-Niri Navarrieriako auzokideen lana eredugarria iruditzen zait.

-Bai, bai, bistan da, abalegin handia egin dute.

-Ze bor administrazioak ez du deus ere egin eta...ikusi orain nortzuk dabiltzan gauzak antolatzen: iragan larunbatean azoka zela, igandean ez dakit zein taldek ez dakit zer...azkenean hori, auzokideen lana. (ET1)

...drogazale asko eta giro txarra izan zen garai hartan...oraindik bada mesfidati gelditu den jende asko: Alde Zabarrera etortzen dira, baina, ez dute Navarreria ukitu ere egiten, eurentzako Alde Zabarra S.Nicolas edo Estafetara mugatzen da, horko poteoa, erosketak... Auzo-elkarteak, beste auzo-kolektibo batzuekin batera, ekimen ugari egin zituen eta, orain, gauza berpizten ari da...asko lan egin dute eta nabaritzen da Nabarrieriak hartu duen bizitasunagatik. (ET5)

...nire ustez, gaur egun are meritu handiagoa dauka, dena aurka dagoela. (ET2)

Herri ekimenek bazterketa soziala eragotzi eta elkarbizitza hobe dezakete. Gaur egun baina, kontrol legal eta poliziala sustatzen da ia erabat arazo horiei aurre egiteko. Auzo-ekimena bazterketaren kontra eta integrazio soziala lortzeko lagungarri izateaz gain, auzo bizitasunez eta mugimenduz blaitzeko baliagarri da. Zentzu horretan, *San Fermin Txikitoa*, Inauteriak edo Alde Zaharraren Eguna auzoko kolektiboek egiten duten lan koordinatuaren erakusgarri dira. Lan hori oso positiboki baloratzen dute auzokideek zein auzoko teknikariek:

Elkarteek auzoarentzat garrantzitsuak diren aspektuetan lan egin dute, adibidez, bere irudian, segurtasun ezean, auzoak hartu zuen itsusi, zikin eta "gbettoa" irudian. Auzokideen proposamen eta alternatibei esker, lehen irudi hori aldatu da, orain, paseatzeko, ez dakit zertara joateko edo erosketak egiteko auzo atsegina biburtu da. (PE1)



Udalak ez ditu gauzak antolatzen dituzten elkarteak laguntzen. Auzoarentzat gauza aberasgarriak egiten dituzten kolektibo pila daude, eta hauei entzungor eta laguntzeari muzin besterik ez die egiten udalak. Oso garrantzitsua da elkarteak babestea auzoari bizia emateko. (ET9)

Badirudi auzoko taldeen lana eta ahalmena ez dela ongi baliatzen, izan ere, auzokideen ustez, beraiek auzoko aferen inguruan dituzten iritziek ez dute islarik eremu instituzionaleko parte hartze mekanismoetan:

-Nire ustez, Alde Zabarreko auzotarrok sikiera, etengabe eskatu dugu hiritarrak garelara eta hiritar gisa dagozkigun gauzetan parte hartu nahi dugula, galde diezaguten nahi dugula... parte hartu nahi dugula erakutsi dugu, parte hartzeagatik borrokatu dugu eta uko egin digute. Nik uste dut hori oso larria dela, oso larria dela iruditzen zait, ezta?

-Batez ere formak, ez digutela galdeketa egiten, beraiei ondo iruditzen zaiena egiten dute jendearen iritzia kontuan hartu gabe. (ET1)

Udalak ez du herriaren iritzia aditzen...guk aukeratzen ditugula suposatzen da, aukeratu bai, baina, gero ez gaituzte aditzen. (ET5)

Ez zait udalaren axolagabekeria gustatzen Alde Zabarreko hiritarren beharren aurrean, eta are gehiago, Udalaren inposaketek kezkatzen naute. (Kaleko Panela Alde Zaharreko egunean)

Ez zait gustatzen denontzat nahi dugun Alde Zaharra aukeratu ezin izatea. (Kaleko Panela Alde Zaharreko egunean)

Eta jakina denez, Euskal Jai Gaztetxea eraistea edota Gaztelu Plazako aparkalekua egitea lekuko, ikaragarritzko mesfidantza eragin dute Udal-gobernuaren eta auzoan diharduten elkarte gehien artean, baita hainbat eta hainbat auzokideren artean ere. Institutioek trabak ipintzen dizkiote auzoan dagoen herri ekimen gogotsuari, bizkarra ematen diote gizarte-sareetan dagoen indarrari. Zentzu horretan, auzoko eragileek nabarmendu dutenez, premiazkoa da eragileen koordinazio sendoa, behetik gorako lan-dinamikak eta elkarlan mekanismoak zabaldu ahal izateko:

...ez gaude egoera barean... pena da bizi kalitatea hobetzeko denon arteko kolaborazioa aurkitzeko gai ez izatea. Auzokideon, komertzioen etab.en artean, eta nola ez, udalarekin ere. (PE8)

Merkatarien aurkako aurreiritziak entzun obi ditut tarteka. Mezu horien bertsiorik sinpleenean, merkataria beste auzo batzuetan bizi garen bizkarroiak garelara esaten da...hori ez da egia, kontrako iritzia izan daitezke, baina, denok dugu denon onurarako zerbait aurkitzeko gogoia, denon diagnosiaren bidez lehenik, eta ekintza plan bateratu baten bidez gero. (PE3)

Zentzu horretan, egoera desblokeatzeko eta orain arteko dibortzioak gainditzeko erakundeetan beste borondate politiko bat behar dela azpimarratu egiten dute; eta, aldaketa hori lortzen bada, deskonfiantzak eta tentsioak samurtuz lan egitasmo zehatzen inguruan, posiblea izango da lan-dinamika bateratuak abiatzea. Kontrako iritzia eta ezadostasunak erabat desagertu ezin direla jakitun bagara ere, horrek ez du kolaborazio eremu jakinetarako aukera ixten. Hau da, egokiena litzateke errespe-

tuan oinarritutako lan markoa adostea auzoan eragiten duten eragile guztien artean, ekimen ezberdinak errespetatuak izan daitezten eta, posiblea denean, euren arteko osagarritasuna bilatu dadin. Horrela, errespetua eta koordinazioa hobetuz eta baliabideak gehituz, eragin sozial handiagoz arituko litzateke.

...oso auzo bizia da, bertan jendeak hitz egin, pentsatu eta aldarrikatu egiten du: hori guztia egituratu egin behar da eta dena ongi jarri, ideiak eta hobekuntzak erein daitezten. (ET2)

Urban eta Komunitate Plana bonen esperientzien ostean panorama ez da argitu, eta egia esan, Alde Zabarrak badauka beste erronka bat: behetik gorako mekanismoak abian jartzea, hau denontzako plana izan dadin, lorgarriak diren ekimenak pizteko. (PE8)

Zentzu horretan, *Urban* planak bildu duen kolaborazioa positiboki baloratu dute prozesuaren parte hartze fasean (2001-2003an) aritu diren eragileek. *Urban* planak Europar Batasuneko egiturazko fondoan diru laguntza jaso du, krisian diren auzo edo hiriak ekonomikoki zein sozialki berpizteko ematen den diru laguntza, alegia. Iruñean Alde Zaharra eta Errotxapea jarri dira berpizte ekonomiko-sozialerako helburu⁵.

Ekimen horrek abian jarritako jarduerak eta zerbitzuak bereziki garapen ekonomiko, enplegu, eta teknologia berriekin izan dute lotura. Lotura apalxeagoa izan dute komunikazio eta garraio publikoarekin (Alde Zaharra-Erotxapea autobus ibilbide berria, 14. ibilbidea) edo gizarte esku-hartzearekin (Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzua eta Elkarreentzako Baliabideen Zentroa). Mugak muga, ekimen horrek Alde Zaharreko hainbat gizarte eragile bildu diren jarraipen eta parte hartze egiturak izan ditu, besteak beste, Auzo Elkartea eta Merkatarien Elkartea; eta noizbehinka, Txirrindularien Elkartea, Elbarrien Koordinadora, Aldezar, *IPES*, *Cáritas* edota Gurutze Gorria bertan aritu dira. Eragile hauek balantze baikorra egin dute honako honetan: hiritarrak, gizarte erakundeak, administrazio teknikariak eta politikari batzuk elkarlanean, gai izan dira hiriari egitasmoak proposatzeko eta, parte hartze zabalak egitasmo horiek hobetu ditu.

Alde ezkorra zera da, esperientzia horrek ez duela nahi beste eragin izan, ez ditu elkarrekin eta udala elkarlana beste egitasmoetara zabaltzeko adina busti. Hirian egiten den edozerk denon elkarlana behar duenaz jabetzea, uste dut, oraino ez dugula barneratu, eta, irudipena daukat, segituan bakoitza geure txokoan posizionatzen garela. (PE8)

...Urbanaren balorazio ona egiten dugu, nabiz eta, orain nabiko indar galdu duen, besteak beste, baserako izpiritua galdu delako. (PE3)

Hasiera batean, posizioak kontrajarriak ziren arren, konfiantza giroa sortu eta hainbat ekimen zehatz adosteko gauza izan ziren; orain gauzatze-fasean dauden hitzarmenak: Kondestablearen Gizarte Etxea, Descalzos eta Erotxapea lotuko dituen igo-

⁵ 2001-2006 artean auzo horietarako aurrirakosten den inbertsioa 23,18 milioi eurokoa da (3.850 milioi pezetan). Udalak %50a finantzatzen du eta Europar Batzordeak, Garapen Erregionalerako Europar Fondoaren birtartez, beste %50a.

gailudun Ronda pasealekua, bizikletentzako aparkalekua, elkarrekin batera ingurunea zaintzearen aldeko kanpainak, merkataritza-jarduerak berritzea ala berriak sortzea, elkarreentzako gune bat sortzea...

...ireki diren lankidetzak oso esanguratsuak dira, bainbatetan harreman horiek hoztu edota hautsi egin badira ere, lankidetzak auzoari on egiten diola ulertu baita orain, Urban planaren metodologia, lurralde jakin batean aritzeko formula den aldetik, udalaren lan egiteko moduan txertatzea proposatu beharko litzateke, baina, hori borondate politikokoaren menpe dago. (PE8)

Diagnosian parte hartu duten hainbat eragileren arabera, filosofia eta lan eredu horrekin bat egiteko beharrezko den borondate politikoa eraikitzea da oraingo erronka behinenetako bat. Era horretan, Bruselak aholkatu parte hartze irizpideen arabera kudeatzen diren europar fondoez gain, bertako fondo eta politiken kudeaketan ere parte hartze eta negoziazio tresnak abian jartzea.

Hori guztia beharrezko da, jakitun izanda auzoan izan diren gatazkak, mobilizazio edo protestak ere funtzionamendu demokratikoaren parte direla. Gatazka horiek bi iturritatik elikatu dira, batetik, politikariek hiritarrekiko komunikazio, deliberazio esparru eta akordioak bilatzeari muzin egitetik; eta, bestetik, ideologia, gizarte eredu eta gizarte garapena ulertzeko ikuspegi guztiz desberdinak izatetik. Azken horien eraginez jakina, funtzionamendu demokratiko batean zilegiak diren desadostasun, hika-mika eta haustura aunitz gertatu ohi dira. Desadostasun horien lekukotasun argia ematen digu hurrengo pasarteak. Bertan auzoarentzako egitasmoen helburua ageri zaigu ezbaian: hiriak sal dezan, auzoa *marketing* produktu gisa manciatzen dutenak kritikatzeko dira, eta horren aurrean, auzokideen behar eta eros ahalmenari egokitutako azpiegitura eta zerbitzu-politika proposatzen da:

-Niri aspalditik iruditzen zait udalari auzokideok enbarazu egiten diogula.

-Badirudi dena desegin nahi dutela gero dena euren interes, gustu, antz eta irudira berreraikitzeke.

-Bai, auzokiderik gabeko merkatal gune baten antzeko zerbait.

-Euskal Jai gaztetxearen adibidea hor duzu, zentro termala egin nahi dute, nor joango da bara, auzokideak? Ez, ez da auzokideentzat egokitutako zerbait, ez da baien neurrira egina...ekonomikoki eskuragarriagoa den zerbait egin liteke, sinpleagoa, herritar xumeentzako, auzoan bizi direnentzako. (ET8)

Politika eta ideologia mailan, ezadostasunak ezadostasun, gatazka hauek ez dute derrigor etengabeko inkomunikazioa eta borroka eragin beharrik. Demokratikoki funtzionatzeko ezinbestekoa baita interes orokorra deritzoguna etengabe negoziatzea, izan ere, inork ez du interes orokor horren *a priorizko* ezagutzarik, eta interes orokorra etengabeko elkarrizketa arrazional irekian eraikitzen da, eragile eta herritar desberdinek afera baten aurrean dituzten iritzia jaso eta kontuan hartuz. Norabide horretan, beharrezkoak dira komunikazio esparru berri bat ahalbidetuko duten lan moldeak. Hau da, auzoan lan egiten duten eragile sozial eta instituzional guztiek maila berean eta modu ireki eta integratzailean agertzea.

Zentzu horretan, Diagnosian aritu diren hainbat eragilek, parte hartu ez duten auzoko beste hainbat eragileekin aliantzak zabaltzea proposatu izan dute. Aliantza sendo horiei esker, politika konbentzionalaren aurrean, hainbat egitasmo behetik gora eta era autonomoan aitzineratu ahal izango lirateke; eta bestalde, herritar parte-hartzeari eta eskaerei muzin egiten dieten politikarien borondatea aldaraztea⁶.

Jakina, Alde Zaharrean dagoen kapital soziala are indartsuagoa gerta liteke beste kolektibo edo erakundeekin harremanak sendotuz gero. Alde batera, auzoan egoitza dutenak, baina, auzoan jarduerarik antolatzen ez dutenak (jardun eremua hiria ala herrialdea dutelako). Lankidetzaz horri esker nabarmen indartuko lirateke auzoko gizarte ekimenak.

Beste alde batera, Iruñeko *peña* gehientsuenek Alde Zaharrean dute lokala eta kale bizitza bertan egiten dute. Halere, *peñaren* batean eta auzo eragileren batean aldi berean dabilzanen kasua salbu, *peñek* apenas izan duten auzoko gainerako ekimenekin harremanik. Hartara, auzogintzaren beste erronka nabarmentzekoa hauxe dugu: *peñen* isolamendua eragozte, *peña* hurbilenetatik hasita, kultura ekimen zehatzen inguruan, *peñak* auzo bizitzara urreratzea. Azkenik, segidan ikusiko dugun bezalaxe, aipatu izan den beste erronketako bat, etorkinen elkarrekin, eta oro har, gutxiengo komunitateekin egin beharreko elkarlana izan da. Elkarlan honen zentzua auzokide guztien integrazioa lortzea eta gutxiengo hauek (bertakoak zein kanpoakoak) auzoko kolektiboen sareak antolatzen dituen kultur, aldarrikapen eta aisialdi ekimenetan barneratzea litzateke.

3.5. Kultura-aniztasuna

Iruñeko Alde Zaharrean era askotako egoerak eta baldintza sozialak elkarbizitzen dira:

Niri auzoko aniztasuna gustatzen zait, lortu beharreko erronka iruditzen zait jende baina ezberdinak borren leku txikian elkarbizitzea; eskailerak jaitsi orduko amona entxufearen eske edo zaborrak jaisteko eskatzen, gero Descalzosen, ijitoen zonaldea daukazu, bestalde, gero eta gehiago hitz egiten da eskolan euskaldun eta etorkinen gaiaz. Horrek guztiak beste auzoek ez duten aberastasuna islatzen du. (ET1)

...beste gaietako bat presoena da. Gai hori batzuentzat eztabaidagarria da, baina, Alde Zabarrean badira presoak, baita oso urrun daudenak ere, eta denbora luzez egoera borretan dauden senideak ere. Azken horien kasuan, istripuak eta heriotzak ere izan dira. Alde Zabarrean dugun beste gaietako bat da. (ET6)

Alde Zabarra gustuko dut bertako jende, soinu, oihartzun, usain eta koloreekin topo egiteko. (Alde Zabarreko Eguneko Kale Panela)

⁶ Diagnosi prozesu honetan ere elkarte eta kolektiboen mapa grafikoa burutu dugu. Bertan eragileon artean zein instituzioekiko dauden hurbiltasun-urruntasun harremanak irudikatu ditugu. Mapa hori eskuragai dago eragile sozialentzat eztabaida eta hausnarketarako.

Aniztasun hori dela medio, esan nahi baita, erlijio, etnia, hizkuntza edota egoera sozialetan aniztasunaren kariz, diskurtso kontrajarriak entzun ohi dira. Aniztasuna aberastasuna dela diotenengandik hasita, diferentziari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak dituztenenganaino. Auzokide batzuk bizimodu eta ohitura arrotzekiko duten jarrera mesfidatiaz gain (kezkagarria oso ijito edo etorkinekiko jarreraren batez ere), orokorrean *ghetto* isolatuak sortzearen kezka ugaritu da. Komunikaziorik gabeko eta hartu-emanik gabeko giro urrunduak:

...aberastasuna hor dago, bere konplexutasunarekin eta atzean dakartzan arazoe-kin.

-Aberastasunarena, barkatu, baina ghettoak sor litezke. Ez dakit azkenean Descalzosen ez ote den jada ijitoen "ghetto" antzeko bat sortu.

-Bai, Jarauta eta Descalzos Eslavarekin gurutzatzen diren guneei ijitoenak dirudite, ez zait gaizki iruditzen, ez da gaizki iruditzen zaigula, baina, bori da "ghetto" itxura bartu duen puntua.⁷ (ET1)

Geroxeago gai hori berriro ere landuko dugu, momentuz, oso azpimarragarria da Alde Zaharrean era guztietako bizi-baldintza ekonomiko, giro sozial, estetika eta erreferentzia ideologikoak daudela. Desberdintasun hauek auzoko gune ezberdinetan dute isla: gune batzuek maila ekonomiko altutxoak dute, beste batzuek xumeagoak; era berean, kale batzuetan giro ideologiko-politikoren bat nabarmentzen da, beste batzuetan halakorik sumatzen ez den bitartean. Ikus dezagun horixe biztanle-entzuen ikuspuntutik:

-Alde Zabarrera datorren askorentzat Alde Zaharra San Nicolas, Estafeta, bertako "poteoa" eta erosketetara mugatzen da...taberna garestixeagoak dira pintxoaren sukaldaritza "mini" eta guzti. Tabernen dekorazioa bera desberdina da, horrek beste-lako bezeroak erakartzen ditu, auzokideez kanpo bertako zerbitzuak erabiltzen dituen jendea.

-Auzoko gune batzuetako berri-mugimendu motak ere "San Nicolas"ekoak bezalakoak ez den ostalaritza edo merkataritza sustatzen du. Lokal edo etxe guztietan ez, baina, ideologia politiko ezkerreko batek markatutako guneak badaude...leku horietan zintzilik dauden kartelengatik...giro jakin bat dago bertan, beste lekuetan dena neutroagoa da, ezta?

-San Cernin eta Nabarrerian ideologia baten presentzia nabarmenagoa da "San Nikolas"eko burgoan baino. San Nikolasen ez duzu ez bandera ezta banderolarik ikusiko... nik zer dakit... gaztetxean adibidez, ez duzu ikusten edo bakanen bat ikusten duzu... Jarautan, Kale Nagusian, Nabarrerian eta abarretan aldiz, ba bai." (ET5)

Guztiok, geure aniztasunari begirunez, elkartasunean eta bakean elkarbizitzea nabiko nuke (Alde Zaharreko eguneko Kale Panela).

⁷ Esanguratsua da *ghetto* terminoaren esanahiak izan duen bilakaera: lehen egiturazko ala kultura arrazoiengatik gune batean baztertua den taldea designatzeko erabiltzen zen, orain aldiz, gizartean integratu nahi ez duen talderen zentzua ematen zaio. Zentzu horretan, diagnosian zehar auzokide hainbat etorri zaigu ijitoak direla eta kezaka, gizarte laguntzetan omen duten diskriminazio positiboa eta ijitoen jokabide anti-soziala salatuz. Elkarbizitzaren halako hausturak eragozteko ezinbestekotzat dugu eragileen arteko bitartekaritza eta ekimen integralak jorratzea.

Aniztasun horren barruan, beste herrialdeetatik etorritako bizilagun berrien etorrera izan da aldaketa funtsezkoetako bat. 2001 urtean atzerritik etorritako bizilagunen portzentajea %9koa genuen. 2005ean ostera, %16,5koa. Iruñea osoan bizilagun berri horien portzentajea %9,9koa dela kontuan hartuta, Alde Zaharra da etorkin portzentajea handiena duen auzoa⁸.

Gizartean errealitate hau era askotan hauteman eta bizitzen da. Horrek sarri asko kontrajarriak diren jarrerak eragin ohi ditu. Diagnosian zehar gai hau izan da kontrako iritzi gehien sortu duena. Hurrengo pasartean ikusiko dugunez, bi integrazioa modu kontrajartzen dira: integrazioa alde bakarreko asimilazio gisa ulertzen dutenena bata, eta integrazioa bi aldeetako elkar ulertze moduan ulertzen dutenena bestea:

...etorkin berriak finkatzen ari dira, senegaldarrak, ekuatortarrak, etab. Hori Alde Zabarrarentzako pizgarria da, baize gazte berria, baiiek integratzen saiatu behar gara. Horretarako onena, eurek hau beraien lekua dela sentitzea da, euren lekua besteona den bezalatsu...bonela sentituko dute bertakoak direla.

-Ez nago ados.

-Ezta ni ere. Ni etorkin izan nauzu eta herri bartan egiteko esan zidatena egitea egokitu zait. Oraingo etorkinek orde, berdin Madrilen edo bemen, euren legea ekarri eta geuk onar dezagun nabi dute. (ET6)

Desadostasun horiek, oraindik ere nabarmenago bilakatzen dira Alde Zaharreko etorkinen kasuan. Ikus dezagun bertakotuek bertakoei buruz duten ikuspuntua:

-Gu baien kulturaz ikasten eta aberasten ari gara. Zeurean ixten bazara ez duzu ezertxo ere ikasten, zeurearekin bakarrik gelditzen zara. Beraz, hona datorren atzerritarrak zeuk baino gebiago barneratzen du. (ET4)

Integrazioaz mintzo garenean, nik uste dut integratzeko 50 eta 50eko proportzian izan behar duela. Alde batetik eta bestetik, uste dut %50a etorkinaren ekarpena dela, denok nabi dugu integratu eta onartuak izan. Bertakoen beste %50a falta da baina, eurek gurekin bat egin nabi izatea, alegia. Gu desiratzen gaude eurek gonbida gaitzaten, baina guk ezin badugu beraiekin gauzarik egin, eta beraiek euren gauzak aparte egiten badituzte, orduan ezin dugu integratu, bazterrean uzten gaituzte, euren bazterra gara. (ET4)

“Haiek” eta “Gu”ren arteko amildegi horrek elkarbizitzan dagoen urruntasunaren berri ematen digu. Elkarrekin ez nahasteak eta elkarrekiko ezjakintasunak, mesfidantzak, eta estereotipoak eragiten dituzte:

...kalean egoteko obitura dugu, eguraldi ona ari badu, garagardoa, Coca Cola edo dena delakoa edaten dugu. Hiruzpalau laguneko koadrila gara, eta hortxe, hitz eta pitz. Pasatzen dabiltzan batzuek esaten dute, zer egiten dute hauek? Eta deiak eta salaketak izan ditugu....Guk geure herrian, Marokon, atzerritarra datorrenean abegiz tratatzen dugu, gizalegeak agintzen duen bezala, beltza, zuria, gorria edo txinata-

⁸ Garrantzitsua da bertakotuen jatorria jakitea auzoko kultur-aniztasuna ulertzeko. Bertakotuen komunitaterik jendetsuena Ekuadorkoa da (%34,9), gero Boliviakoa (%9,9), segidan Colombiakoa (%8,7), eta hiru hurrengoak: Bulagariakoa (%4,5), Perukoa (%4,2) eta Marokokoa (%3,6).



rra izan, berdin zaigu, guk baino eskubide gehiago du, gu bangoak izaki. Gu berriz, bona etorri ondoren, ez hemen ez ban. (ET4)

-Orain dendetan badugu balako mesfidantza puntu bat, ezjakinaren mesfidantza, ezagutzen ez duzun magrebiarra, beltza edo txinatarra etortzen zaizu eta antena pizten duzu soilik ezagutzen ez duzulako. Gero egia da, itxurek tronparazten gaituztela, arraroa dirudiena jatorra dela eta, itxura onekoa, ba hori, ezer ez. (ET8)

-... bai, integrazioaz hamaika solas, baina gero ez dago ezertxo ere, ez dago barrematik, beti gaude begira....ba hori, garagardo batera gonbidatu, gurekin batera eser daitezen, zertaz bitz egiten dugun ikus dezaten... (ET4)

Instituzioen bazterketa eta legezko desberdintasuna dela medio (atzerritarrentzako bertakoei eskatzen ez zaizkien baldintzak eta paperen tramitazio maiz kontraesan-korra), mesfidantza ugaltzen da nonahi: lanean, etxebizitza lortzeko orduan edo aisialdi guneetan (taberna eta diskoteketan). Etxeko lanetan dihardutenekiko gehiegikeria eta haien kanporatze bidegabea, alokairua eskaintzeari uko egin edo alokairua garestitzen dieten norbanakoak, zor zaien zerbitzua emateari muzin egiten dieten higiezin agentziak, poliziaren erasoengatik egindako salaketak gehitu izana, etorkin izateagatik taberna edo diskoteketan sarrera ukatzea, etab.⁹, egoera honen lekuko gordinak ditugu. Eta horren guztiaren oinarrian, instituzioen bazterketa eta esplotazio ekonomikoaz gain, lehentxeago aipatu dugun elkarrekiko inkomunikazio edo ezjakintasuna dago.

...etxebizitzak alokairuan uztea, lan egiten badugu etxebizitza erosi abal izatea, eta ez eskatu behar ez dizkidaten gauzak eskatzea. Hori da auzoko etorkinok nabi duguna.

-...batzuk mesede bat eskatuz besteen etxean lo egiten dute, beraz, zein ote da lehenengo gauza? Ba etxebizitzaren kontua da behar dugun lehenengo gauza.

-Errentagarriagoa da astebetez festetan alokatzea urte osorako alokatzea baino, errentagarriagoa zaie eta borregatik dituzte urte osoan zehar itxita. Eta jabeetako asko beste auzoetan bizi direla kontuan hartuta, horietako asko itzal handiko jendea, oso zaila ikusten dut aldaketa. (ET4)

...munduan gose handiagoa dago, hortaz, normala jendea hona etortzea, ezta? Hona etortzeko miloi erdiko sosa ordaintzen dute, edo bestela zorra. Gero 17 pisu baka- rrean sartzen dira eta hori ez da batere erraza, abal dena egiten dute bizitzeko, jar zaiten euren larruan, pentsa, ezer eduki gabe joan beharko bazenu. Hizkuntzarik jakin gabe etortzen den jenderik bada, hori izugarrizko handicapa da. Ez dakit...17 bizi bazarete pisuan, normala bik baino zarata handiagoa egitea, ezta? (ET3)

Auzokide horrek azpimarratzen duen bezala, oso zaila suertatzen da euren lekuan jartzea, euren bizi-baldintzak ulertzea, munduko goseteek dituzten egiturazko arazoiez hausnartzea, norberaren sorterrria horren baldintza gordinetan uzteak suposatzen duen galera, ezezaguna den inguru batean bertako hizkuntza eta kulturaren

⁹ Txosten hori SOS Arrazakeriak aurkeztu zuen Komunitate Planak Antolaturiko Inmigratioari buruzko Topaketetan.

berri ez jakitea, etxebizitza eskuratzeko pairatzen duten bazterketa, lan baldintza eskasak...

Nik bere etxera joateko ez dut deitu beharrik, joaten gara, bamar lagun elkartzen gara eta asteari buruz bitz egiten dugu, edan, jolastu, denetik egiten dugu...ateratzen zarenean "moral" altu duzula ateratzen zara, lasaitu egiten zara. (ET4)

Zentzu horretan, etxebizitzaren logikak (prezioak, balio-galerak, alokairuak...) garrantzitsuak dira komunitateak erosi ahalmenaren arabera biltzen dituzten aldetik. Horrek bertakoen *inbasio* edo *ghetto* ikuspegia indartzen du. Badirudi alarma sozial hori ez dela hainbeste lan munduan ematen (etorkin langilea gero eta gehiago onartzen da), baizik eta egunerokotasunari lotutako eremu publikoan: bizilagunen artean, gizarte laguntzan, osasun zerbitzuan, kirolean etab. Auzokide batzuen ustez, sorterriaren araberrako bazterkeriak ez du arraza edo kultura mailako oinarria, hori baino gehiago, arrazismoaren diskurtsoa oinperatze ekonomikoaren mozorroa da, izan ere, bazterketaren benetako arrazoia sektore horien pobrezia baita. Dena den, diskurtso arrazistak bazterketa soziala iraunarazi egiten du:

-5,6,7,10 urte, edo gehiago, hemen bizi garela eta zure azal-kolore edo ezaugarri fisikoenatik beti etorkina bazina bezala begiratzen zaituzte, ezta? Ba ez, espainiarak gara hemen bizi garelako eta zergak ordaintzen ditugulako, eta besteek adinako eskubide eta betebeharrak ditugulako.

-20 ala 50 urte hemen bizi arren etorkin izaten jarraitzen dugu?

-...bemengoak gara, Iruñean gaude, Iruindarrak gara. (ET4)

Hau guztia ikusita, diagnosi prozesuan zehar, hainbat eragilek jatorri anitzeko gune eta sareak sortzeko premia azpimarratu dute. Izan ere, oraino jatorri bereko sare itxiak izan dira ohikoak:

-Kultu-guneak behar ditugu, ez baitugu biltzeko balako lokalik, beno, Milagrosan bada bat, Ekuadorkoa, oso ongi iruditzen zait, beste batzuekin biltzen zara, zure umea beste umekin batera jolastera joaten da, tea ala kafetxoa hartzen duzu...

-Bai, badira, baina, nafarrentzakoak. Guk 150 lagunentzako bazkaria egin nahi izan genuen, guztiok magrebtarrak, peña guztiei galdegin genien, baina, ezin izan genuen. Esan genien guk dena atera eta garbituko genuela...pentsatu, proposatu eta ezer ez.

-Denon artean nabasteko kultur gunea ipini behar da. (ET4)

-Iaz harritu ninduen gauza bat ikusi nuen, Alde Zabarreko kaleetan zehar bemengo jendea ibili zen dantza afrikarrak egiten. Niri, hori bera afrikar jendeak egitea izugarri gustatuko litzaidake...

-Hala da, dantza ederra zen bura, oso polita, baina, ban ez zen afrikarrik...afrikarrak eta bemengoak izan balira ba ederki...nik uste dut balako jaialdiak egiteko beste jende badela hemen. (ET4)

Zentzu horretan, zenbait taldek nabarmendu dute lehen urratsa bertakoen zein etorkinen elkarrean arteko hurbilketa izan beharko litzatekeela. Horrela, nahiz eta bizi eta lan baldintzek zailduko luketen (etorkinei dagozkienak batez ere), gutxiengo tal-



deek euren burua gizartean baloratuta ikusiko lukete eta, bestalde, auzoko talde ezberdinen harremanean sakonduko litzateke. *Munduko Arrozaken* moduko ekimenak dira egin beharreko lan horren lekuko. Ekimen hura gastronomiaren bidez, herri bazkari batean, aipatu desberdintasunak nahasteko aukera paregabea izan zen. Lehenengoz, Nabarrieriako Plazan izan zen 2005ean. Gisa horretako ekimenek gainera, ohitura eta bizi-baldintza desberdinek sor ditzaketen hika-mikak arintzeko parada eskaintzen digute.

Auzoko elkarteek, beraz, gutxiengo kulturalak edo etorkinak auzoko bizitzaren sarean barneratzeko zubi-lana bete dezakete; horrela, aldarrikapen edo kultur mailako ekimenetan, aipatu sektoreak auzoko kide eta eragile aktibo senti daitezke:

-Alde Zabarraren eguna edo Inauterien moduko festak ez dira etorkinekin lotzen...gu hurrengo egunean enteratzen gara, egunkarien bitartez, hau eta bestea ospatu dela. Etorkinak balakoetara ere lotzea nahi izanez gero, Elkarteen Zentrora jo eta beti gaude balako kontuetan parte hartzeko prest, guk ere ekarpenak egin ditzakegu.

-Orain antolatuagoak gaudela kontuan hartuta, "San Gregorio" kalean izaten gara, afrikarregana, marokorregana, kolonbiarregana edota ekuatortarregana jo dezakete. Talde hauek ekarpenak egin eta, gainera, integratzeko era bat da... (ET4)

4. Bizi-baldintzak eta gizarte baliabideak

4.1. Haurtzarora eta hezkuntza komunitatea

Hezkuntza arloa Komunitate Diagnosi baten ardatzetako bat da. Hezkuntza formala eta informala haratago, auzoa eta hezkuntza, ikuspegi integral batetik aztertzen saiatu gara.

Alde Zaharreko Auzo Elkartek, Francesco Tonucci¹⁰ ikerlari italiarraren laguntzaz, orain zazpi urte antolatu zituen jardunaldien ildo berean, hiria umeen ikuspuntutik azter daiteke. Hori ez da atal honen helburua, baina, uste dugu garrantzitsua dela ikuspuntu hau gogoraraztea hezkuntza arloa hobeto ulertzeko, hezkuntzan arakatzeko ikuspegi ohikoaz haratago.

Egiturazko analisi kuantitatibotik analisi interpretatzaileerako bidea egingo dugu diagnosiaren prozesuan zehar protagonistengandik jaso ditugun lekukotasunak jasoaz.

Horrela, hezkuntza mailan dagoen eskaintza formal zein ez-formala arakatuko dugu eta, aldi berean, auzoa, orokorrean hezkuntza gunere baden aldetik, aztertuko dugu. Horrekin batera, euskararen egoera aztertzekeo tartea ere hartuko dugu.

4.1.1. Hezkuntza formala

Auzoan haur eskola bakarra dago, *Nuestra Señora de los Angeles* delakoa. Eskola horrek ez du, ordea, dagoen eskari guztia asebetu. Gainera, ez dio euskarari behar bezalako arretarik jartzen euskal adarretako eskaera handitzen ari den bitartean.

...ba gaizki zeren haur pila gelditzen baita lekurik gabe. Horretaz gain, dena gaztelera da, ez duzu euskaraz ikasteko aukerarik, beste auzoetara joan behar izan duen bamaika lagun dago. (ET7)

Hortaz, guztiz premiazkoa da haur eskolan dagoen eskariari erantzutea, orain dagoen eskaintzak, eskaeraren herenari ozta-ozta erantzuten baitio. Orik 3 urte arteko eskola baten beharra dago, betiere, haur hezkuntzan dauden hizkuntza-eredu guztietara egokituz. Lehen hezkuntzako zentroei dagokienean, Alde Zaharrean bi ditugu, publikoa bata, *San Francisco* eskola, eta pribatua bestea, *Santo Tomás* ikastetxea (*Dominikak*). *San Francisco* eskolak 376 ikasle barne hartzen ditu eta *Dominikak* 745. 745 ikasle horietatik 275 Alde Zaharrekoak dira eta gainontzeko 470ak

¹⁰ Tonucci (1997).

Errotxapea edo beste auzo batzuetakoak¹¹. Lehen hezkuntzako eskaintza horrekin asebetetzen da auzoan dagoen eskaera.

Hizkuntza-ereduei arreta ipinita, *Dominikenak* G eredia (erabat gaztelerazkoa) eta A eredia (euskara astean lau saiotoako ikasgai gisa). *San Francisco* eskolak bi ereduoz gain, D eredia (euskaran murgiltzea) ere badu. Azken eredu horretan aurki daiteke matrikulaturiko haurren gehiengoa. *San Francisco* eskolako zuzendariak onartu digunez, eskolaren erronketako bat eredu guztion arteko topaguneak sortzea da, izan ere, A eta G ereduetan baitaude gutxiengo etniko eta beste sorterrietatik etortako bizilagunen seme-alaba gehienak.

...zerbitzu publikoa eskaintzen dugunez, Zentroak duen asmoa da bezkuntzaren bitartez berdintasunean oinarritzen den kultura errespetu eta adiskidetzeari sustatzea da. (Alde Zaharreko Topaketak: Inmigrazioa)

Hau da hizkuntza ereduaren araberrako banaketa *San Francisco* eskolan (2005-2006 ikasturtean):

6. taula: “San Francisco” eskolako hezkuntza ereduaren matrikula

Hizkuntza eredia	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza						Orotara
Kurtsua	3 u	4 u	5 u	1.	2.	3.	4.	5.	6.	
G	9	7	9	9	7	3	6	6	6	62
A	7	8	2	8	3	7	4	7	5	51
A+G	16	15	11	17	10	10	10	13	11	113
D+B	37	40	33	33	29	28	26	21	16	263

Iturria: Egileek sortua (2006)

San Francisco eskolak esangura berezia hartu du auzoan bi krisi gairitu dituela eta. Bata, 1996koa, eskolak D eredia eskaintzea lortu zuen. Bestea, duela gutxiagoko, ia eskola lekuz aldatu zuten. Batean zein bestean, gurasoak izan ziren, auzoko hainbat sektoreen babesarekin batera, eskola bertan mantentzen zuten. Aldarrikapen hartan eskola auzoa biziberritzeko ezinbestekotzat jotzen zuten. Lorpen hura komunitatearen garaipentzat jotzen da eta, oraindik ere, azken urteotako auzoko antolakuntza esperientzia positiboenetakoa bezala gogoratzen dute auzokideek. Elkarrizketatu dugun pertsona batek ederki asko azaltzen digu eskola eta auzoaren arteko erlazio hori:

-Alde Zaharreko jendeak umeak izan bazituztela, baina, lau bat urte bete orduko beste auzoren batera joaten zirela, ezta? Kanpoan lan egiten zutelako, pisua kanpoan erosi nahi zutelako, ba beno... Orduan ba joera hori dezente gelditu da San Franziskon D eredia ipini denetik, izan ere, umea bertan matrikulatzen duzu eta horrek lotu egiten zaitu auzora. (PE2)

¹¹ Bi zentruak utzi dizkiguten datuak.

Santo Tomas ikastxeko ikasleak sexu, adin eta bizi diren auzoaren arabera sailkatuta (2005-2006 ikasturtea):

7. taula: “Santo Tomas” ikastetxeko ikasleen banaketa, sexu, adin eta bizi diren auzoen arabera

Adina	Ikasle kopurua	Mutilak	Neskek	Alde Zaharra	Errotxapea eta beste auzoak
3 urte	54	30	24	18	36
4 urte	50	19	31	15	35
5 urte	51	26	25	16	35
6 urte	48	23	25	13	35
7 urte	49	24	25	18	31
8 urte	48	25	23	20	28
9 urte	51	23	28	22	29
10 urte	45	21	24	20	25
11 urte	51	20	31	18	33
12 urte	63	22	41	20	43
13 urte	59	20	39	22	37
14 urte	51	22	29	25	26
15 urte	45	17	28	20	25
16 urte	37	16	21	10	27
17 urte	43	19	24	18	25
Orotara	745	327	428	275	470

Iturria: Egileek sortua (2006)

Gogora dezagun hasieran aipatu duguna, Komunitate Diagnosi batean auzoa ikuspegi integraletik aztertzea zein garrantzitsua den. Hartara, antolakuntza esperientzia oso positibotzat jo beharra dugu eskolaren inguruko hau, hezkuntza eta auzoko biztanleria bertan mantentzea aldarrikatzen zituelako, eta beraz, auzoari buruzko ikuspegi integrala azalarazi zuelako.

Mobilizazio esperientziaz gain haurrak eskolatik kanpo ere elkarrekin egoteari garrantzia handia ematen zitzaion:

-Giro onean daude, gebientsuenak auzokoak direnez gero, ikaskideak kalean ere elkarrekin geratu obi dira. (ET7)

Pertsona baten heziketa eskolako guneaz aparte, bestelako lekuetan gertatzen da, horrexegatik da hain garrantzitsua eskolaren eta auzoaren arteko harremana.

Azken urteotan eskolako matrikulek gora egin dute. Gelako ikasleen kopurua igo da ia legeak ezartzen duen gehiengoraino eta horrek kalte egiten dio eskolari.

Bestalde eskolako instalazioak zaharkitzen ari dira eta, batez ere, haurrek neguan ala eguraldi txarrarekin jolas dezaten leku dezenterik ez dute kasik. *San Francisco* eskolan leku bakarra daukate eskolaz kanpoko jardueretarako eta sarritan, bat egin ezin duten jarduerak kointziditzen dute ordu berean. Beste gabeziak bat duen heziketa balioagatik, auzoan kiroldegirik ez izatea da. Ia espaziorik ez duten beste hiriguneeekin gertatzen den bezala, kiroldegiak lagungarri zaizkie eskolei bere eskaintza hobetzeko.

San Francisco eskolaren beste arazoetako bat jangelarik ez izatearena da. Eskolan dagoena gurasoen elkarateak ordaindu eta kudeatu beharra dauka, izan ere, Udalaren ustez, haur gehienak auzokoak direnez jangelak ez omen du zentzurik. Hala ere, guraso askok ezin ditu lan orduak eta bazkalorduek ezkondu eta bestelako ekimen hori hartu behar izan dute:

... gutako batek lan egiteari ordubetez utzi bebar genion haurrei jaten emateko. (ET7)

Eskolak azkenaldian ekitaldi-gela bat egiteko dirua eskuratu nahian dihardu. Gela hori eskola jardunetarako, baina, baita auzoko elkarateek erabiltzeko izango litzateke. Ekimen interesgarria berrito ere, auzoko espazio eta erabileren dimentsio integrala azalarazten duen aldetik.

Orokorrean, Udala eta Nafarroako Gobernuarekiko (familiak diruz lagundu ditzaketen erakunde bakarrak) ezinegona nabaritzen da, lehen aipatu jangelaz gain, izugarritzko utzikeria omen baitute eskola-materiala erosteko edo teilaturen bat konpondu behar bada laguntzeko. Haurrak dituzten familiek ez dute ulertzen nola publikoa den eskola batean euren sakelatik hainbeste utzi behar duten.

Dena den, Gurasoen Elkarateak halako ahultasuna sumatu du bere barruan gurasoek gutxi parte hartzen omen dutela eta. Litekeena da hainbeste borrokaren ondoren nekeak harrapatu izana, baina edonola ere, gaur egungo egoera dela medio, gurasoek gehiago inplikatu beharra aipatu dute.

Dominiketako gurasoek ere, batez ere espazio faltari lotutako hainbat arazo aipatu izan dituzte, baina, ikastetxe pribatua denez jangela edo autobusa bezalako zerbitzuak ikastetxeak berak kudeatzen ditu. Edozein kasutan, guraso hauek ikastetxeaz gehien estimatzen dutena eskolan transmititzen diren baloreak dira:

-Irakasten diren baloreak, pentsatzen dut beste eskola batzuetara bidaltzen dituztenek ere izango dituztela bereak, baina, umea bona dakarrenak balore batzuk aukeratu ditu eta jendea oso pozik dago horrekin. (ET7)

Lehentxeago aipatu bezala, hainbat gurasok arazoak ditu lan orduak eta umeari kasu egiteko denbora adiskidetzen (guraso bakarreko familiek batez ere), umeak eskolara lagundu ala bertatik jasotzeko, adibidez. Gurasoek elkarri laguntzeko bitartekoak

jarriz gero, komunitate-sarea antolatuta, haurrentzako zerbitzuak hobera egingo luke. Auzo Unitateko langileek argi eta garbi azaldu digute:

-Bakarrik dauden amen kasuan, umeak lagundu ala jasotzeko laguntza izango litzateke. Guraso batek guraso desberdinen umeak hartuko lituzke. Hori orain arte arazo izan dugu. Ez dago balako arazoei aurre egiteko sarerik. Horrek baliabide gutxiagorekin zerbitzua hobeagotzea lekarkiguke. Ostiralean eskolako bilera izan genuen eta esaten zen Gurasoen Elkartek lagun lezakeela, baina, inork ez zuela horri forma ematen asmatzen. Batzuetan, behar hori duten kideak ez dira ausartzen. 5 urterekin eskolara bakarrik doazen haurrekin topo egiten dugu, bestela, haur handiagoen kargu doazen umeak, baina, handiagoak kasketa hartzen badu badakizu kalean utz ditzaketela... orain arte "SAD"ekin laguntzen dute eta ez dirudi inork ere dakienik. (EP 6)

Uste dugu Diagnosi honen zereginetako bat aipatu beharrei erantzuten jakitea dela.

Alde Zaharreen ez dago Bigarren Hezkuntzako eskolarik, hortaz, ikasleek beste auzoren batera jo beharra dute. Iturrama eta Biurdana dira arrakasta gehien duten institutuak. Behar hori desberdin bizi dute *San Francisco* eta *Santo Tomaseko* (Dominikak) gurasoek, izan ere, *Dominikenean*, 18 urte arteko hezkuntza eskaintzen da.

Institutura joateko egin behar duten bideetatik eta, normalean, eskola garaiko adiskideak sakabanatzen direlako, nahiko premiazko ikusten da Bigarren Hezkuntzako zentroa auzoan. Lehen Hezkuntzan adiskidetasuna eskolan zein auzoan ematea ontzat ematen dute, ikusi dugunez, bi eskoletako Guraso Elkarrekin.

Gainera, badirudi aipatu institutuek masifikazio arazoak dituztela:

-Nire alaba Biurdanan dabil eta, nabiz eta 2008an zentroa handitu nabi duten, bien bitartean haurrak gela edota irakaslerik gabe dabilta eta, epe luzera, ez direla bertan sartuko ikusten da. (ET7)

Horrengatik guztiarengatik Bigarren Hezkuntzako eta D eredu zentroa familien behar behinetakoa dugu.

4.1.2. Hezkuntza ez formala

Atal honetan umeen eta gaztetxoaren aisialdiaz eta eskolaz kanpoko ekintzez arduratzen diren taldeen lana jasoko dugu.

Printzipioz, bi dira talderik garrantzitsuenak: Aldezar batetik, eta parrokiako laguntza zein katekesi taldeak bestetik.

Aldezar ume zein gazteentzat aritzen den elkarte dugu. Elkarte horrek Zarreko Komunitate prebentziorako programa kudeatzen du. Geroxeago azalduko ditugu zehazkiago programa horren nondik norakoak.

Ludoteka orain bost urte sortu zen. Ludotekaren helburua euskaraz ikasten duten haurrak aisialdian euskaraz aritzea zen.

Aisialdirako tailerrak, jolasak, irteerak edota auzoko ibilaldiak antolatzen dira. Aisialdian parte hartzea, sorkuntza eta heziketa sustatzen saiatzen dira. Aisialdian umeak euren jardueren jabe dira, euren jardueraren protagonista. Talde horrek antolatzen ditu auzoa pizten duten hainbat eta hainbat jarduera. Gainera, urte osoan zehar egiten diren udalekuak antolatzen dira (4 urtetatik 18 urtetara). Ekintza ugari jolasaren eta elkarbizitzaren plastika oinarri duen heziketa islatzen dute.

Udalekuek umeak lehiaketan baino kolaborazioan gizartera daitezten parada eskaintzen dute.

Aldezarrek luzaroan antolatu du Ludoeskola. Bertaratzen diren ikasleen ikasketak indartzeko saioak egiten dira eta, oro har, gizartean hezteko balio du. Irudimena, sormena, errealitateari kritika, elkarrizketa edota besteari arretaz aditzea dira antolatzen diren tailer eta dinamiken ardatza.

Txiki Txoko: Otiak 6 urte arteko hurrek parte hartzen dute bertan. Guraso eta umeek joko libre eta ez formalean oinarritzen diren ekintzak burutzen dituzte. Familia-unitateen arteko harremanak sustatzen dira ekintzotan. Talde autonomia lantzen da. Gela bat eta margotu, panpinak egin edota mozorrotzeko materiala daukate.

Kirol jarduerak ere egiten dituzte pertsonaren errealizazioa eta taldetasun kontzientzia uztartze aldera.

13 eta 18 urteko gazteentzat ere ikasketa taldeak antolatzen dira. Inguruko zentroetatik (Gurutze Plaza institututik, Eskolapioetatik, UCA-tik, eta batez ere, Dominiketatik) gazteak jarduera honetara zuzentzen dituzte zeren eta, lan giro bikaina lortzeaz gain, auzoan gizarteratu eta integratzeko gune bat sendotzen baita. Aldezarrek bost urte daramatza Komunitate Eskolaren bidez gazteekin lan egiten. Lan horren barruan sartzen dira ere *gazte txokoa* eta *gazte aldizkaria*.

Gune egokia da hau gizartean murgiltzeko trebetasunak, prebentziorako ohiturak eta kultura gaietan garatzeko. Gaztearengan, talde batean barneratuta, bere pertsona heziketak eta talde bizipenak bat egiten dute.

Azkenik, folklore talde batek (erraldoi, zanpantzar eta dantzari taldea ditu) ibilbide polita egin du luzaroan eta haurren artean arrakasta bikaina lortu du. Gune dotorea da hau haurren heziketan hainbat helburu garatzeko eta,aldi berean, haurra bertako kulturarekin harremanetan jartzen du. Hartara, balorazio baikorra egiten da haurra auzoan bertako folklore talde batean sartzeaz batera, auzoaren identitate kontzientzia garatzen duelako.

Folklore-eskola hori ezinbesteko erreferentzia bihurtu da jai giroan zein egunerokotasunean, eta komunitatearen etorkizunari begira jokatu duen papera ez da badaezpadakoa. Kaldereroak, Olentzero zein Inauterietan eman ohi dituzte hurrek auzoko gizarteratzen lehen urratsak, beraz, eskertzekoa da folklore taldeak auzo bizitzari egiten dion ekarpena.

8. taula: Aldezar Elkartearen aktibitateen partaideak

Jarduera	Parte hartzaileak	Adina	Jatorria
Ludoteka	15-20	5-8	San Franziskon D ereduok
Aisialdia	35-50	3-8; 9-12; 13-17	Urtean zehar Hezkuntza Zentroetatik, Auzo Unitatetik eta Prebentzio taldetik datozen haurren gorakada.
Ludoeskola	25-40	3-5; 6-9; 10-13	HZ, AU eta PT-tik datozen haurren gorakada.
Kirola	15-18	8-14	
Ikasketa-taldea	16	12-17	Alde Zaharra eta II.Hedagunea; Dominiken ikastetxea, "Compasión", "Santa Catalina" eta "Plaza de la Cruz" eta Biurdana institutuak.
Formaziorako Komunitate Eskola	16; 5; 4	14-15; 15-16	Aldezar
Fantasia	8-13	5-11	
Folklore		4-14	

Iturria: Aldezarren ekitaldien memoria (2005)

Aldezarren memorian adierazten denez, Alde Zaharreko 300-350en bat haurrek parte hartzen du iraunkorki, eta 800en batek, unean uneko jarduerak eta beste taldeekiko koordinazioa aintzat hartuz gero.

Azkenik, Aldezarren 13 urtetatik 25 urtetarako 97 boluntarioek parte hartzen dute. Gehientsuenak (%74,23) 19 urtetik gorakoak dira eta, batzaz beste, 4 urteko esperientzia dute. Bestalde, aipatzekoa da emakumeen parte hartze kopurutsua, izan ere, lanean dihardutenen %75a emakumeak ditugu.

San Cernin pastoraltza zentroa atal honetan ere jaso nahi genuen eragilea dugu. Heziketa ez formalaren barruan, bi programa daramatza aurrera: katekesi-ikastaroak eta ikasketetan laguntzeko Ikaskide programa.

Zentro horri dagokionez, katekesi ikastaroak *San Lorenzo* eta *San Saturnino* parrokitan egin ohi dira. Adinka bereizten dituzten taldeetan, orotara 60 eta 100en bat umeren artean bertaratu ohi zaizkie. Ohikoa gertatu izan zaien arazoa zera dute, haurrek Lehen Jaunartzea bukatu orduko ez dietela ikastaroei jarraipenik ematen. Funtsean, gurasoek ikastaro horiei ez dietelako beste ikasketa hainbati (klase partikularrei edota eskolaz kanpoko ekintzei) adinako garrantzirik ematen.

Ikaskide programa bestetik, *San Francisco* eta *Dominiketako* haurrekin eskolan laguntzeko diharduen programa da. Ansoleaga kaleko lokaletan bildu ohi dira eta ikasketarako, topaketarako eta jolaserako gune izatea du helburu.

Programa honetan 12 monitorea dihardute eta monitorea horietatik gehienak Lurberri Aisialdi Eskolakoak dira. Bi lagunek koordinatzen dute programa. Bi lagunon arabera, zailtasun bat aurkitu dute ikastaroen izaera informal eta borondatezkoa dela eta, hain justu ere Hezkuntza Zentroekiko koordinazio falta.

-Ikasturte honetan Leben Hezkuntzako irakasle batekin hartu eman informalean jarri gara eta berak Ikaskideen egiteko ariketak bidaltzen dizkie. (PE9)

Parte hartzen duten gaztetxoei buruzko profil zehatzik ez dugu eskuartean, baina, joera orokor gisa, curriculumaren egokitzapenerako zailtasunak dituzten etorkinen kopuruak gora egin duela ikusten da eta desoreka horiek gainditzea du programak xedetako bat.

4.1.3. Auzoa heziketarako gune den aldetik

Baliabide finko hauez gain, hasieran aipatu dugu, heziketak beste zenbait faktore ere barne hartzen dituela, esan nahi baita, gizarteratzeko edozein gune, aisialdi eta jolaserako gune, eta orobat, haurren arteko harremana gorpuzten den edozein leku edo giro.

Atal honetan haurren gurasoek heziketarako ikusten dituzten beharrak jasoko ditugu.

Zentzu horretan, jolaserako guneen falta gauza nabaritzat dute (bereziki neguan zehar). Gune batzuetan hobekuntza nabari dute halere, besteak beste, San Frantzisko Plazan. Bertan zentro eta nazionalitate desberdinetako haurrak elkartu ohi direla nabarmentzen dute:

-Orain San Francisco plaza polita ikusten dut: haur begoamerikar andana bertaratzten da, guraso eta haur pila, eta ikastolatik ere, makina bat haur eta guraso jotzen dira. (ET7)

Udararako San Jose Plaza eta Redin zonaldeari ere ondo deritzote. Horiez gain, Iruñazarra taberna eta Mercaderes plaza familiak elkarrekin egoteko lekutzat dauzkate. Halere, azken horien kasuan, gabezia baten sintomatizat jotzen dituzte, hau da, polikiroldegi bat ez edukitzeak suposatzen duen hutsunea betetzeko leku gisa.

Kultura ezberdineko haurrek dituzten harremanei buruz, hainbat hutsune daudela aipatzen dute gurasoek.

Jolaserako eta elkarrekin topatzeko lekuak egotea (kulunkadun plazak, polikiroldegia...) funtsezkoa da kulturen arteko harreman aberasgarria jazo dadin.

-Poza ematen dit San Franziskotik pasatzean borrenbeste haur, eta hainbeste koloretakoak, ikusteak. (Alde Zaharreko eguneko kale panela).

Haurrek, elkarrekin jolasean, adinak dakartzan hainbat aurreiritzirik ez dute eta hori, jakina, kulturen arteko nahasketaren mesedetan doa. Alde Zaharra gune egoikia da aipatu nahasketa gertatzeko ekimenak bultzatzen daitezela.



Helmuga horri begira aldeko faktore bat izan bada, hezkuntzan dabiltzan eragileek (zentroko zuzendaritzak, irakasleek, gurasoek, etorkinek, aisialdi taldeek...) kulturen arteko adiskidantza bultzatu nahi dutela heziketan.

Azkenik, gurasoek beste aldarrikapen bat dute: Haurrentzako Liburutegia. Liburutegi horrek, haurrentzako liburuak izateaz gain, etxeko lanak egiteko, talde lanak egiteko, eta heziketa jolasak egiteko balioko luke. Gune horrek ere kulturen adiskidantzari ateak irekiko lizkioke.

4.1.4. *Euskara Alde Zaharrean*

Euskarak atal berezia behar du, agian, 1996an *San Franziskon* D ereduko adarra ezarri denetik batik bat. Gaur egungo haurrek euskaraz ikastea (eskola publikoko eredu desberdinetan) ala gaztelaniaz ikastea, *Dominikenean*, aukera dezakete.

-Orduan ba...Alde Zaharreko gazte askok haurrak zituztenean euskarazko ereduan eskolaratzen zituzten eta Milagrosara edo San Jorgera eraman behar zituzten. Horrek urte batzuetan zehar, biztanleak barantz eta bonantz ibiltzera behartu ditu. (PE2)

Euskal ereduko adarrek nabarmen egin dute gora. 2006an jada 3tik 12 urterako 663 haurretatik 263 matrikulatu dira D ala B ereduan. Alde Zaharreko adin tarte horretako biztanleriaren %39 den horri, beste auzoetan dauden euskarazko zentro pribatueta doazen haurrak gaineratu beharko genizkioke, eta aldi berean, baina beste maila batean, A ereduan matrikulatzen direnak (euskara ikasgai gisa dutenak)¹².

Bizitzako aspektu askotan gertatzen den bezala, haurrek gurasoen hainbat ohitura eta interes moldarazten dituzte. Hala, Alde Zaharreko kale eta plazatan euskara gero eta gehiago entzuten da, bereziki, San Francisco Plazan. Plaza horretan kulunkak jarritz geroztik, komunitate gune garrantzitsuenetakoa bihurtu zaigu. Bertan, etniak eta kulturak elkarrekin topatu eta hizkuntza ezberdinak entzuten daitezke, horien artean euskara.

Puntu honetan ere, nabarmentzekoa da eskolaz kanpoko ekintzetan dagoen euskarazko eskaera. Eskaera horri enpresak kontratatuaz edo elkarteek beraiek erantzuten diote. Egun euskarazko katekesia edo Aldezarek (batzuetan *San Franciscoko* Guraso Elkartearekin batera) antolatzen dituen euskarazko hainbat ekimen topa genitzake.

3.124 euskal hiztun¹³ dituen auzo honetan helduen alfabetatzea lantzen duten 5 erakunde daude: AEK, IKA, Hizkuntza Eskola, Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa, eta Administrazio Publikoan Nafarroako Institutua (funtzionarioentzako). Urtero batz bestea 150 lagun (azken 3 urteok kontuan hartuta) berri

¹² Ikus "San Francisco" eskolako ikasleen taula 44. orrialdean.

¹³ "Censo de Población y Viviendas de 2001, según Competencia Lingüística".

matrikulatzen da euskara ikasi ala hobetzeko. Horrela, euskaraz dakitenen kopurua urtero urtero gorantz doa.

9. taula: Euskara ikasteko erakundeen matrikula

Ikasturteak	2003-2004	2004-2005	2005-2006
Alfab. Euskald. Koor. (AEK)	65	63	55
Arturo Kanpion (IKA)	63	60	58
Hizkuntza Eskola Ofiziala (HEO)	27	30	30
Orotara	155	153	143

Iturriak: AEK, IKA, eta HEO (2006)

Egunerokotasunean 48 komertziok, bankuk, ostalaritza establezimenduk euskarazko zerbitzua eskaintzen dute. Bestalde, Alde Zaharreko kaleen edota plazen izenean ere topa daiteke euskararen presentzia eta inguru honen jatorri euskalduna gogorazten digu (Aldapa, Lindatxikia, Txapitela, Ansoleaga, *Belena de Portalapea*, Mañeta...).

Kulturatik, festatik eta artetik ere euskarari ekarpena egiten dioten elkarteak ere hor ditugu: Zaldiko Maldiko, Euskal Herrian Euskaraz, Karrikiri Elkarte... Elkarte hauek hitzaldien, antzerkiaren etab.en bidez euskaraz bizitzeko guneak pizten dituzte.

-Publikoa den bezkuntza bat aukeratzen baduzu orain San Francisco duzu, baina, nik euskaraz izatea erabaki nuen eta ez nuen irtenbiderik ez haurrezkoenean, ez DBHn eta ezta instituturik ere, beraz, uste dut bemengoentzako eskaera garrantzitsua dela, ezta?

-Orain bada, ezta?

-Bai, orain bada San Franciscon, DBH bada. Baina, esaterako ez dago oraindik Bigarren Hezkuntzan. (ET1)

Institutu baten bidez euskarazko ikasketak luzatzeak euskara bera indartuko luke auzoan. Eztabaida Taldeetan, elkarrizketetan eta 2005eko Alde Zaharraren egunerako burutu bideoan bildu dugun materiala ikusita, halako zentro bat egitea eskakizun aho-batekoa bihurtzen ari da azken aldian.

Azkenik, egoki deritzogu AEK edo IKA bezalako erakundeek bizi duten egoera ekonomiko larria aipatzeari. Erakundeok erro sakonak zulatu dituzte komunitatean eta Alde Zaharreko gizarte prozesuetan beti erakutsi dute konpromisoa. Erakunde hauei esker, auzokideek esku-eskura dute euskara ikastea eta, nola ez, lan eskerga egiten dute euskara normaldu dadin. Euskararen ikasketa transbersala ziurtatzen dute klasean zein kalean erabilera sustatuz. Erakunde hauen lana instituzio publikoek aitortu, eskertu eta lagundu beharko lukete, bestelakoan, gaur egun gertatzen den bezala, ikasleek bizkar gaineratu behar dute kostu ekonomiko gehientsuena eta horrela, bistan da, euskararen ibilbidea zaila eta garestia gertatu ohi zaie.

4.2. Gazteen behar espezifikoak

Bereizketa honek merezi duela uste dugu. Orain artean nerabezeroaz eta gaztaroaz ere mintzatu gara, baina, heziketaren ikuspegitik soilik izan denez, beste hainbat gazte problematika bide bazterrean utzi ditugu. Gainera, gazteek ikuspegi berezia behar dutela uste dugu auzoaren etorkizuna osatzen dutelako. Horrela mintzo gara, etorkizunaz, izan ere, etxebizitza bezalako gaietan dauden arazoek auzoan bizi ala ez bizitzera inoko kezka pizten baitituzte gazteen espektatibetan. Diagnosi honen helburuetako bat jakina, kezka horien sorburuan dauden arazoak identifikatzea da, gerora konponbidearen akuilu izango diren ekimenak abian jartzeko.

Metodologiari dagokionez, eztabaida taldeak eta elkarrizketak antolatu ditugu gazteengan dauden ideologia edo kultura anitzak jasotzearen. Bestalde, auzoko gazte kolektiboek burutu lan eta hausnarketak ere kontuan hartu ditugu eta taldeon parte hartzea ziurtatu dugu Jarraipen Batzordeetan.

Aipatu aniztasuna abiapuntuetako bat dugu gazteen arazo espezifikoak sakontzerako orduan, izan ere, bai instituzioek zein hainbat gazte taldek gazteria talde homogeneo eta interes bakarreko gisara ikusten baitute. Errealitatea bestelako hizkuntzan mintzo da.

Gazteria gizarte osoa bezain anitza da izatez. Gainera, ez dago gazteriarik bakarrik eragiten dion gairik. Ikuspegi integraletik sobera sinplifikatzailea da gaiak adin taldeetan banatzea, baina, ikuspegi funtzionaletik arestiko eztabaida taldeetan zein elkarrizketetan errepikatu diren gaiak jorratuko ditugu oraingoan.

Hori egin baino lehen gogora ditzagun oinarritzko datu batzuk. 2006ko zentsuaren arabera 2.243 lagun ditugu 15 eta 30 urte artean. Hori biztanleria osoaren %17,8 da. Horretaz gain, askoz ere gazte gehiago bertaratzen zaigu auzora Alde Zaharra aisialdirako erreferentzia denez gero hiriko gainerako gazteentzat. Azken afera hau kontuan hartu dugu, betiere, bertakoen ikuspegia gailendu badugu ere.

Gazteek hiru bertute egozten dizkiote auzoari: auzogintza mugimendua, pertsonen arteko ezagutza eta herri kulturari lotutako mugimendu zabalagoa egotea.

-Niri auzotik gustatzen zaidana da ematen duela badela elkartean mugimendua, behintzat azaletik hori dirudi. Gero ikusten duzu gebienetan ia jende bera dagoela eta hori niri akatsa iruditzen zait, baina, hori, azaletik oso auzo bizia da, ez taberna eta asteburuko festagatik bakarrik, baizik eta...Mari Trapu... festa eta ekitaldi asko antolatzen da... eta bitzaldiak...borregatik gustatzen zait.

-Bai egia esan oso auzo bizia da. Beste auzo batzuekin alderatuz gero askoz ere biziagoa da eta aparte...ez dakit...ni betidanik hemen bizi izan naiz eta jendea nola ezagutzen duzun, herri txiki bat bezalakoxea da hiri bandiaren barruan. Eskertze-koa da ogi bila atera eta aupa!, aupa!, gero arte!, zer moduz! (ET5)

Gazte Asanblada, Aldezar, Mugarik Gabe, Zabaldi edo *La Majari* ditugu gaztetzako kolektibo erreferentzialenak eta, bertan parte hartu ala ez, gizarte bizia izatearen ba-

rruan eredu dituzte kolektibook. Aitortzen dutenez, azken urteotan inplikazioa zertxobait jaitsi da baina:

...elkartu behar dutenean auzokideak benetan elkartzen dira dena emateko. (ET5).

Beste alde batetik, dotazioei dagokienez, gazteek ia aho-batez kirol desberdinak egiteko gune publikoak sumatzen dituzte faltan. Dena ekimen pribatuaren eskutan uzten ari dela kritikatzan dute eta, horrek dakartzan ondorioak, gehiago ordaindu eta kirola egiteko urrunago joan beharra.

Bestalde, etxebizitzarena da auzoko gazteak gehien kezkatzen dituen aferetako bat. Dakigunez, afera horrek ez die gazteei soilik eragiten, eta gainera, beste lekuetako gazteei ere eragiten die. Halere, Alde Zaharrean arazo hau nabarmenago bihurtzen duten baldintza batzuk ematen dira:

-Lehenengo pisuak dira.

-Bai, horixe esan behar nizun orain, lehenengo pisuak.

-Etxebizitza huts pila dago.

-Baina asko, pila, izugarri. (ET 5)

Aurreraxeago ikusiko dugun bezala, etxebizitzaren atalean, Alde Zaharrean 1.489 etxe huts daude, beraz, auzoan erroldatutako etxeen %22,63a. Gazteak errealitate horretaz jabetzen dira eta horretan ikusten dute etxeen prezio garestiaren kausa garrantzitsuenetako bat eta, hortaz, ezin bizitza proiektu propio bat egitearen arrazoietakoa bat.

Gazteei afera horrek sortarazten dien arazoa dela medio, higiezinaren espekulazioa errotik moztuko duen politika galdegiten diete Udalari zein gainerako instituzio publikoei.

Beste eskakizun garrantzitsu bat zera da: autogestioan kultura, gizarte zein politika mailako ekimenak egitea ahalbidetuko dien gune bat. Euskal Jai eraitsi izana gabeziatzat jotzen dute, gainera, iritzi hori partekatzen dute bai ikuspegi aktiboa dutenek, bai eta ikuspegi utilitaristagokoez ere.

-Leku gutxi zeuden jateko eta horietako bat Gaztetxea genuen. Zeure kabuz joaten zinen jatetxera, zeurea zerbitzatu eta ederki jan ahal zenuen. Horretaz gain, zinema zenuen, ikastaroak (...) eta jaialdiak.

-Kantxa bat ere bazenuen, futboleko jolasteko, palan ala eskuz aritzeko, nahi zenuenerako. Kirol-gunea zenuen, hori ederra zen! (ET5)

Gai arantzatsua da hau eta ez dugu sakontasunez analizatu nahi, batez ere, eztabaida oraindik irekita baita orubeari eman behar zaion erabilera dela eta ez dela (horrek dotazioen-zerbitzuen atalarekin zerikusi gehiago du). Hemen nabarmendu nahi duguna hau da: gazteek autonomiaz kudeatu nahi dituzten guneak aldarrikatzen dituzte eta ez gune jakinei begira bakarrik, baizik eta, oro har, talde eta pertsonen garapena ulertzeko planteamendu global bezala.



Atalari hasera ematean genioenez, gazteria sektore anitza da eta, horrenbestez, era ezberdinetan antolatu eta mobilizatzen da. Hartara, ez da harritzekoa era guztietako guneak aldarrikatzea: herritar guneak, gune autogestionatuak, edo oraino sortu gabe diren gune eta esperientzia berriak.

Ildo horretan, sektore antolatuenean kalea, kultura aniztasunari irekitako gune bezala, erabiltzeko askatasun handiagoa aldarrikatzen dute. Kalea, eta orobat gune publikoak, erabiltzeko dagoen arautze zorrotzak ez omen dio kultura ekimenari behar adinako askatasunik uzten. Kartelak ipintzeko debekuak eta kartelak ipintzeagatik jartzen diren zigorrak hesi estua bailiran ikusten dira: auzo komunikazioarentzako eta auzogintza emari aberatsa mugatzeko.

Azkenik, aisialdirako eskaintza handiagoa ere beharrezkotzat jotzen dute gazteek. Garrantzitsua da arazo hori arazo globalago baten atal bezala ikustea, hau da, gazteek dituzten gabezia guztiak kontuan hartu behar direla. Bestela, gazteek aisialdia alkohola kontsumitzen eta tabernarekin identifikatzen dutenen kritika errazean eroriko gara, baina, gazteek bestelako aisialdia eraikitzeko dituzten aukera eskasak kontuan hartu gabe.

Horregatik, garrantzitsuak dira ez bakarrik gazteen eta gainerako auzokideen arteko begirunea sustatzen duten kanpainak (*karrikan etxean bezala*), baizik eta kultura eta kirol eskaintza zabalagoa eraiki behar da. Horrela, eskaintza hori auzoak dituen gune eta gazteen aisialdi uneetara egokituta, aisialdi aberasgarriagoa ahalbidetuko da.

4.3. Adineko jendearen behar espezifikokoak

Auzoko 65 urtetik gorako jendea auzoko biztanleria osoaren %17,96 da (2006ko Udal Errolda). Bataz beste, Iruñea osoan eta beste auzoetan baino portzentajea altuagoa da. Gure ustetan, errealitate horrek hainbat aspektu positibo eta potentzialitate dakartza, baina, baita hainbat aspektu negatibo ere.

Potentzialitate eta arazo hauek Diagnosian zehar planteatu ditugun gaiekin zerikusia dute, nahiz eta gaien garrantziaren arabera bi multzori so egingo diogun: hiri-gintza eta gizarte-zerbitzuak batetik, eta gizarte-sareak bestetik.

Metodologiari dagokionez, adin talde honetako eztabaida taldeak sortu ditugu, horrela, euren ahotik dituzten arazoak eta duten auzoaren ikuspegia aditzeko.

Nola edo hala, adin-talde hau ikuspegi asistentzial hutsez aztertzen duen ikuspegia baztertu nahi genuen. Adinekoak auzoko zati funtsezko ditugu eta *zabar* izatea osagai duen auzo nortasuna adin talde honen ekarpenaren isla da (osagai positibo zein negatiboekin). Adinekoen ekarpen hauxe jaso nahi genuke: euren herri ezagutza jaso gerora gizarte dinamiketan eragin dezan.

Gainera, adinekoen auzoarekiko emoziozko lotura ez daiteke ez zenbakietan eta ez estatistiketara murriztu, baina, beraiekin izan dugun elkarrizketa bakoitzean sumatu egiten da.

...Alde Zabarrak erakartzen nau, etxean bezala zaude bertan. (Zaindu maite duzun hori. Parte Hartuz eta Eguzki Bideoak editatu duten bideoa)

Komunitate planak nola Diagnosi taldeak adinekoen balioak eta duten ikuspegi integratzailea geure egiten ditugu.

4.3.1. Adinekoak eta hirigintza

Arlo honi lotuta, gune fisikoa eta beronen banaketa dira, adinekoen ikuspuntura, eragozpenik handienetakoak. Alde batetik, pertsonen eta garraioen mugikortasunari lotutako arazoa dugu, eta beste aldetik, etxebizitzarekin zerikusia duena. Bi gaiok hirigintza atal orokorrean bildu ditugu eta oraingoan adinekoen ikuspegi espezifikoetik soilik aztertuko ditugu.

Pertsonen eta garraioen mugikortasunari dagokionez, Alde Zaharrak, duen espazio banaketagatik, hainbat arazo ditu egituran ez gaur egungo garraioentzat pentsatua izanagatik. Arazo horrek adinekoengan du eragina bereziki. Adinekoek dituzten arazoei ibilgailuen mugikortasunarekin lotuta daudenak gehitzen zaizkie.

...kalean, ni banka batetik gaizki nabilenez, ba edo nire seme batek etorri bebar du nire bila, edo bestela, beste norbaitek. Gainera, taxiak ezin dira Estafeta plazaren barrutik sartu. Ez dakit, giltza bat edo poliziaren bat egotea ez legoke gaizki gaixorik daudenezat. (ET6)

Horri kaleei oinezkoen bidea jartzeko lanak gehitu behar zaizkio. Lan horiek ere premiadunen mugikortasuna galarazten dute. Pertsona horiek ez dituzte berez lanak kritikatzeko, lan horien iraupen luzea baizik.

Bestalde, bada Alde Zaharrean bizi ez den adinekorik (batzuk beharrik ala familiarak hala aginduta lekualdatu dira), baina, auzoarekiko lotura estua sentitzen dute. Lotura hori, euren gizarte harremanak zein erosketak egiterakoan, Alde Zaharra aukeratzean islatzen da.

Pertsona horientzat garrantzitsua litzateke garraio publiko kalitatezkoa. Errotxapea *Santo Domingo* azokarekin lotzen duen autobusa esaterako, zerbitzu onuragarria dute.

Adinekoen beste arazo garrantzitsua etxebizitzarena da. Nahiz eta hainbat etxe eraberritu diren, Eraberritze Bulegoak berak onartzen duenez, eraberritze hauen onurarik jaso ez duten hainbat sektore egon badaude (horien artean premiak dituzten zenbait adineko).

Adineko lagun horiek eraberritzea egiteko hainbat arazo aipatu izan dizkigute: arazo ekonomikoetatik hasita (diruz lagundutakoa ez den parte ezin ordaindua), paperak eta tramitazioak egiteko ez nora jo, ezta nola egiten diren ez jakiteraino.



Gainera, etxe asko kanpotik txukun zaharberritu dituzte, baina, barnealdean arazo ugari dituzte espazioaren banaketa, aireztatzea ala komunen kokapenarekin lotuta.

... pertsona hauen adin bataz bestekoa oso altua da eta etxeak igogailu gabeko pisu altuak, berogailurik gabekoak, dutxarrik gabeko bainudunak... izan ohi dira. Adinekoentzat arazo larria da etxebizitzarena Alde Zaharrean. (ET6)

Ez dago arazo horri buruzko estatistika zehatzik eta, egia esan, arazoa ezkutaturik egon ohi da benetako larritasunera heltzen den arte. Horrelakoetan, Etxeko Laguntza Zerbitzuek, (gaztelaniaz “Servicio de Atención a Domicilio, SAD”) Auzo Unitatekoek ala auzoko jendeak berak azalarazten dute arazoa.

Azkenik, beste arazoetako bat honako hauxe dugu: adinekoen artean asko ez direla etxe-jabeak eta aspaldiko alokairuan bizi direnez, jabeek ez zaie etxeen barnealdea eraberritzeko inbertsiorik egitea interesatzen.

4.3.2. Adinekoak eta gizarte zerbitzuak

Etxebizitzaren arazoei lotuta gizarte zerbitzuen ere azaletik iradoki dugu. Hurrengo atalean globalki aztertuko dugunari adinekoena gehituko diogu lerrootan.

Etxeko Laguntza Zerbitzua Auzo Unitateak ontzat ematen duen zerbitzuetakoa dugu. Alabaina, oraindik ase ez diren hainbat behar badaude eta, norabide horretan, apartamentu babestuena da mugikortasun arazoak dituzten ala auzotik alde egin nahi ez duten adinekoek askotan errepikatu izan duten aldarrikapenetako bat. Ez da harrizkoa premiadun sektore hau izatea auzokideak elkar ezagutzearen, kalean elkarri agurtzearen edota dendetan hitz egitearen balioa sarritan azpimarratu duena.

... esaterako, pareko dendako emakumeak agureak nondik nora dabiltzan kontrolatzen ditu, pasatzen badira agurtzen ditu eta, horrela, berak badaki ongi daudela eta, dena delakoagatik, agureak ez badira pasatzen dendaria kezkatu egiten da eta zer gertatu den ikustera joaten da. (ET1)

Nolabait ere, izaera estrategikoko inbertsio publikoaz gain (apartamentu babestuak), gizarte babesa ahalbidetzen duen komunitate-sarea aipatzen da. Sare horrek, baliabide formalez haraindi, elkar ezagutza eta elkarrekiko harremanen bidez, gehien behar dutenak zaintzeko laguntza bidera dezake. Sare hauek sendotzea hartara, auzoak duen erronka garrantzitsua da. Horretarako, eragileen artean estrategia berriak, irudimentsuagoak, pertsonen hurbilago zaizkienak, abiarazi beharko lirateke.

4.3.3. Adinekoak eta auzoko gizarte-sareak

Atal honen sarrera laburrean genioen bezala, adinekoen arazo konkretuez gain, adinekoek auzoari egiten dioten ekarpen positiboa ere ikusi nahiko genuke.

Alde batetik, badira adinekoek sortu edo antolatu dituzten elkarte eta guneak. Iso-lamendua gaindituz, guneotan aisialdia partekatzen dute beste adinekoekin. Arazo komunak identifikatu eta konponketarako neurriak aldarrikatzen dituzte. Udalak 2005ean eguneratutako Iruñeko Elkartearen gidaren arabera, Alde Zaharrean jubilatuen zazpi elkarte daude. Batzuek gainerako gizarte bizitzarekin lotura estua dute, eta besteak, adinekoen aisialdira mugatzen dira: *Asociación de Jubilados Avante*, *Asociación de Jubilados Amigos de los Castillos* edo Gure Lan Berrik bestelako elkarteekin lan egiteko gaitasuna erakutsi dute eta auzoa biziberritzeko prozesuetan parte hartu izan dute (Komunitate diagnosi hau edo *Urban* Plana lekuko).

Eztabaida taldeetan zein elkarteekin izan ditugun harremanetan, ezusteko ona izan da elkarteotako jendeak euren zilborraren ikuspegi estuaz haratago, gazteen edota merkatarien arazoak nola aztertu izan dituzten ikustea. Auzoko bizi-baldintzak hobetzeko, logika sektoriala gaindituko duen lan komuna, sektore anitzen topaguneak sortzea ikusmiran dugun erronka garrantzitsuenetakoa dugu. Ez da gauza berria adineko jendeak auzoko elkarte hainbatetan parte hartu eta euren esperientzia eta gogo bizia bertaratu izana.

4.4. *Gizarte eta osasun zerbitzuak auzoan*

Gizarte eta osasun zerbitzuak analizatzerako orduan, pertsona dugu erdigune: pertsonaren behar eta aberastasunak, bere gaitasun eta nahiak, bere potentzialitate eta ahultasunak. Ikuspegi hau jorratzerakoan bestalde, ikuspegi murriztatzaileak ekidin nahi ditugu, izan ere, sarritan dena *osasun edo gizarte arazoa dura* mugatu ohi dugu. Ikuspegi zabalagoa hauze litzateke finean: gizarte faktoreak (ekonomia, demografia...) inguru fisikoarekin (etxebizitza, hirigintza, mugikortasuna...) uztartu behar dira, eta babes eta zaintza ezin dira faktore orokorretatik berezi arazoei dau-den baliabide guztiak erlazionatu eta koordinatuz erantzute aldera.

... pertsonen beharrak ardatz hartuko dituen auzoaren garapenari garrantzia handia ematean zaio, hau da, auzokideen beharretatik abiatuz auzoaren garapenerantz bide egiteari. (Gizarte-sareen Jarraipenerako Batzordea).

Horregatik funtsezkoa iruditzen zaigu osasun eta gizarte zerbitzuak era integralean ulertzea, era horretan, auzo bizitzan topa ditzakegun baliabide guztiekin erantzun-go baitiegu arazoei. Lehen aipatu bezala, erdigunea *pertsona* da, pertsona *animalia soziala* den aldetik, gainerako pertsonekin harremanetan jartzen den aldetik, hiriko zein auzoko erakundeekin, elkarteekin, administrazioarekin, ekonomia edo gizarte ehunarekin harremanetan den pertsona hain zuzen ere. Inguruabar horretan garrantzia berezia dute auzoan bizi-bizi auzogintzan diharduten kolektiboek. Era berean, funtsezkoa da baliabide sozialak ez asistentziara mugatzea, prebentzioa, laguntza eta, azken finean, gizarte eta osasun beharrak gizatasunez zipriztinduko dituen baliabide anitzez ari gara.



Alde Zaharreko gizarte baliabideak azaltzerakoan, Iruñeko administrazio antolakuntza kontuan hartu beharrean gaude. Gizarte zerbitzuei dagokien kargu altuena Emakume eta Gizarte Zerbitzuen zinegotzia dugu. Alor honen egoitza Alde Zaharrean bertan da, Zapateria 40n Udalak duen egoitzan. Alor honetan hainbat programa daude abian. Programa hauen irismena hiri guztira hedatzen da, baina, Alde Zaharra da programa hauen gauzapen gune nagusia. Gizarte laguntzarako oinarritzko maila Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan datza, Iruñean Auzo Unitate izenpean ezagutzen direnak.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi Auzo Unitate direlakoan baliabide asko Nafar Gobernuko Gizarte Ongizaterako sailaren menpe daudela (etxebizitza programak, hirugarren adina, oinarritzko errenta, integrazio sozialerako programak, etab.).

Administrazioaren baliabideez gain borondatez ala profesionalki diharduten elkar-teek leku berezia merezi dute. Gizarte Zerbitzuei lotutako ekimen asko Udalaren menpe badaude ere, beste asko erakunde pribatuek edo elkar-teek sustatzen dituzte. Bestalde, administrazioan ere, zerbitzu hauen kudeaketa enpresa pribatuen eskutan uzteko joera ikusten da. Joera horrek etekinak atera nahi dituzten enpresei dakarkio onura, Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin gertatu den bezalaxe. Hori guztia kontuan hartuta, zerbitzuak analizatzeko halako sailkapen bat proposatu dugu:

- a) Publikoa: administrazioaren eskumenpean eta administrazio karguek kudeatzen dute. Funtzionarioa den pertsonalaz ari gara beraz. Dena den, interesgarria da hainbat arlotan lanpostu finkorik behar denean, ordezkapen lanpostuekin betetzeko dagoen joera.
- b) Komunitate-publikoa: administrazioaren eskumenpean, baina, etekinik ateratzeko helbururik ez duten enpresek lan egiten dute. Udalak lehiaketan ipintzen dituen programak asignatuz, ala aurrez lanen batean ziharduen erakundeari diru laguntzak emanez funtzionatzen dute.
- c) Publiko pribatizatua: Administrazioaren eskumenpean dagoena, baina, etekina xede duten enpresek kudeatzen dutena.
- d) Komunitate mailakoa: elkar-te eta kolektibo hainbatek egiten duten lan ez profesionala. Ez dute asistentzia lanik egiten, baina, prebentzioa lantzen funtzio garrantzitsua dute.
- e) Pribatua: eremu pribatutik populazioari eskaintzen zaion lan profesionala.

Hona hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko elkarrizketa batetik atera dugun zati bat:

... egoerarik onena gizarte laguntza udal langileen esku egotea bada, pasa gaitezen, nire ustez, egoerarik okerrenera: gizarte laguntza etekina xede duten enpresa pribatuen esku egotea, eta etekin hori, zerbitzuak gutxituz edo profesionalen lan baldintzak okerragotuz erdiestea. Bi aukera hauen artean bada erdibide bat: programen kudeaketa etekinik lortu nahi ez duten entitateen esku uztea. (PE8)

Alde Zaharrean gizarte laguntzak arreta berezia merezi du. Besteak beste, auzoan arazo larria dute adinekoek etxebizitzarekin, hirira datozen etxerik gabekoak auzoan pilatu ohi dira, eta hiriko etorkinen portzentajerik handiena auzoan bizi da.

Gizarte baliabideak bezalaxe, Udaleko Ingurugiro eta Osasun arloak Alde Zaharrean du egoitza: *San Saturnino* 2 kalean. Arlo horren helburu behinenetako batzuk hauexek dira: herritarren osasunerako prebentzioa eta babes bermatzea, jendea ingurugiro gaietan zein energia aurreztean sentsibilizatzea, eta botatzen den kea edo sortzen diren zaratak kontrolatzea. Osasun baliabideak dena dela, Nafar Gobernua-ren (Osasun saila, Osasunbidea) esku daude batez ere. Lehen Laguntza Alde Zaharreko Osasun Etxean egiten da eta eraikin horretan ere Osasun Mentaleko Zentroa dago. Eraikina 1998an jarri zen martxan eta *Compañia* 8 kalean dago. Zentro horretan, Norbanako Osasun Txartelaren arabera, 14.000 lagunek jasotzen du laguntza. Bitxia da nola Alde Zaharrean 12.599 lagun bizi diren eta Osasun etxean aldiz, nola 14.000 lagunek jasotzen duten laguntza.

4.4.1. Gizarte Baliabideak

Gizarte Zerbitzuen sarreran azaldu dugun bezala, Gizarte Zerbitzuak Iruñean Gizarte Zerbitzuak eta Emakumea udal arloaren menpe daude. Auzo Unitate guztiak arlo horren menpekoak dira.

Lehen Gizarte Laguntza egiten den lekua Auzo Unitatea da, beste hainbat lekutan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak direlakoak.

Alde Zaharreko Auzo Unitateak Jarauta 43n du egoitza eta laguntzarako edo hitzordua adosteko telefonoa 948 212649 du. Ikus dezagun Auzo Unitateak eskaintzen duen laguntza:

- a) Informazioa, Balorazioa eta Orientazioa.
- b) Etxeko Laguntza Zerbitzua.
- c) Komunitate ekintzak.

4.4.1.1. Informazioa, Balorazioa, Orientazioa¹⁴

Programa horren bitartez herritarrek dauden gizarte baliabideen eta jaso ditzaketen laguntzen berri izan dezakete:

- a) Informazioa: Pertsona edo familia bakoitzak duen egoeraren arabera jaso ditzaketen laguntzen berri ematen da.
- b) Balorazioa: Kasu jakin bakoitzean eskaerak analizatu eta jarduteko era definituko duen diagnosia egiten da.
- c) Orientazioa: Zerbitzu hau erabiltzen duten guztiak profesional batek aholkatu eta laguntzen ditu.

¹⁴ Iruñeko Udala.

d) Tramitazioa: Programa edota gizarte baliabideren batean formalki sartzeko espedienteak egiten dira.

Auzo Unitatean egun hiru gizarte langilek dihardute. Hiru langileok lehen gizarte laguntzaz, adinekoek eta gai administratiboez arduratzen dira. Hiru langileotaz gain, bost familia langilek dihardute Etxeko Laguntza Zerbitzuaren baitan, eta Auzo Unitateko adinekoen ardura daramanarekin koordinatzen dira.

1998ko Otsailean kaleratutako *Informe sobre la situación social del Casco Viejo de Pamplona*ren pasarte batzuk ekarriko ditugu geurera Auzo Unitateak egiten duen lanaren xehetasun batzuk gehitzeko.

*Ya desde sus comienzos, los profesionales que han ejercido en el Casco Antiguo han venido constatando en esta zona de actuación un conjunto de factores relacionados con el medio social (humano, económico poblacional, etc.) y con el medio físico (vivienda, urbanismo, etc.) que han hecho necesario plantearse la situación como un barrio de especial dificultad, que precisa un conjunto de recursos técnicos, económicos y materiales que favorezcan el abordaje de los problemas de su población en materia de servicios sociales, al menos, en similares condiciones que el resto de los vecinos de Pamplona.*¹⁵

Txosten horretako ondorioetan honela agertzen zaigu:

*El Casco Viejo supera a los demás barrios en cuanto a solicitud de prestaciones sociales, tanto de Bienestar Social como del Ayuntamiento de Pamplona. (...) Tiene importantes carencias, en comparación con la media de la ciudad, en cuanto a dotación de servicios, equipamientos e infraestructuras que condicionan la calidad de vida de la población que reside en él. (...) Existe una concentración de problemas personales y sociales que implican un buen número de personas y colectivos. (...) El Casco Viejo cuenta con una amplia presencia de Asociaciones y Entidades implicadas en su mejora y recuperación.*¹⁶

Auzo Unitatearen laguntza *Zarrekorekin* osatzen da (*Proyecto Técnico Comunitario de Prevención Socieducativa del sector infanto-juvenil del Casco Viejo*). *Zarreko* Alde Zaharreko Auzo Unitatearen baitan kokatzen da eta komunitate mailako gizarte baliabide publikotzat jotzen da prebentzio zein esku-hartze mailan lan egiten duen heinean. *Zarrekoren* helburuak hauexek ditugu: auzoko pertsona zein familiengan eman daitezken arazo edo gizarte-heziketako gabezietan esku-hartzea; haur zein gazteen gizarte eta kultura garapenerako komunitate heziketa sarea sustatu eta dinamizatzea; norbanakoen, familien, edo gazte taldeen gizarte egokitzapena ematen ez den prozesuetan prebentzioa eta esku-hartzea; eta auzoko beharretan oinarrituta diharduten instituzio publiko zein pribatuak, komunitate sarearen parte direnak, sustatu eta dinamizatzea.

Zentzu horretan *Zarreko*, komunitate lanaren lekuko argia dugu: lan komuna egiten duena, ekimenak koordinatzen dituena eta soldatapeko lana eta lan boluntarioa uztartzen dituena.

¹⁵ "Informe sobre la situación social del Casco Viejo de Pamplona" 1998ko Otsaila. 7. orr.

¹⁶ "Informe sobre la situación social del Casco Viejo de Pamplona" 1998ko Otsaila. 21. orr.

4.4.1.2. Etxeko Laguntza Zerbitzua “SAD”¹⁷

Auzo Unitatean du egoitza. Pribatizatutako baliabide publikoa da eta *Amma Recursos Asistenciales* enpresaren esku dago. Euren gizarte zirkustantziengatik elikaduran, higieanean, etxeko lanetan, gizarte harremanetan edo etxe barru ala kanpoko laguntzan oinarritzko beharrak dituztenei laguntzea du zeregin enpresa horrek. Auzo Unitate bakoitzak bere profesional taldea du etxeko laguntza emateko. Laguntza horrek eguneko ordu erdi eta bi orduren artean jo dezake.

Zerbitzuaren helburuak: arazoen prebentzioa eta adinekoek etxean jarraitu ahal izatea ahalbidetzea. Zerbitzua erabiltzen dutenek euren ongizatea hobetzeko baliabide eta zaintza osagarriak eskaintzea. *SAD*aren onuradunen gizarte integrazio eta parte hartzea ahalbidetzea. Azkenik, auzo eta familia inguruneak pertsona hauek lagun ditizan sentsibilizatzea.

*SAD*a baliabide publiko pribatua da, jendeak oro har, ontzat jotzen duena, eta zerbitzu ona ziurtatzeko hainbat ekonomia eta giza baliabideren jabe da. Orokorrean, *SAD*ak adinekoei ematen dien laguntza ona da, dena den, auzoko adinekoen arazoentzat beharko lirartekeen laguntza eta baliabideak are gehiago izan beharko lukete.

Etxeko Laguntza Zerbitzuari ongi deritzogu, adinekoek orokorrean ezagutzen dute, etxekoandreei laguntzen diete, paseatu, jaten lagundu, bainuak. Apartamentu babestu gebiago egoteari ongi irizten zaio eta horrek etxebizitza butsen aferarekin nolabaiteko zerikusia du. (Ekaineko tailerrak)

Adinekoekiko lanari ongi irizten bazaio ere, hainbat iritzi eta proposamen dago horri buruz:

Bakarrik dagoen jende asko dago, bakarrik dauden adinekoak. Horrek pisu babes-tuen beharra agerian uzten du. Gainera, baliabide ekonomiko eskaseko jende asko alokatutako pentsio edo geletan, egoera kaskarretan, bizi dira. (Gizarte ehunaren Jarraipen Batzordea).

Zabar etxe merkexeagoen beharra dago. Adinekoek euren etxeetan bizi daitezen laguntza pisu babestu edo pisu komunaren gisako formulak. (Ekaineko tailerrak)

4.4.1.3. Komunitate ekintzak¹⁸

Komunitate ekimen programen bidez, Udalak auzoetan diharduten kolektibo eta gizarte erakundeekin kolaboratu nahi du. Gainera, auzogintza elkarleen sareak gatazkak eragotzi eta auzoko gabeziei alternatibak jartzen ahal dizkiela uste da. Testuinguru horretan, komunitatea elkartzera, auzokideen arteko elkartasunera eta auzoentzako heziketa baliabideak sortzera zuzentzen dira komunitate programak.

¹⁷ Iruñeko Udala.

¹⁸ Iruñeko Udala.



Komunitate ekintzena da Auzo Unitatearen zereginpean gehien hobe daitekeen gaia. Alde batetik, lanaren zatirik handiena laguntza eta tramitaziora bideratzen delako. Beste aldetik, administrazioak ez duelako komunitate lanaren aldeko apustu garbirik egiten, baliabideak koordinatzerako orduan, hain justu ere. *Zarrekoren* esperientziaz haratago lan asko dago egiteke:

Komunitate programa abaztuta dago, baina, sikiera, baur-gazte eremua Zarrekok betetzen du. (PE6)

Komunitate lana eta baliabideak koordinatzeaz ekarpen interesgarriak daude egin ditugun parte hartze dinamiketan. Prebentzioaz eta esku-hartzeaz ere hitz egin da:

Osasun eta Gizarte Zerbitzuei buruz, asistentziatik heltzen zaio, baina ez prebentziotik. Baliabideak badaude, baina, koordinatu gabe lan egiten da, eta ondorioz, ez dira baliabideak behar bezala aprobetxatzen. Komunitate esku-hartzerik ez dago. (Ekaineko tailerrak).

Funtsezkoa beharko lukeen arren, koordinazioa ia butsaren burrengoa da. Koordinazioari trabak jartzen zaizkio; obituta egotearen, konpromisorako gogo ezaren, edo lan gaineratua suposatzen duenaren iritzia dago. Koordinazioa lan egiten duen norbakoaren menpe ere badago, eta ez dago goiko agindurik edo koordinazioa ahalbidetzen duen antolakuntza berezirik. Koordinazioaren filosofiak administrazioan barneratuta eta instituzioen babespean behar du egon. Lan zama handiagoko suposatu behar ez duen koordinazio egitura sortu behar da. Baliabideak ez dira ondo aprobetxatzen eta jendea zorabiatu egiten dugu koordinazio faltagatik. (Ekaineko tailerrak).

Auzo Unitatearen baitan den beste baliabide bat Gizarte Ekimenetarako Komunitate Zentroa (CCIS) dugu. Auzoko elkarte eta erakundeentzako instalazioak eta zerbitzuak eskaintzean dituzte. Horietako asko hirian eta Alde Zaharrean daude. Esaterako, Aldezar ludoteka, Auzo Unitatean dagoena, eta Auzo Elkartearantzako eman izan dituzten ikastaroak eta beste kolektibo batzuekin egin diren ekimen hainbat.

Beste komunitate baliabide garrantzitsu bat Auzoena dugu. Alde Zaharreko hainbat elkartek kudeatzen dute eta auzoko kolektibo eta jarduera guztiei irekita dago. Kudeaketa Batzorde batek koordinatzen du. Baliabide honek dituen helburuak honakoak ditugu:

- a) Auzokideen topaketarako gune bat eskaintzea eta aisialdi, kultura eta auzokideen bizi-baldintzen mesedera jardutea.
- b) Aisialdiaren bidez auzo guztira heltzea.
- c) Adinka edo belaunaldiak nahastuz jarduera multzoa antolatzea adin guztien parte hartzea ahalbidetzeko.
- d) Auzoarekin konprometitua, solidarioa, kritikoa eta parte hartzailea den aisialdia sustatzea.
- e) Jardueren bidez jendeak auzoko bizitza sozialean gehiago parte har dezala lortzea.

Bertako administrazioaren beste gizarte baliabide bat Hautzaro eta Nerabegarorako Laguntza Taldea (*EIAE*) da. Baliabide publiko horrek Iruñea iparraldean du irismena eta Alde Zaharra eta Errotxapea ditu esku-hartze gune nagusiak. Gizarte Zerbitzuak eta Emakumea alorraren mende dagoen talde honek (*EIAE*) familia esku-hartzeak burutzen ditu haur edo nerabeen kasuetarako. Talde horren zeregin nagusia esku-hartzearen harrera, balorazioa, eta diseinua egitea da. Talde beraren mende daude Kamira programa, berau Lantxotegi elkarte eta Ijitoen Eliz Taldearen esku dagoena. Familia Esku-hartzerako Kamira Programa hezitzaileekin esku hartzea egiteaz eta kasuen koordinazioa egiteaz arduratzen da, eta komunitate baliabide publikoa dela suposatzen da.

Administrazioaren mende dauden eremuan jarraituz, hiri osoa lan eremu duten beste baliabide eta programa batzuk ere kontuan hartu behar ditugu, Alde Zaharrari garrantzia ematen dioten aldetik. Zentzu horretan, Compañía 29 kalean egoitza duen Compañía Zentroa nabarmendu beharrean gaude. Informazio eta formaziorako multimedia zentroa da berau, eta emakumeei eskainia da. Alde Zaharra eta Hedagunerako Emakumeentzako Laguntza Unitatea Hedagunean kokatzen da, San Fermin 29 kalean, hain zuzen ere.

Etixerik gabekoentzako Udalaren bi programa ere aipatuko ditugu. Gizarte Zerbitzuak eta Emakumea alorraren esku daude, eta hiri osoa dute lan eremu. Bi programok, Etixerik gabekoentzako Kale Laguntza eta etixerik gabekoentzako *A Cubierto* Zentroa, Lantxotegi elkarteak kudeatzen ditu. Esan dugunez, hiri osoa lan eremu badute ere, garrantzia handia dute Alde Zaharrari begira, izan ere, Alde Zaharra etxerik gabekoen egonleku, gizarte harremanetarako gune; eta osasun, gizarte eta administrazio baliabideen gune (Auzo Unitatea, Osasun eta Osasun Mental etxeak) baita hein handi batean. Horrela, kasurik gehientsuenak Alde Zaharreko eta Hedaguneko Auzo Unitateek tratatzen dituzte. Lehen aipatu *A Cubierto* zentroa Playa Caparroso z/g kalean kokatzen da, Labrit aldatatik metro gutxira.

Lehentxeago aipatu ditugun baliabideei lotuta, Udaltzaingoaren Babes eta Gizarte Laguntzarako Unitatea *UPA*Saz hitz egingo dugu. Auzo Unitatean lantzen diren hainbat kasu eta auzoko beste gizarte baliabideekin ere lan egiten du.

Administrazioaren menpeko Gizarte Zerbitzu publikoei Osasun Etxean diharduen gizarte langilea gehitu behar diogu. Osasun txartelari dagokion laguntza eta mediku babesean laguntzea, kudeaketan lagundu eta etxean dauden hainbati laguntza, beste gizarte baliabideetarako orientazioa... ditu zeregin. Langile horretaz gain, bada Adimen Osasun zentroan diharduen beste gizarte langile bat eta bata zein besteak osasun eta gizarte baliabideak koordinatzen dituzte. Adimen Osasun Zentroak adibidez, drogak uzten laguntzeko komunitate terapeutikoetan barneratzen, diru laguntzak tramitatzen, eta abar lan egiten du.

Adinekoentzat, *SAD*az gain, emakumeentzako *Cuarticos de San Martin* edo Pablo Sarasateko Pasealekuko Komunitate Etxebizitzak aurki ditzakegu. Etxebizitza horiek

oso interesgarriak dira etxebizitza babestuen ikuspegitik, dagoen eskaerarentzat gutxitxo diren arren.

Nabarmentzekoa da nola apenas dagoen gizarte baliabideen koordinaziorik. Gizarte politika egiteko oinarritzak behar luke. Arazo horren lekukotasun argia etxebizitzarekin adinekoek duten arazoak ematen digu:

Arazorik handiena gizarte beharrak asetzeko etxebizitza baliabideen eskasia dugu. Horretan asko eta asko ados gaude. Auzo Unitateak Eraberritze Bulegoarekin noizean behineko barremana du, bereziki, etxea baldintza txarretan dutenentzako (gizarte zerbitzuekin lotuta dagoena) edota, etxetik lekuz aldatzeko kasuetan. Garrantzitsua da gizarte zerbitzuak eta etxebizitza edo osasunarekin lotutako eskaerak erlazionatzea. Badira muturreko kasuentzako baliabideak, baina, gaineko kasuetarako gabezia izugarria dago. (Ekaineko tailerrak).

Ez ditugu ahaztu behar oinarritzak gizarte laguntzak dituen zailtasunak. Profesionalak kasuan kasuko pertsonari egokitu behar zaizkie eta, gainera, unean uneko errealitateko bizipenekiko adi egon beharra daukate. Arreta horrek oinarritzak laguntza-eremua gaintitu beharko luke gizarte politikaren eraginean sakontzeko, malgutasunez, egungo errealitateari baliabide desegoki eta zaharkituekin ez erantzutearren.

Beste arazo bat dugu baliabideak ez zaizkiela pertsonari egokitzen. Badaude izpiritu libreak, gizarteratzearen eta instituzionalizazioaren bidean sartzen ez direnak. (Ekaineko tailerrak).

Gizarte baliabideez ari garela, aipatu beharrekoa da *Caritasek* egiten duten lana. Hiri osoaz aparte, Alde Zaharrean itzal handia dute *Caritasek*¹⁹ San Anton kalean eskaintzen duen zerbitzuak. Etorkin, emakume, adineko edo baztertuak dauden pertsonari eskaintzen diete zerbitzu hori.

Programa jakin batzuk Alde Zaharrean kokatzen dira. Hala, emakumeak eta familia, pertsonal, osasun edo ekonomia mailan baldintza txarretan dauden transexualak laguntzen dituzte *Betania* Zentroan, San Anton kalean. Bide berean, *Las Flores* Zentroak, Recoletas plazan, gizarte arazoren bat erakusten duten emakumeekin egiten du lan. Lan beraren erakusgarri, San Anton kalean Etorkinak Laguntzeko Programa garatzen da. Informazioa, orientazioa, etorkinek dituzten lege arazoentzako aholkularitza, etorkinentzako dokumentazioaren tramitazioa, lan-poltsa, formazioa eta ikasketetan laguntza eta; 6 eta 16 urte arteko etorkinentzako (eskolan atzenduta dabil-tzanak, hizkuntzarekin arazoak dituztenak ala zailtasun ekonomikoak dituztenak) etxeko laguntza indibiduala jorratzen ditu programa horrek.

Caritasek etxerik gabeko pertsonentzako programa bat du. Bertan, gizartea sentibilizatzea, etxea topatzen laguntzea, etab. lantzen dira. Alde Zaharreko bulegoetan koordinatzen dute eta gizarte laguntzarako beste programa publiko batzuekin lotuta dago. Gainera, *Caritasek* gizarte gai eta gizarte bazterketari buruzko liburutegia du San Anton kalean.

¹⁹ <http://www.caritaspamplona.org>

Alde Zaharrean komunitate baliabide publikoen eremuko beste hainbat elkarte ditugu. Horien artean, Salhaketa. Kartzelatik atera den jendearentzako gizarte integrazioa jorratzen du, besteak beste, harrerarako pisu batekin. Egoitza San Agustin 24 kalean dute.

Gutxiengo etnikoen alorrean *La Majari* Nafarroako Ijitoen Elkarte nabarmendu beharrean gaude. Egun bulego nagusiak Errotxapean dituzte, baina, duela gutxi arte Merced 18 kalean aurkitzen ziren eta, horregatik, auzoarekiko halako lotura mantentzen dute. Nafarroako ijitoen bizi-baldintzak babestea eta maila guztietan ijitoen kolektiboa zein kultura sustatzea dute helburu. Herri ijitoari zuzentzen zaio eta familia eta norbanako aholkularitza (maila guztietan: hezkuntzan, lanean, gizartean, lege aldetik, osasunean etab.), formazio ikastaroak, kirol jarduerak, eta lan munduan sartzeko programak (*Jus de la Rocha* eta *Navarrería* Kultura-etxeetan) lantzen dituzte. Diagnosian zehar egindako hainbat parte hartze dinamiketan elkarte horren eta auzoan gehiengoa den ijitoen sektore baten arteko urruntasuna ikusi ahal izan dugu. Era berean, elkarbizitza eragozten duten ageriko gatazkak daude eta horiek lantzea ezinbestekotzat dugu. Zentzu horretan, beharrezkoa da kolaborazio zein birtartekaritza guneak zehaztea kulturen arteko aberastea gerta dadin.

Gizarte, osasun eta kultura baliabideetan diharduten erakunde batzuk nabarmenduko ditugu oraingoan.

Etorkinen Elkarte Federazioa (*FAIN*)²⁰. San Gregorio 28n du egoitza. Administrazioaren aurrean etorkinen eskubideak defendatzea, gizarte integrazioa, eta etorkinen elkarte arteko harremanak sendotzea du helburu. Federazio honen barruan *APROE*, *ANICHILE*, *ASOCOLON*, Arabiar Bereber Kontseilua (*CABE*), Venezuelar Nafar Elkarte (*ASNAVEN*), Argentinar Nafar Zentroa, *Contigo Peru* eta *Virgen del Cisne* aurki daitezke beste batzuen artean.

Elkartasunaren Etxea-Zabaldi²¹. Navarrería 25en dago. Dokumentazio Zentrua, hitzaldi, erakusketa eta bilera gela ditu. Zabaldi talde ugarik osatzen dute: *Ixim Chiapasekin* Elkartasuna, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabe, Emakume Internazionalistak, *Aldea Alternativa Desarrollo*, *SOS Arrazakeria*, *Asociación Navarra de Amigos de la RASD* (Arabiar Saharar Errepublikako Demokratikoaren Nafarroako Lagunen Elkarte), *RCADE (Red Ciudadana de Abolición de la Deuda)*. Kolektibo eta plataforma gehiago ere bertaratzen dira: Gerren aurkako Batzordea, Hemen eta Munduan, *DENONTZAT* paper eta eskubideen plataforma; eta etorkinen kolektibok: *Asociación Cameruneses de Navarra y Amigos*, Cabe-Arabiar-Bereber Kontseilua. Gune horren helburua hau da: nazioarteko elkartasunean dihardute kolektibo eta GKEei topagune bat eskaintzea, gizarte sentsibilizazioa lantzea, ikerketari gune bat eskaintzea, kolaborazio eta elkartasuna, eztabaida zein mobilizazioa piztea, kultura artean era guztietako jarduerak antolatzea; eta herrialde desberdinetako emakumeen artean elkartasuna suspertzea.

²⁰ <http://www.fain-web.org>

²¹ <http://www.nodo50org/zabaldi>

4.4.2. Osasun baliabideak

Osasun laguntza Nafarroako Gobernuaren zeregina da, Osasunbidea Osasun Sailaren eskumena hain zuzen ere. Lehen Laguntza Alde Zaharreko Osasun Etxeak egiten du. Horretaz gain, etxe horretan aurkitzen dugu Osasun Mentaleko Zentrua ere. Zentrua Compañía 8n dago. Zentru biak eraikin berean dadude. Aitzitik, bi errealitate ezberdin dira, izan ere, bakoitzak bere antolaera du, bere zuzendaritza, eta instantzia ezberdinen menpe daude (Osasun Sarea eta Adimen Osasun Sarea hurrenez hurren).

Bestalde, Osasun Etxeak ere, beste zerbitzu batzuen laguntzarekin, sexu eraso (adigabekoentzat ere) eta tratu txarrentzako laguntza eskaintzen du. Senide Eskolaren parte da beste hainbat antolakunderekin batera: Aldezar, *San Francisco* eta *Dominiketako* Gurasoen Elkarte, Auzo Elkarte, HIESaren aurkako Batzordea, *La Majarí* eta Emakumentzako Laguntza Gunea. Hainbat arazo eta behar sozialen aurrean ekimenak lantzen dituzte, besteak beste, auzoan etorkinen populazioa haztearekin zerikusia dutenak. Bestetik, formazioa ere jorratzen dute kongresu, ikastaro; eta ekimenak zehaztu eta koordinatzeko lan taldeen bitartez.

Osasunari buruzko Topaketan eremu horri dagozkion hainbat gai atera ziren, populazio eta etxebizitza baldintzekin lotuta:

Laguntzarako presioa da lanerako zamarik handiena, eskaera handitu egin da zerbitzuen eskaintza zabaldu abala. Adibidez, erizaintza pertsonalean etxeetan baino lan zama handiagoa dago (Alde Zaharreko baldintzak direla medio), etxebizitzek ez dute igogailurik, jendeak ez du baliabide ekonomikorik, jende zabar aunitz dago eta etxean gelditzeko joera dute eta, borregatik, Osasun Etxeko pertsonalak etxez etxe ibili behar du. (Alde Zaharreko Osasunari buruzko Topaketak).

Osasun eremuan ere asistentzia, laguntzaz eta prebentzioaz hausnartu zen:

Osasun Etxeko profesionalek horrenbeste botika laguntza baino, prebentzioa lantzea nahi dute. Daukagun izena baino, Osasun Etxea, egokiagoa litzateke, Gaixotasun Etxea deitzea. (Alde Zaharreko Osasunari buruzko Topaketak).

Eraikin berean Adimen Osasun Zentroa dago. Bertan psikiatra, psikologo, terapeuta, erizain eta gizarte zein administrazio langileek osatutako lan-taldeak dihardu.

HIESaren aurkako herritarren Batzordea: Caldereria 16-behea-n aurki dezakegu. Zerbitzu ugari eskaintzen ditu: norbere laguntzarako taldeak, HIES probak, prebentzio kanpainak, hitzaldiak, ikastaro eta tailerrak, babes emozionalerako laguntza, aholkularitza juridikoa, informazioa eta prebentzioa, gizarte laguntza, arriskuak gutxitzeko programa, xiringak aldatu, preserbatiboak banatu, seropositiboak diren emakume haurdun edo haurra eduki nahi dutenei informazioa eta aholkularitza. Orokorrean, arriskuzko jokaera, eta dauden baliabideei eta prebentzio zein laguntzari buruzko era guztietako informazioa topa daiteke.

Ibarre Multzoa Zentroa. Joaquin Jarauta 24n dago. Egiarte Komunitate Terapeutikoa (Altsasu) kudeatzen du. Komunitate hori drogamenpekotasuna dutenei zuzentzen zaie. Gizarte integraziorako programa darama aurrera.

Gisa berean, osasun prebentzioa era integralean lantzen duten hainbat komunitate eragile nabarmenduko ditugu. Horrela, Aldezarrek, aisialdian osasunari bere lekua eskaintzen dio. Beste adibide bat Senide Eskolarena (lehen aipatu eragileak biltzen dituen kolektiboa) dugu. Une honetan hasiera-fasean aurkitzen dira, eskola hau osa dezaketen beste kolektiboei irekita.

Topaketa eta hausnarketa gunea eskaini sustatu nahi dugu., guraso bakoitzak laguntza gebiago izan dezan (...) ba hori, guraso bezala hobeto bizi eta haurrak hobeto bezi abal izatea. (Alde Zaharreko Osasunari buruzko Topaketak).

4.4.3. Urban egitasmoa eta gizarte zerbitzuak

Egitasmo horrek Alde Zaharra eta Errotxapeari eragiten dio eta NUPeko (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) INSONA ikerketa taldeak, Jesus Hernández buru zutela, eramán zuen 2000 urtean aurrera. Urban egitasmoaren baitan gizarte zerbitzuei dagokion hainbat aspektu lantzen dira.

El índice actual de exclusión social en la zona URBAN es elevado, concentrando dicha zona el 41, 94% de los hogares en exclusión social de la ciudad²². La elevación de este índice encuentra su explicación en la progresiva concentración de familias con bajas rentas en zonas donde se ha desvalorizado el entorno urbano y residencial. Esta dinámica se reproduce de generación en generación de forma que los índices de exclusión progresan si no se interrumpe la inercia del proceso. Las actuaciones de integración social y laboral, sobre todo en las generaciones jóvenes, resultan cruciales, además de la adopción de medidas profundas de revalorización del entorno. (Urban egitasmoa, 1998)

Egitasmoaren lehentasunezko 7 ardatzen barruan hainbat proiektu zehatz aurreikusten dira. Gizarte zerbitzuen alorrean ardatz zehatz bat zehazten da, 3.a, eta hiru gizarte ekintza bereizten dira:

- a) Etorkinentzako Laguntza Zentroa. Sortu berria eta Errotxapean du egoitza.
- b) Lehentasunezko 3.ardatza; baztertuak integratzea eta Oinarrizko Zerbitzuak lortzea (Gizarte Ekintza).
- c) 3.1. Neurria. Baztertu eta marjinauak gizarteratzeko hezkuntza planak, norbakoentzako formazioa, hizkuntzak ikasteko formazioa. Oro har gutxiengoei zuzentzen zaio.

Etorkinentzako laguntza zerbitzua. 2005ean ireki zen. Neurri honekin etorkinentzako harrera gune bat eratu nahi da. Harrera eta bitartekaritza zerbitzuak: lehen laguntza, informazioa, orientazioa eta bideratzea; aholkularitza juridikoa; kultura eta

²² 1998ko datuak.



hizkuntza egokitzapenerako programak; Interneteko datu-baseetarako sarbidea eta kulturen arteko bitartekaritza zerbitzuak izango lituzke bere gain.

Kulturen arteko bitartekaritzari dagokionez, interesgarria da nola esku hartzen duen errumaniar bat eta bertako baten arteko gatazkan, edo perutar bat eta ekuadortar batean artean, baina ez aldiz, bi ekuadortarren artean, esaterako, pisu baten alokairua ordaintzerakoan. (PE8)

3.3. Neurria. Osasun (drogamenpekotasuna gainditzeko zentroak barne) eta hezkuntza zerbitzuetan inbertsioak bertako garapena eta enpleguarentzako eskala egokian.

Adinekoentzako eta euren zaintzaileentzako gizarte laguntza eta birgaitze Zentroa.

Lokala lortu dute eta zentroari egokitzea eta funtzionamenduan jartzea falta zaio. Gauetarako 20 plaza aurreikusten dira adinekoentzat. Adinekoentzat era berean, prebentzio eta estimulazio programak, familientzako babes eta orientazio programak, eta 3. adinekoentzako osasun baliabideak aurreikusten dira. Honako helburuak ditu zentroak: adinekoek euren gizarte eta familia ingurunean jarraitzea eta familia-ko zaintzailei lagunduko dien Zentroa abiaraztea, adinekoak ez daitezen euren inguruetik deserrotu.

Iragartzen zenez, Zentroa 2005ean hasiko zen lanean, baina, oraino ez da hasi. Berretsi egiten dugu, Alde Zaharrak izatez duen bereizgarrietako bat duen adinekoen kopuru handia da eta, esan dugunez, adineko asko gaur egun bakarrik bizi dira edo, bestela, etxetik ateratzeko arazoekin dabilta etxebizitzan baldintzak direla eta. Zentzu horretan, 20 plaza gutxi xamar dira, eta beste alde batetik, Zentroa Errotxapean egoteak hamaika eragozpen suposa diezaioke Alde Zaharrean bizi den hainbati. Eragozpen horien arrazoia adibidez, Alde Zaharretik Errotxapearako mugikortasun arazo izan daiteke. Errotxapea urbanizatu berri duten honetan, neurri horrek Errotxapearen bizi-baldintzei onura ekar diezaiokeenik ezin uka, baina, zalantzagarria da oso onura hori Alde Zaharraren kasuan, auzoak duen adineko portzentajea esanguratsua kontuan hartuta gainera. Horrekin guztiarekin ez dugu inondik inora Errotxapeari onuragarri zaiona kritikatu nahi, zerbitzu horiek Alde Zaharrean ere beharrezko direla agertarazi baizik.

Ikus daitekeenez, neurriak orokorrean aipatzen baditu ere, ez da drogamenpekotasuna gainditzeko zentroen inguruko ekintza berezirik aurreikusten.

d) 3.4. Neurria. Abian jartzen diren ekimenen eraginkortasuna bermatzeko babes, informazio, sentsibilizazio eta orientazioa egiturak sortu ala mantentzea.

Elkarteen Guneak irekita eta funtzionamenduan jarraitzen du 2004ko Irailetik. Asmoa Urban eremuko GKEentzako formazioa eta aholkularitza gune bat sortzea zen, horrela, GKEek gizarte integrazioarako egitasmoak sustatu eta kudeatzeko. Guneak aholkularitza juridikoa, aholkularitza fiskal eta finantzieroa, baliabide materialen kudeaketa eta planifikazioa, fotokopiagailua, eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu.

Guneko iturrien zein 2005eko apirilko *Urbanaren* jarraipen txostenaren arabera, Elkarteen Guneak 100 elkarte baino gehiagoren eskaera izan du bertako baliabideak erabiltzeko (bilera-gelak, ordenagailuen erabilera, aholkularitza juridikoa...). Guneari buruz, uste dugu aukera galdua izan dela, zeren eta elkarteen beraien kudeaketa zuzenaren bidez elkarteen inplikazioa eta harremana bilatu beharrean, enpresa baten esku utzi da kudeaketa (*SEDENA*).

Urban Planari erreferentzia eginez, planaren arabera gizarte bazterketa jasaten duten hiri osoko etxeetatik, %41,94 Urban eremuan kokatzen da. Datu horren arabera, Gizarte ekintzarako 3. ardatzak garrantzia handiagoa izan beharko luke, anbizio handiagoko egitasmoak bultzatzeko inbertsio gehiagorekin, esaterako, adinekoen arazoarentzat, Auzo Unitateak eta bertako zerbitzua sendotzeko, etxerik gabekoei laguntzeko, alkohola edota beste substantziekin arazoak dituztenei laguntzeko, eta bazterketa sozialarekin zerikusia duten gaitz mentalak dituztenentzat. (PE8)

4.4.4. Nola ikusten du jendeak?

Eztabaida taldeetatik, elkarrizketetatik eta eduki ditugun harreman informaletatik (profesionalekin, gizarte eta osasun baliabideen erabiltzaileekin) informazioa jaso dugu. Oraingoan bildutako ikuspegiak laburtzen saiatuko gara.

Lehen gizarte laguntzan atzerapen gehitxo dagoela antzematen dute. Lan bolumen handia dago eta larrialdiko egoerei erantzuteko nekez aritzen omen dira.

Bestalde osasun eta gizarte zerbitzuen artean koordinazio falta dagoela deritzote eta, are koordinazio gutxiago omen dago osasun mental sarearekin:

Alde Zabarrak zailtasunak ditu, hiriaren erdigunean izaki, ibiltariak eta etxerik gabekoak bertan biltzen direlako. Kolektibo horientzat dauden laguntza urriak Alde Zabarreko eta Hedaguneko Auzo Unitateetan biltzen dira. (PE6)

Adimen Osasun eremua gainerako baliabideekin koordinaziorik gabe aurkitzen omen da. Hirugarren adinekoen barruan, alkohola edo bestelako substantzien kontsumitzaileen kasuan edo, etxerik gabekoenean gero eta osasun mentaleko kasu gehiago agertzen ari dira. Aitzitik, gizarte zerbitzuetako profesional askoren ustez izugarritzko gabezia dago osasun mentaleko zerbitzuan, eta horretarako, gainerako osasun eta gizarte baliabideekin koordinatu beharko luke. Gisa berean, eremu horretan hitzordua zehazterakoan malgutasun falta dagoelako ustea dute: larrialdiko kasuek ez dute tratamendu propiorik, eta hitzordutik hitzordura tarte luzea denean ez dago gaixoak ahaztu edo joan nahi ez izatearen kezkarik.

Etxebizitza faltarekin edo alkohola zein beste substantzien kontsumoarekin loturiko gaitz mental kasuetarako baliabide egokien eskasia dagoela uste zabaldua da hemen. Sarritan pertsona dualak, arazo mental eta kontsumozkoak dituztenak, etxerik gabekoak, gaur egungo baliabideek ezin erantzun dituzten arazoekin aurkitzen dira. Batzuetan, laguntza hori botikak ematera mugatzen da, bainbatetan batere kontrolrik gabe, eta ez da arraroa tratamenduaren oinarri diren diagnosiak 5 urte-tik gora izatea. Osasun mentaleko zein gizarte zerbitzuetako jarduerak afektatuek



egun batetik besterako beharrak balituzte bezala jokatzeko dute, balere, errealitateak erakusten digu iraupen luzeak izaten dituztela, aldaketarako aukera gutxiak. (PE8)

Osasun mentaleko afera handia dago hirugarren adinekoen eta alkohol gehiegi hartzen duten gizonen artean, eta tentuz ibili behar da bakarrik dauden adinekoen eta gazteekin ere. (PE6)

Auzo Unitatean dabilen langileak aldatzen ibiltzeari buruzko iritzia txarra dago. Izan ere, lehen zebiltzanei buruzko uste ona dago eta, bestalde, erabiltzaileak behin eta berriz bere egoera kontatzen ez ibiltzea edo lortutako harreman ona mantentzea onesten dute. Behin behinekotasunaren kritika hori ere zabaldua da profesionalen artean:

Hemen 4 gizarte langile gara; programa orokorrean ari garen hiru behin behinekoak gara (gaur egun, egin berri diren aldaketengatik hiruetatik bat da behin behinekoa), administraria behin behinekoa da, adinekoekin dabilen gizarte langilea finkoa da eta, familia langileak behin behinekoak. (PE 6)

Baliabide gehiagorekin laguntza hobea eman liteken arren, gizarte laguntza lan gorrak dela, baina, betetzen zaituena dela deritzote:

Lan honek betetzen zaitu eta gustatzen zaigu, baina, baliabideen aldetik desoreka handia dago, SADen baliabide pila dago eta ondo lan egin daiteke, baina, lan orokorrean (etxebizitza, gai ekonomikoak, etab.) eskaeren aurrean ezin iritsi gabiltza. (PE6)

Osasun Etxean ematen den lehen laguntzari egoki irizten zaio, hitzorduaren azkartasuna eta laguntza berari dagokionez behinik behin. Guraso batzuek esan dutenez, etorkinak etorri ahala pediatrian bezero askotxo pilatu da, eta horregatik, beste profesional bat beharko litzateke laguntza eta hitzorduen azkartasuna hobetze aldera.

Egiten diren proposamenek gizarte eta osasun laguntza erlazionatzeko beharra erakusten dute, horrela, ildo orokorrari zein kasu konkretuei begira, informazioa eta jarduerak partekatzeko beharra ageri da.

Balitzeko koordinazio eremu horretara ere elkarrekin eta gizarte eragileak gehitzea ondo ikusten da. Gai askotan mesede egingo lioke, besteak beste, alkohol kontsumoa, gazteen drogak, aisialdi ereduak, osasun eta gizarte baliabideak komunitate lanaren bidez sendotzeko, etab.

Iruñean Gizarte Larrialdietarako Zentroa sortzea ere proposatzen da. Horren helburua informazioa zentralizatzea eta, oinarriko gizarte zerbitzuen eta gizarte baliabide publikoen (enplegua, formakuntza...) arteko koordinazioan sakontzea litzateke. Proposamen horrek Alde Zaharra ez ezik, Iruñea osoa bustiko luke.

Proposamen gehiagoren artean, Auzo Unitatean zerbitzuak gehitzearena dugu beste bat eta, horretarako, langile gehiago ipini eta zerbitzua arratsaldera luzatzearen komenigarritasuna azaldu da. Hitzorduak zehazteko arinago ibili behar litzatekeela kritikatzeko da. Bestalde, eskaera hauxe egiten da: zerbitzuan lan egiten dutenek lanaren finkotasuna ziurtaturik edukitzea.

Biztanleriaren banaketa eta bizi-baldintzei dagozkien auzoko ezaugarriak kontuan hartuz, garrantzitsu irizten zaio osasun eta gizarte baliabideak auzoko biztanle-taldeei egokitzeari. Gisa berean, figura profesional berriak sortzea beharrezko omen da, horrela, kaleko zein etxez etxeko laguntza hobetuko bailitzateke. Hitzorduekin malgutasun handiagoa eta kasuak detektatzerakoan herritarrak inplikatzeari ere aurrerapauso omen litzateke. Eta lehen aipatu baliabideek (gizarte, osasun eta auzokideak) euren arteko erlazioa sendotuko balute aurrerapauso are esanguratsuagoak emango lirateke prebentzioa, antzemate eta esku-hartze mailan.

Proposamena orain arte Auzo Unitatea, Osasun Etxea, Osasun Mental Zentroa eta auzoko elkarteak bustitzen dituen auzo mailako proposamena izan arren, hiri maila edo herrialde mailako zerbitzuei ere aplikatu dakieke. Zentzu horretan, oraindik Nafar Gobernuak ebaluatzen ari den *Plan de Lucha contra la Exclusión Social en Navarra (1998-2005)* ekarri nahi genuke gogora. Plan hori bera ari da Nafarroako Bazterketaren eta Pobreziaren aurkako Sarea ebaluatzen eta bere ondorioak 2006ko otsailean aurkeztuko ditu. Osasun eta Gizarte baliabideen funtzionamenduari testu horretatik bertatik, egingo diren ebaluazioetatik, eta etorkizuneko Plan batetik heldu behar zaie.

5. Egitura urbanoa, ekipamenduak eta garapen ekonomikoa

5.1. Egitura urbanoa eta pertsona edo ibilgailuen mugikortasuna

Hirigintzaren ikuspuntutik, Alde Zaharraren egitura Erdi Aroko zatiketa eta gotorleku izaerari zor zaio.

1920an harresiak eraitsi eta II. Hedagunea eraiki bazen ere, biztanleen zatirik handiena Alde Zaharrean bizi zen. *PEPRIn* esaten den bezala:

*La condición de ciudad intramuros vino a imponer a la ciudad un crecimiento interior, tanto vertical como horizontal de la edificación, que fue agotando progresivamente el espacio disponible sin resolver satisfactoriamente las necesidades de la población.*²³

Eraikuntza gehiena erdi aroan zehaztu sailen gainean egiten da eta eraikin gehientsuenak XIX. mendekoak dira. Beste eraikin batzuk egon ziren orubeen gainean eraiki izan da. Horregatik Alde Zaharra gune trinkoa da, lehentxeago aipatu hiru burgoen sailkapenari erantzuten diona eta hiru burgootan zegoen bide-sistema mantentzen duena.

Bi fenomeno ezberdin gertatu izan dira. Batetik, eraikinen barruko patioak betetzen joan dira eta burgoen artean geratzen ziren espazio libreak okupatzen joan dira. Gaztelu plazak izan ezik, Erdi Aroan sortutako plazek ez zioten proiekturen bati erantzuten, baizik eta kaleen arteko hutsuneari edo bidegurutzeei. San Francisco, Virgen de la O, Santa María la Real behialako kartzela eta hiltegia edo La Merced konbentua eraistearen ondorioz sortuak dira (lehen hiriaren periferian zeuden).

5.1.1. Sarbidea

Auzoa Arga ibaiaren gaineko meseta batean kokatzeak defentsa arrazoiak izan zituen. Gaur egun oster, arazoak sortzen ditu horrek sarbidearen ikuspegitik. Iparaldeko magala, Portal Nuevo-tik Labrit-eko jaitsiera arte, ibai ondoan dagoen harresi batek osatzen du eta soilik bi sarrera ditu: Santo Domingo aldapa eta Zumalakarregi Atea.

²³ "PEPRI" Memoria. 2001eko ekaina.

Harresi horren aldameneko kaleek *zakuaren bondoko efektua* delakoa pairatzen dute. Auzoko gainerako lekuekin lotura gutxi dituen zonaldea denez, zirkulazio gutxi dago bertan. Horrek jarduera ekonomikoaren gainbehera ekarri du (etxabe itxiak, pertsona eta ibilgailu gutxi zirkulatzen...) eta bizitoki bihurtu du soilik. Horri ere, zonalde hau eraberritzeko dagoen atzerapena gehitu behar diogu (Eslava, Jarauta eta Descalzos kaleak). Horrek guztiak zonaldea abandonatuta egotearen sentsazioa sortzen du.

Urban egitasmoaren baitan kale horien eta Errotxapearen arteko lotura programa bat ari dira aurrera ateratzen: harresian igogailu bat jarri Descalzos eta ibaiaren arteko distantzia arintzeko. Jendeak badu proiektu horren berri, baina, ez daki nola gauzatuko den.

Alde Zaharrerako sarbideen gaiak kotxeen mugikortasun arazoarekin, garraio publiko eta oinezkoentzako bideekin zerikusia du.

Kotxeekin dugun arazoa zera da: antzinako biriaren egitura, bere kale estu eta espazio murriztekin; gure kotxea edukitzeko, lasai gidatzeko eta mantentzeko kulturarekin kontrajartzen da. (ET5)

5.1.2 Ibilgailuen mugikortasuna

Erdi Aroko egiturak batetik, eta 1996an hasitako oinezkoen bideek bestetik, autoen mugikortasuna eragozten dute. Halere, dagoen arazorik handiena auzokideentzako aparkamendu faltarena da.

Dauden aparkamendu plazak ez dira aski. Zailtasun horrek ez dio auzokideei soilik eragiten, merkatariek ere euren bezeroentzako aparkalekuak behar dituzte. Oinezkoen bideak ugaritzeak aparkamendu plazak mugatzen ditu eta ez dira konponbide errealak ageri aipatu bi kolektiboentzako. Gainera, etxe zein merkatuetan arazoak sortzen dira kargatze eta deskargatzeko ordutegiak mugatzeagatik.

Sistemaren baten bidez atsegina izan dadila Alde Zabarra, etxean edozer deskargatzera sartzea edo maletarekin irtetea. (ET1)

Alde Zaharrera kotxez sartzeko ezintasunak merkataritzaren garapena galarazten omen du bi mailatan. Lehen mailan kargatze eta deskargatze arazoak. Bigarren mailan bezeroek kotxez ezin sartua, horrek periferiako merkatal gunetara bideratzen ditu.

Horregatik dira baina beharrezkoak auzo-aparkalekuak barruan, eta mistoak (auzokideak eta kanpokoak) auzoaren periferian. (ET3)

Aparkalekuaren arazoa konpontzeko proposamenek bi alde dituzte. Alde batetik, auzokideak leudeke, beraiek aparkatu ahal izatea, periferian gehiegi kontzentratu gabe, auzo aparkalekuak eraikiz, eta prezio baxuko garaje plazak alokatuz Alde Zaharrera behin behinean etortzen direnentzako.

Udal txit agurgarri honek belodromo eta patinajerako katxarro bat egin zuen hor. Lekua baina merke izanik, hori egin ordez, izugarrizko aparkalekua egin zezakeen,

primerakoa, kotxeek Alde Zaharrerako sarrerekin, eta nabi duzun leku guztietarako irteerarekin. (ET2)

...noski, pertsona bat bona bi edo biru urterako bizitzera etorriko balitz, aparkamenduren batean alokairuzko plazak irekia bebarko luke... (ET1)

Beste alde batetik, aisialdian Alde Zaharrera etortzen direnentzat ere konponbideak beharrezkoak dira. Bi ikuspegi tartekatzen dira hemen: indibiduala, kotxe pribatua dutenena eta bestetik, garraio publikoa sustatzea. Horrela, merkataritzaren ikuspuntutik auzokideentzako aparkalekuak barruan, eta mistoak periferian eraikitzea proposatzen da. Horri lotuta, autobus geltokiak auzora hurbiltzea proposatzen da.

...Kotxeen sarbidea bai, baina, gehiegikeriarik gabe, garraio publikoa eta oinezkoak ere hor daude. Horregatik dira beharrezkoak auzokideentzako aparkalekuak barruan eta mistoak Alde Zabarraren periferian. (PE3)

Goraxeago aipatu dugun bezala, kargatze eta deskargatze aldiek arazoak eragiten dizkiete auzokide eta merkatariei. Bestalde, operazio hauek egiteko ordutegiak bereziki arriskutsuak dira agure eta haurrentzat. Horretaz aurrerago hitz egingo dugu, orain etxerako edo merkaturako sarrerak nola hobetu izango dugu hizpide.

Arazo hori konpontzeko proposamenek hamaika eztabaida sortu dute. Eragile batzuek gorensten dutenez, beste hiri batzuetan sartzeko txartelen bidez funtzionatzen dute eta, ondorioz, neurri bereko konponbidea planteatzen diote auzoari. Edonola ere, gai horretan, ezinbestekoa litzateke beste hirietako eredu eta alternatibak analizatzea.

Urrutira joan gabe Lizarran txartela daukate, botoitxoari eman eta jaitsi egiten da, pasatzen zara, badakizu ezin duzula 20 minutu baino gehiago egon. Bestela, ez dizu irekitzen eta polizia etortzen zaizu. (ET6)

Garraio publikoari gutxitxo irizten zaio. Taxiak praktikan ez du auzoan funtzionatzen eta horrek ezinduak dauden pertsonak auzoaren iskinean gelditzera behartzen ditu. Horrek adinekoei eragiten die bereziki.

Zer gertatzen da Iruñeko taxiarekin? Taxiek ez dute Alde Zabarrean sartu nabi zeren esaten dute lurtean dauden `policias tumbados' puskatzen dituztela. Nik, adibidez, egunero taxia hartzen 6 hilabete egin ditut eta Gaztelu plazara ez dute etorri nabi, enbarazu egiten dielako. (ET6)

Hiriko autobusaren kasuan, *la villavesa*, 6. ibilbidea desagertu egin dela salatzen da. Ibilbide horretan Santo Domingotik, Gaztelu Plaza zeharkatuz, Carlos III. erako bidea egiten zen. 14. ibilbidea aurreko ibilbidearen galera leuntzeko irtenbide gisa ikusten da. Kasu hau Alde Zaharrean garraio publikoari ematen zaion garrantziaren erakusgarri da.

-Merkatua dezente izorratu zuten 6. ibilbidea kendu zutenean. Santo Domingotik igo eta Udaletxetik pasatzen zen, jende pila igo obi zen Errotxapean merkatuan erosketak egiteko. Orduan, ibilbidea kendu, Errotxapea hazi, eta merkatal guneak sortzearen poderioz denak gainbehera egin zuen, ezta? Gero 14. bori jarri zuten, merkatua eraberritu zuten eta, orain, ba balako giroa nabari da. Duela gutxi goiz batean ban izan nintzen eta jende gehiago zegoela nabari zen. (ET5)

Geltokien kokalekuak, ordutegiek eta auzoan barne komunikazioen gabeziak dira garraio publikoari lotutako hutsune garrantzitsuenak.

Alde Zaharrean hiriko autobusen 14. eta 20. ibilbideek dute geltokia. Ibilbide hauek eskualdeko zonalde guztiekin dute lotura hegoaldekoekin *Mutilva* eta ekialdekoekin (Gorraiz-Sarriguren) izan ezik.

Alde Zaharretik Mendillorri eta Soto Lezkairura, edo Burlata eta Atarrabia herrietara joateko, lehenik beste auzoren batera joan beharra daukate auzokideek, izan ere, leku horietako autobusek etortzeko norabidean harrapatzen baitute Alde Zaharreko bizilaguna.

Autobus geltokiak:

Sarasate pasealekua. Zortzi ibilbide. Horietatik batek irteera eta helmuga bertan ditu, seik duten geltoki bakarra Alde Zaharrean dute, eta 3. ibilbidea, lau aldiz gelditzen da, joan-etorrian, Alde Zaharrean.

Nafarroako Gorteak. Bost ibilbide. Horietatik batek irteera eta helmuga bertan ditu. Hiru bertan gelditzen dira joanekoan eta Labrit kalean etortzekoan. Bosgarren autobusa 3. ibilbidea da.

San Lorenzo. Bi ibilbide, 3.a eta 16.a. Bi norabideetan bertan gelditzen dira.

Merkatu Plaza/Udaletxea. Ibilbide bakarra.

Proposamenek, geltokiak Alde Zaharrera hurbilduz, hiriarekiko harremana estutzea dute helburu. Garraio publikoaren aldeko apustu irmoak ere zera suposatzen du: kotxe pribatuarekiko menpekotasuna gutxitzea (bereziki sektore premiadunei begira), eta mugikortasun iraunkorraren alde jokatzeko. Geltokiak gerturatzeak gainera, ibilbidearen bi noranzkotan dakar onura.

...baina, beste aldetik, esan duzuna indartzen ari zara ba...biri-inguruetakoa guneak, ezta? "Moreas, Leclercres" eta hori guztia eta sarbide errepedeek ez dakit zenbat balioko duten, baina, ez dirudi inolako arazorik dagoenik, izugarritzko arazoak daude gerturatzeko, eh, beno, autobus geltoki bat Alde Zaharretik hurbilago, Alde Zaharrari bizi gehiago emateko... (ET8)

5.1.3. Pertsonen mugikortasuna

Aurreko ataletan aipatu dugun bezalaxe, Alde Zaharrak duen izaera bikoitz horrek (auzokoa eta hiri osokoa) pertsonen mugikortasunean ere badu islarik: auzoan bertan ibiltzen diren bizilagunak eta hiritik hona etortzen direnak.

Auzokideei lotuta, mugikortasunak eguneroko gauzak egiteko erraztasunarekin du zerikusia. Era horretan, lehen erreferentziak kalera jaitsi ala kalez kale ibili ezin duten adinekoei buruzkoak dira. Zailtasun horiek are astunago bihurtzen dituzte obrek, eta goizez, kargatze eta deskargatze lanek.

Oinezkoentzako bideak jartzeak, berau kaleak eraldatu dituen prozesua izanik, oinezkoak nagusitzen ditu kotxeen aurrean. Alde Zaharreko kaleak eraberritzeak lurrazpian zerbitzu galeria bat eraikitzea barne hartzen du. Lan hori egiteko puntelagailu bat eta hondeatzaile bat dabiltza lurra husten. Beraz, obrak, kaleak nola eraberritu diren, eta eraberritzeke daudenak ditugu ohiko erreferentziak.

Ondoko taulan oinezkoentzako kaleak jartzeari eta obrei buruzko kronologia jasotzen da:

10. taula: Iruñeko Alde Zaharreko kaleetako eraberritzearen kronologia

Urtea	Kaleak
1996-97	Chapitela, Mercaderes, Calceteros eta Udal plaza
1997-98	Estafeta
1998-99	Comedias, Zapateria (S. Anton arte) eta Pozoblanco
1999-00	San Saturnino eta Nagusia
2003-04	Compañía, Merced, Bajada Javier, Dormitalería
2005-07	San Nicolas, Lindatxikia, San Gregorio, San Miguel, San Antón, Nueva eta Descalzos

Iturria: Egileek sortua (2006)

Kaleen eraberritze hurrenkerak Alde Zaharrean jada baziren kale eta zonaldeen arteko desberdintasunak sakondu ditu. Presazko esku-hartzea behar zuten kaleak oraino itxaroten daude. Horrek gainera, obrek desbideratzen duten trafikoa kale baztertuotara ekarri du. Hori da Jarauta eta Eslava-ren kasua, horietan, “zakuaren hondoa efektua”ri ibilgailuen eragina gehitu behar diogu, hori bai, bertako espaloi eta zolak eraberritu gabe. Nabarreriak ere antzeko egoera bizi du. Halere, Nabarreriarene kasua ezberdina da; oinezkoentzako bidea jartzeko moduen arabera eztabaida (sakonean zerbitzuen galeriarekin ala azaleran bakarrik) tarteko. Azaleko lan horrek denbora gutxiago suposatuko luke obretan, eta ondorioz, enbarazu gutxiago egingo lieke auzokideei eta bertako negozioei. Horretaz gain, ez lioke dagoen arkeologi ondareari kalterik egingo. Orokorrean beraz, gero eta beharrezkoagoa da aipatu kaletan eraberritze-lanak egitea.

-adibidez, Descalzos, Jarauta... berez kale marjinalak badira, ba gainera, oinezkoentzako bidea jarri zaien azkenekoak dira. Eta bigarren mailako kaleak baziren horrek oraindik beberago eraman ditu, izan ere, ba ni Kale Nagusian bizi naizela ba oso pozik nago oinezkoentzat jarri dutelako, baina, arazoa beste batzuen bizkar gainera pasa da, hor dago Jarauta. (ET1)

Oinezkoentzako bideak jarri izanak adinekoengan sortu ditu, batez ere, nekeak eta zailtasunak. Arazo bat obrena da eta zeinen geldo doazen, gainera. Baina, arazo nagusia oraindik batere egokitu ez diren eta oinezkoentzat jarri ez dituzten kaleen egoera txarrean dago, edo ezinduentzako egokitu gabe daudenetan: karranparik gabe, espaloi estuekin eta zuloz jositakoekin.

Eta nik zer dakit, ba ez zaizkidala espaloiak gustatzen, ikaragarri estuak dira, zuloz beterik daude. (ET3)

... beno, orain sartzeko zaila da, baina(...) gero ongi geratuko da, nire lagun batek (...) esaten du adinekoak ez direla inoiz espaloitik joaten eta hori, igotzea eta jais-tea kostatu egiten zaielako da, orduan, aulkiren batekin norbait gurutzatzen bazaie ba bertan geratzen dira baiek ezin dutelako mugitu, batzuek zailtasunekin da-biltzalako. (ET8)

Eraberritze lanen inguruko azken oharra eginez zera esan beharrean gaude, eraberritze lanetan material kaxkarra erabili dela, eta hori nabarmena da espaloia segituan pitzatzen hasia baita.

-Oinezkoena ez dira ongi egiten ari ez estetikoki, eta pentsa, baldosak hausten hasiak dira, eta harlausak. (ET1)

Proposamenek eraberritu gabeko guneetan eragiteko beharraren lehentasuna nabarmentzen dute, eta bien bitartean, bi helbururekin espaloiak konpontzea proposatzen dute: auzoan mugikortasun gutxi dutenei mesede egitea eta auzoaren irudia hobetzea.

11. taula: Pertsonen sarrerak Iruñeko Alde Zaharreko hainbat kaletatik

Jendea biltzen den gunea	Asteko batz besteko	Urteko batz bestekoa
San Miguel kalea	44.207	1.860.474
Comedias kalea	43.218	1.835.156
Kale Nagusia	33.983	1.305.486
Estafeta kalea	29.807	1.251.894
Gaztelu plaza	23.872	1.002.624
Santo Domingo kalea	14.942	627.564
Calle Nueva	7.640	320.880
Orotara	194.859	8.184.078

Iturria: Alde Zaharreko Merkatarien Elkartea²⁴

Hiriko beste lekuetatik datorren jendea Hedagunetik eta Navas de Tolosa kaletik dator nagusiki. Sarrera hauek oinezkoak dira eta lotura ona dute garraio publikoarekin. Eraberritutako kaleak ala ibilgailuen sarrera murriztuta duteneak ditugu. Taulan agertu diren kaletatik bik dute egun aparkalekua (Santo Domingok zonalde urdina eta Gaztelu Plazak aparkalekua) eta bakarra dago ibilbide osoan trafikoari irekita (Kale Berria).

Jende gehien biltzen duten kaleak autobus geltokia hurbilago dutenak ditugu: lehen biak Sarasate pasealekuraino heltzen dira eta autobusak heltzen diren zona mugatzen dute. Hirugarrenak Iruñeko iparraldeko periferiako autobusekin eta Donibane

²⁴ "Casco Antiguo. El corazón de Pamplona". Hauteskundeetarako ale berezia. 2003ko maiatza.

auzotik oinez etortzeko sarrerarekin bat egiten du. Estafeta kalea eta Gaztelu Plaza Duque de Ahumadatik datorrenarentzako sarrera dira (bertan ere 2003a arte, orain Nafar Gortean gelditzen diren autobus asko gelditzen ziren).

50.hamarkadan eraiki zen Portal Berria Iparraldeko auzunearen eta Takonera plaza-ren arteko oinezko sarrera da.

5.1.4. Oinezkoen eta autoen arteko barremana: Alde Zabarreko trafikoa.

- Alde Zabarreko trafikoa dagoenik eta desastre handiena da. Udaltzainek kotxeren bat espaloi gainean ikusten badute gora begiratzeko ea usoak pasatzen diren, "joder", zure biloba kotxetxoan eramaten bazoaz: aparkatu duen furgoneta espaloian, jaitsi eta bideko kotxeak bozina jo eta ziztuan pasatzen da zure aldamenetik ia zu barrapatuta. Udaltzainek ez dizute jaramonik egiten. Ni nekatuta nago poliziari telefonoz hots egiteaz. (ET6)

Aipamen horrekin autoek eta oinezkoek duten ikuspegia laburbiltzen da. Hori bai ñabardura bat beharrezkoa da: desberdintasun itzela dago oinezkoentzako kaleen eta trafikoa duten kaleen artean, auzoko trafiko guztia kale gutxi batzuetan metatzen baita.

Alde Zaharreko trafikoa burgo bakoitzeko zirkuitu itxietan antolatua da, hau da, eguneko une jakinetan salbu, burgo batetik bestera joateko Alde Zaharretik irten eta sartu behar da. Burgo bakoitzean trafiko guztiaren zama daramaten kaleak daude.

Oinezko kaleetan, lehen esan bezala, arazorik handiena kargatze-deskargatzearena da. Goizeko orduetan zehar oinezkoen eta ibilgailuen arteko harremana gatazkatsua izan ohi da, eta oinezkoentzat arriskutsua (espaloi estuek eta udaltzainik apenas egoiteak arazoa areagotzen dute).

-Bai, orain espaloia badagoelako, baina, egiten dituztenean arazoak sortzen dira, batez ere goizean.

-Bai oso deserosoa da

-Kaosa da, kaosa.

-Estafeta kalea adibidez, nik ezagutzen dudalako...

-Txapitela ere kaosa da

-Txapitela...

-Txapitela zabala da

-Txapitela zabala da, txikia baina zabala, baina zoaz Estafetara edo zera...

-Estafeta da...

-Eta kale nagusia ondo dago, baina, goizaldean ere kaosa da kargatze-deskargatze-agatik,

-Zeure burua arriskuan jartzen duzu gainera...


-Kristona da.

-Kriston kaosa da. (ET8)

Egoera horri aurre egiteko ez dirudi proposamenik dagoenik. Espaloiak edo beste ezin babeserako barrerak abantailak ekartzen dituzte, baina, baita mugikortasun gutxikoentzako arazoak ere. Eztabaida puri-purian dago, aipatu elementuak gehitzeak kalteak ere eragiten dituzten aldetik.

Oinezkoentzako ez diren kaleen kasuan egoera hagitz desberdinak sortu ohi dira. Ibilgailuek ez dute oinezkoen berezko espazioa errespetatzen, fatxadeti kalte egiten diete eta giro zaratatsua sortzen dute. Fatxadetako kalteak nagusiki zorrotenen haus-turak izan ohi dira. Kale estuek, kotxe aparkatuek edo andamioek suposatzen duten oztopoek banaketan datozen autoak fatxadetara gehitxo hurbilarazten dituzte, eta horrela, sortzen dira sarritan aipatu kalteak. Hiri batean sortzen den zarataren zati-rik handiena trafikoak eragiten du. Trafikoa kale batzuetan pilatzen bada kale horie-tako zarata biderkatzen du. Udalak eskatu zuen zaratari buruzko mapan argi ikusten da trafiko gehien duten kaleek eta zarata gehien dutenek bat egiten dutela.

2. mapa: Iruñeko Alde Zaharreko zarata maila



Iturria: Iruñeko Udala (2003)

Ibilgailuen zarataz gain, konpondu litezken beste batzuk ere ageri dira: zabor ka-mioienak, obrek eragindakoak, kanpakiak eta gaueko zein aisialdiko zaratak. Gai hori “Aisialdi eta topaketarako guneak” atalean landu da.

5.2. *Etxebizitzen baldintzak eta eskuragarritasuna*

Etxebizitzaren gai zabalak alde tekniko eta urbanistikoa gainditzen du. Duen alderdi soziala funtsezko elementua da auzoaren eta pertsonen garapenerako. Auzoko bizi kalitateak eta auzoa berpizteak etxebizitzarekin ezinbesteko lotura dutelako iritzia dago. Etxebizitza eduki eta hura edukitzeko jartzen diren baldintzen inguruko eztabaida zabala da oso. Baldintzak zailtzen badira, orduan, jendeak auzotik irten beste erremediorik ez du. Horregatik guztiagatik, etxebizitzaren egoera, baldintzak eta martxan jarri beharreko ekimenak lehentasun osoko gaiak ditugu.

Urte askotan zehar, auzora etortzen zen biztanleriak alde egiten zuen seme-alabaren bat eduki orduko. Fenomeno hau, oraindik ere ematen bada ere, gutxituz joan da. Leku aldaketa horren arrazoiak, besteak beste, igogailurik gabeko etxeek suposatzen duten erosotasun falta, pisuek oro har duten tamaina txikia, pisuen banaketa, eta abar dira. Beste hainbat aspekturekin ere badu zerikusirik: aisialdirako guneen falta edo baita hezkuntza baliabideen faltarekin ere. Beste alde batetik, etxebizitzak birgaitzeko politikak arrunt beharrezkoak dira, fatxadak txukunduz zein barrualdeak atonduz, etxebizitza hutsak alokairu ala erosketarako pronto jartzeko.

Arazo gorria da jende askori mugak jartzen dizkiolako Alde Zabarrean bizi nahi badu. Beraz, etxebizitza-politika aldatzen bada arazoak bere horretan jarraituko du. (ET1)

Familia askok orduan, betidanik, ba bikoteak ezkondu eta Alde Zabarrera bazetozen bizitzera, ba denbora baterako etortzen ziren soilik. Gero auzo berriago batera joaten ziren...ba Mendillorrira edo...dena delakora, ezta? (ET2)

Aurreko atalean aipatu ditugun gune arazotsuenak dira, aldi berean etxebizitzaren arazoa bizikien jasaten dutenak.

*PEPRI*ak²⁵, etxebizitzari dagokionean, honako arazoak aipatzen ditu. Batetik, eraikitako zorua oso trinkoa da eta horrek etxebizitzaren okupazio altua inplikatzeko du. Horrela, okupazio altuak ere, etxebizitzaren bizigarritasun baldintza egokiak zailtzen ditu. Bestetik, etxeotan bizi den askok ez du baliabide ekonomiko askirik eraberritzeei aurre egiteko eta, zonalde askotan, gizarte ehunak ez du behar adinako sendotasunik hartu eraberritzeei osotasunean heltzeko.

*PEPRI*ko datuek Alde Zaharrean eraikitzeko lurzoru berririk ezin dela hartu agerian uzten dute. Horregatik, biztanleria hazteko dagoen aukera bakarra dauden etxebizitzak hobeto aprobetxatzea da, hori bai, biztanleria 14.000 lagun mugan izateko gomendioarekin. Bestela, gehiegizko kontzentrazioa eman liteke.

²⁵ "*PEPRI*". Memoria. 2001eko ekaina

5.2.1. Etxebizitza hutsak

2004ko Udal Erroldaren datuen arabera, Alde Zaharrean dauden 6.576 etxebizitzetatik 1.489 daude hutsik, hots, kopuru osoaren %22,63. Azken 8 urteotan etxebizitza hutsen portzentajeak behera egin du, izan ere, 1996an %30 inguru zirela pentsatzen zen. Okupatuta dagoen etxebizitzako biztanleen batz bestekoa 2,5 lagun/pisuko genuke 2004an. Alde Zaharreko etxebizitzek banaketa desberdina dute hiru burgoen arabera.

12. taula: Iruñeko Alde Zaharreko etxebizitzek burgoetan duten kokapena

Burgoa	Etxebizitzak	%
Navarrería	2.393	36,39
San Cernín	2709	41,20
San Nicolas	1.474	22,41
Orotara	6.576	100

Iturria: Iruñeko Udala (2004)

Etxebizitza huts multzo horri gaizki irizten zaio auzoko dinamikarako bi arrazoirengatik. Lehena, badagoelako etxe bila dabilen gazterik. Bigarrena, etxebizitza hutsak ez merkaturatzeak etxeen prezioa igotzen duelako. Alde Zaharreko etxebizitza egun garesti dago erosi ala alokatzeko.

-Adibidez, etxebizitza-politika, ba nik uste dut, eta honetan zurekin bat nator, beste etxebizitza-politika bat egon beharko lukeela, ezta? Ez dadila etxe hutsik egon, horretan guztian eskua sartu dadila. (ET1)

-Nik 7 edo 8 hilabete daramatzat erosteko etxe baten bila eta buah! 28 kilo eskatzen dizkizute eta bengal! Ez nola dagoen... goitik behera botatzeko, gune komunak eraberritu beharra eta esaten duzu, 28 milioi? Baita 8 gebiago ere! (ET5)

Etxebizitzen prezioaren gorabeherak eta ezberdintasunak ezaugarri batzuen arabera eman ohi da²⁶, nagusiki etxebizitza dagoen zonaldea eta etxearen egoeraren arabera. Horrela, etxebizitzen kalitatea hobea den zonalde batzuk identifikatzen dira, eta horrek prezioetan du isla. Gainera, zonaldeotan administrazioaren laguntza handiagoa da.

Estafetako pisuek ez dute San Lorenzokoek duten baliorik eta, zer esanik ez, Gaztelu plazan. Gaztelu plazako pisu batek ikaragarri balio du. Auzo berean gaude, baina, plaza horretan "standing" altuko jendea bizi da. Jende gaztea aldiz, Jarautan bizi da pisuak merkeagoak direlako, baliabide gutxiago dutelako, ez dakit. Ditudan duda horiek azpimarratu nahi nituen. (ET8).

Etxebizitza hutsetan eragiteko proposamenak gazteei alokairuak eskaintzeko norabidean kokatzen dira: alokairuei diruz laguntzea, etxebizitza hutsen alokairu-poltsa antolatzea eta birgaitutako eraikinak erabiltzea.

²⁶ Besteak beste, etxebizitzaren tamaina, sukalde eta komunaren egoera, igogailurik baduenentz, eta garaje baten gertutasuna.

5.2.2. Etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak

Etxebizitzen kontserbazioa aurkitzen diren eraikinaren menpe dago. Erabili ditugun ikerketa eta datu askok Alde Zaharreko etxebizitza ugaritan honako baldintzak ematen direla erakusten digute, eta gutxiengo baldintzarik betetzen ez duen etxebizitzaren kopuru esanguratsua dagoela:

- a) Azalera eskasa. %75ek 90 metro koadro baino gutxiago du eta kasu batzuetan, erabilgarriak diren 30 metro koadro baino gutxiago dituztenak daude.
- b) Patioen dimentsio desagokiak. 3 edo 4 pisuko etxeak aireztatzeko eta argia emateko patioak patio eskasegiak dira eraikin altuagoetarako.
- c) Gainontzeko hirian eta herrialdean agintzen diren bizigarritasun baldintzetatik beherako ereduak.
- d) Barne-etxebizitza ugari.
- e) Alportxa etxebizitzak.
- f) Ganbara itsuak (beste gela batzuen bitartez aireztatzen diren gelak).²⁷

PEPRIn, *Urbanean*, teknikoekin burutu bileretan eta elkarrizketetan azaleratzen den etxebizitzaren egoerak eragina du populazioarengan. Etxebizitzaren egoerak bizimailan duen eragin zuzenagatik, Alde Zaharrean bizitzeko ala kanpora joateko hautua erabakitzeko faktore funtsezkoa da. Etxeen egoera kaxkarrak halaber, ikaragarriko zama suposatzen du etxea eraberritzeko adinako baliabide ekonomikorik ez dutenentzat. Zama hori adinekoek jasaten dute bereziki.

Etxebizitzaren baldintzei buruzko erreferentziak, batez ere, igogailu, saneamendu eta alportxa etxebizitzei²⁸ buruzkoak izaten dira. Horretaz gain, lehentxeago aipatu dugun gisara, etxetik hurbil aparkatzeko arazoek ere garrantzia izaten dute.

... oraindik ere komuna balkoian duten agureak egotea, ezta? (...) bitartean, udalak ez du ezertxo ere egiten gogorik ez duelako, ezta? Zeren, 40.000 pezetako pentsioa duen pertsona bat nola sartuko da eraberritze lanetan? Eta horrelako asko daude, ezta? Etxe asko eskastuak daude, ezta? Orduan horrek bizi-kalitatea kentzen die, ezta? Komun-ontzia kanpoan (barreak), tira egiten diozu, ezta? Orduan horrek bizi-kalitatea kentzen dio, ezta? (ET3)

Aipatu baldintzen barruan igogailuari arreta berezia jartzen zaio. Eraikin askok ez du igogailurik eta, gainera, teknikoki oso nekez jar daitezke. Horregatik, adineko askok zailtasuna du bere kaxa bizitzeko. Kasu batzuetan, ez dira euren etxeetatik irteten eta, horrek aldi berean, isolamendua, osasun arazoak, elikadura arazoak, eta abar ekar ditzake. Kanpoaldearekiko duten harreman bakarra familiarekikoa ala Etxeko Laguntza Zerbitzuekikoa da.

²⁷ "PEPRI". Memoria. 2001eko ekaina.

²⁸ "Ba bi zati ditu: eskubian logelak daude, eta ezkerrean, sukaldea eta komunak. Erdian balkoia dago eta gero ba batu egiten dira, hau da, leben bateratua zena orain nik etxean daukat, pasilloa ere nirela da, baina..." (ET8)

Gainera, adibidez, begira zein arazo dagoen mugikortasunarekin, (...) igogailuak, bada jaitsi ezin duen jende asko (isiltasuna) (ET8).

... ez dezazula uste iristen zaidanik, pisu hau, bori eta bestea ikusi dut eta ezin dut ezta bat ere erosi. Eta azkenean Alde Zabarrean, bosgarren pisua igogailurik gabekoa, orain igo naiteke, gero ikusiko dut. (ET2).

Azken buruan, aipatu egoerak konpontzeko proposamen guztiek, eraikinen kanpoaldea konpontzeaz haratago, barnealdea goitik behera eraberritzera jotzen dute. Hartara, birgaitzeko egiten diren proposamenekin lotura estua dute.

5.2.3. Birgaitze prozesua

Eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko egiten diren tramitazioen kudeaketa Birgaitzeko Udal Bulegoak (ORVE) darama. Bulego hau Eslava kalean aurki daiteke. ORVEren datuen arabera, 1.986tik 1.500 eraikinetatik 752 etxebizitzak jaso dute laguntza, eta katastroko 5989 etxebizitzetatik %89k, hau da, urtean 35ek.²⁹

Horrek ez du esan nahi laguntzek goitik beherako birgaitzeak egiteko balio izan dutenik, ezta zonalde guztietara iritsi direnik ere. Baldintza eskasenero etxebizitzak dituzten zonaldeak, arrazoi desberdinak direla medio, ez dute behar adinako aldaketarik ezagutu, eta denbora pasa ahala premia gero eta presazkoagoa bihurtzen ari da. Eraikinekin gertatzen den bezalaxe, birgaitu gabeko etxebizitzak %11 hori da edozein aldaketa egiteko zailtasun handiena duena, beste kausa batzuen artean, bizilagunek ezin dietelako gastuei aurre egin.

... jakina, nik ulertzen dut Alde Zabarra bezalako komunitate batean, etxeak borren oker daudenez, badaude etxe onak, baina horiek eros abalmena duen jendearen tzako dira. Orduan, denek igogailua nabi dute, baina, finean jende guztiak ez ditu posibilitate berberak, eta gatazkak sortzen dira. (ET1)

ORVEk esaten duenez, birgaitze gehienak jabeek beraiek egiten dituzte. Etxebizitza merkaturatzeko birgaitzea kudeatzen duen sustatzaile-birgaitzailearen figura oso kasu gutxitan eman ohi da, sona handiko guneetan soilik. Prozesu hau guztia, lehentxeago esan bezala, jabe-erosle-saltzaileak egin ohi du.

Eraikin osoa ordezkatzea (suntsiketa eta eraikuntza berria) korapilatsua suertatzen da arrazoi ezberdinengatik:

- a) Erabilera jabeen ohiko komunitateen kasuan, bizilagunentzat kudeaketa konplikatuagoa gerta daiteke.
- b) Eraberritze lanek ez dute Nafarroako Gobernuaren laguntzarik.
- c) Lurzoru estuetan nekez lor daiteke bizigarritasun hobekuntzarik.
- d) Merkatu libreko sustapen baten kasuan eraberritzea ekonomikoki bidera ezina da, izan ere, ezin baitaiteke ziurtatu eraikin berrian lehengoan beste etxe izango direnik.

²⁹ "Alde Zaharreko Topaketak: Hirigintza eta Inmigrazioa" tik ateratako datuak.



- e) Eraikin berria arau berrietara egokitzeak maila baxuko etxebizitzak (barnealdekoak, ganbarak, solairuarteak etab.) galaraz ditzake.
- f) Eraberritze prozesuak askoz ere luze eta garestiagoak dira.

Bestalde, eraikin merkeagoetatik birgaitu diren eraikin berrietan, etxebizitzak garestiagoak izango lirateke. Prezio hori Babes Ofizialeko Etxebizitzena baina garestiagoa izango litzateke. Baldintza horietan, jendeak nahiago du Alde Zaharretik kanpo Babes Ofizialeko Etxe bat erosi (auzoan ez baita halakorik), auzoan bizitzeko gogoia izan arren.

ORVEk aipatzen duen beste kontu bat zera da, berrurbanizatzek onura ekarri diola birgaitzeari. Kale bat eraberritu denean kale horretako etxebizitzak birgaitzeko eskaerak gora egin omen du. Berrurbanizazioa egin aurreko bisitetan, eraikinen egoera ikusi eta birgaitzeko aukeren berri ematen da, batetik, eraikina iraunarazteko gutxiengo obrak seinalatzen dira (laguntzarik ez dutenak) eta, bestetik, laguntza jaso dezaketen obra sakonagoak aipatzen dira.

Horrela, berrurbanizazioa bukatu berri den kaleetan beste kaleetan baino andamio gehiago jartzen dela ikusten da. Esaterako, bukatu berri diren obren kasuan, Tejeria, Caldereria, San Agustin edo Javieren kasuan, bukatu zirenez geroztik bulegoan orotara birgaitzeko tramitatutako 70 espedienteetatik 17 tramitatu dira, tramitatutako koen laurden bat. (Alde Zaharreko Topaketak: Hirigintza eta Etxebizitza).

Birgaitze prozesua konplexua da oso. Elementu teknikoez gain, prozedura administratibo-burokratiko batzuk bete behar dira. Prozedura hauek auzoko biztanleei egiten diete gehien bat kalte, duten konplexutasuna dela medio, kontserbaziorako daudden obligazio legalez haratago, eraikina edo etxea birgaitzea zangotrabatzen dutelako. Gainera, adinekoek nekez egin diezaiekete aurre obrei.

... guk duela bi urte eraikina birgaitu genuen eta, oso-oso korapilatsua da, bainbeste paper ez dut ezta ministroen maletetan ere ikusi. (ET3)

... guk birgaitzea duela bi urte egin genuen eta bagenituen bi adineko bizilagun. Zahar Etxe batera joan ziren (...) eta hori oso jende prestua zela, baina, ikusi zuten balako zerbaiti ezingo ziotela aurre egin. (ET1).

Birgaitze “errazak”, eraikineko bizilagunek beharrezko baliabideak izan dituzten horiek, eginak dira jada. Hala, egiteke dauden birgaitzeak korapilatsuenak dira, bereziki bi arrazoiengatik: etxearen jabetza mota eta bizilagunen ahalmen ekonomikoa-gatik.

Inondik inora ere bustitzen ez den jendea bada, adibidez, nire gurasoak bizi diren eraikinaren jabea Bilbokoa zen, ulertzen duzu? Bigarren pisuko bizilagunak 80 urte daramatza han bizitzen eta 7 pezeta hileko alokairua du, ulertzen didazu? Bilbon bizi den pertsona horri zenbat axolako zaio 7 pezetako alokairu hori... ezta? Nik uste dut hori dela kontua. (ET5)

Bai, joan joaten zara, baina, ez dakit merezi duen, zeren diru laguntza ematen ditzute. Gero ordea, errenta aitorpena egiten duzunean sekulako muturrekoa jasotzen duzu, ez dute asko laguntzen. (ET7)

Ahalmen ekonomikoa, laguntzak izan arren, oztopoa da eraikina birgaitzeko. Zer esanik ez etxebizitzaren barnealdea konpontzeko. Ahalmen gutxi dutenak laguntza bereziak beharko lituzkete ekonomikoki eta sozialki.

...oraindik ere komuna balkoian duten agureak egotea, ezta? (...) bitartean, udalak ez du ezertxo ere egiten gogorik ez duelako, ezta? Zeren, 40.000 pezetako pentsioa duen pertsona bat nola sartuko da eraberritze lanetan? Eta horrelako asko daude, ezta? Etxe asko eskastuak daude, ezta? Orduan horrek bizi kalitatea kentzen die, ezta? Komun-ontzia kanpoan (barreak), tira egiten diozu, ezta? Orduan horrek bizi kalitatea kentzen dio, ezta? (ET3).

Gainera, ez dizute uzten, adibidez, bainugela sukaldearekin lotzen, baldintzak jartzen dizkizute birgaitze bat egiterakoan... zure kaxa egiten baduzu ba listo, baina, diru laguntza nabi baduzu, izugarri baldintzatzen zaituzte, arau zorrotzak jartzen dizkizute, batez ere bainugela eta sukaldearekin, hor dira... (ET8)

Alde Zaharrean etxebizitza mota desberdinak daude, normalean zonaldeen arabera. Horrela, adibidez, etxerik kotizatuena Gaztelu Plaza eta Sarasate Pasealeku ingurukoak, eta Alde Zaharra eta Hedagunearen mugan kokatzen direnak dira. Etxebizitza horietako asko jada birgaitu dituzte.

Baldintza eskasenetan dauden etxebizitzak Jarauta, Descalzos, eta Nabarrerriako zenbait gunetan aurki daitezke. Bi zonaldeon artean, badira birgaituak izatearen eta eskas xamar egotearen mugan dauden etxeak. Horrela bada, oinezkoen bideekin genioen bezala, zonalde hauek premiazko arreta merezi dute.

Birgaitzeari buruzko proposamenek alde ugari dituzte. Lehenik eta behin, premia gehien duten zonaldeetan, birgaitzerik ezagutu ez duten etxebizitzekin hasi beharko litzateke.

Bigarrenik, barnealde eta fatxaden birgaitzeak ez du zertan jabeen eta bizilagunen ahalmen ekonomikoaren menpe bakarrik egon. Administrazioak gehiago busti behar du, baina, ez maila ekonomikoan bakarrik, prozedura burokratikoak erraztuz ere bai. Oraino luze eta neketsua suertatzen zen prozedurarako, tramitazioa egiten eta, jarraipen aldetik, gizarte lanean lagundu beharko lukeen udal zerbitzu bat onuragarria litzateke.

-Orduan, zer gertatzen da? ba politika erasokor bat martxan jarri gabe ez dagoela benetako birgaitzerik...eta erasokorra esaten dudanean desjabetzeaz ari naiz. Horrek esan nabi du udala bezalako erakunde batek erortzeaz den eraikin bat ikusten badu, ba bere kapitalarekin erosi ala desjabetzea abian jarriko duela. Eraikinaren jabe geratu, apartamentuak egin eta saldu. Hara hor politika dinamiko eta erasokorra. (ET1)

Udalak pisuak eraberritzen gastatu beharko luke, baina, horrek diru galera suposatzen dio. Administrazioa da arazoari benetan aurre egin behar diona (Ekaineko Tailerrak).

Batzuetan, ezin da birgaitzerik egin etxebizitzak hutsik daudelako, ez dago baliabide ekonomikorik. Horrek batez ere, adinekoei eragiten die. Beharrezkoa da bi aldeek bat egitea etxebizitzaren egoera hobetzeko (Ekaineko Tailerrak).



Etxebizitzan baldintzak berriro ere hizpide, Alde Zaharreko eraikinetan lehentasuna duen kontuetako bat, orokorrean, igogailua ipintzea da. Pisuetan berriz, lehentasunak bainugelak barnealdean jartzea, berogailuak, etab. dira. Etxebizitza tamainaz aldatzea nekezagoa da, horrek etxebizitza batzuk desagertzea suposa bailezake.

Auzokideek arazoari irtenbideak planteatzeko prestutasun osoa dute, gainera, euren proposamenak egin dituzte, eta auzo komunitatea prest dago inplikatzeko. 2005ean atariak konpontzeko proposamena egin dute, horrek ez luke eraikinean egiturazko aldaketarik ekarriko, eta prest daude eurak inplikatzeko laguntza tekniko txiki batekin.

5.3. Ekipamenduak: kultura eta aisialdirako guneak

Alde Zaharra berez dugu topaketa eta aisialdirako gunea, hiria pizten duen txinparta:

Gustatzen zait egun seinalatuetan nola ateratzen den jendea kalera, nola kaleek bizi eta kolorea hartzen duten. Kale gaixo eta mortuak baino, zabartxook bizia ikusteko beharra dugu. (ET6)

Bertako jendea, berotasuna, magia, giroa, festak, etxe luzexkak, iturriak eta barlauzak gustatzen zaizkit (Alde Zaharraren eguneko kaleko panela).

Alde Zaharraren erakarpen indarra bertako harremanetan edo aisialdian gozatzean datza. Beste historiako garai batzuetara edo gugandik hurbilxeago dauden garaietara jotzen badugu, beti aurkituko dugu Alde Zaharra aisialdiaren eta gozamenaren erdi-erdian. Horren lekuko dira belaunaldi zaharren hitzak:

... zeinen bitxia den "Condestable" arena. Hor bazen dantza, larunbata eta igandetan dantza eta jolasa eta, orain musika eskola dagoen lekuan, jendea biltzen zen "Mariano" Zentroa zegoen, hor bazen mendi taldea, zinema... (ET2)

Edonola ere, eragile askok aipatu duten azken urteotako joera da auzoak topaketa eta gozamenarako gune bezala indarra galdu duela. Indar galtze hau hainbat faktoreri zor zaio: lan ordutegiaren aldaketa, familia antolaketa edota etxeko aisialdirako teknologia agertu izana (telebista, internet...). Txikiteoa adibidez, lehen gizarteratzeko ekintza arrunt zabaldua zena, galtzen ari da; orain auzo bakoitzarentzat erakitzen da aisialdirako ekipamendu eta azpiegitura propioa; eta, lehen kasik Alde Zaharrak bakarrik zuen merkatal eskaintza beste hainbat zonaldeetara hedatzen ari da. Bestalde, agerikoa dira merkatal gune handiek ekarri dituzten ohitura aldaketak, aisialdia eraikin handietako kontsumo denbora bilakatzen dute, inpersonala, eta duten kokapena dela eta, jakina denez, jendea periferiara bideratzen dute.

Zertarako bilatu horren topagune artifizialak (merkatal guneak) Alde Zaharra bezalako leku naturala badugu. (Alde Zaharreko eguneko kale panela).

Hala eta guztiz ere, Alde Zaharrak lehen aipatu jardueren zati oso handi baten erdi-gune izaten jarraitzen du. Horrek kalteak ere ekarri ohi ditu: zaratak, zikintasuna,

etxeak eta kotxeak narrastea eta beste auzoetako jendeak bertan bizilagunak ba-
daudela ahaztu, eta kanpokoek auzoa zaintzen ez dutenaren sentsazioa.

*...auzo kolpatuena da hau, garbitasun gutxien duena, jendeak ez du bere burua kon-
trolatzen, atarian pixa egin, gonbitoak, zabor hondarrak... nabiko deserosoa da la-
nera zoazen goizean gauean zehar egindako kalteak topatzea. Kotxea utzi eta hu-
rrengo goizean atzeko ispiluak hautsita... norbere larrutan bizi beharreko zerbait da
eta horretaz hitz egin beharra dago. (ET4).*

Zaratak, zikintasuna, ondasunak kaltetzea, etab. arazoak daude beraz. Begirunezko
elkarbizitza³⁰ gerta dadin nola edo halako kontzientziazioa eta jokaera aldaketa eman
beharra dago. Bestalde, aisialdi gune eta alternatiba anitzak behar dira gazteentzako,
gazteak euren aisialdiaren protagonista izan daitezen, aisialdia ez dadin kontsumo
huts bihurtu.

Txanponaren beste aldean, Alde Zaharra kulturgintzaren gune ere badugu: hitzal-
diak, kontzertuak, erakusketak edo ikastaroak. Kulturak duen bizitasuna bertako
kulturgintza eragileei eta dauden ekipamenduei esker ematen da: arte galeriak, era-
kusketa gelak, hitzaldi-gelak, Liburutegia, Antzerki eskola, Musika-eskola, Nabarrerria
Kultura Zentroa (OSCUS) edota Hizkuntza eskola.

*...jende asko etortzen da bitzaldiengatik, ikastaroengatik eta abarregatik, ezta? Ho-
rrela jendearekin aurrez geratzeko beharrik gabe topo egiten duzu (ET3).*

Zentzu horretan, aipatu azpiegiturak ez zaintzeak eta, liburutegia edo musika esko-
la galtzeak kezka sorrarazten du auzoan. Horregatik, auzokideek liburutegia eta mu-
sika eskola hiriko beste leku batera eramateko planak kritikatu izan dituzte.

*-Liburutegiak pizgarri berezia ematen dio plaza horri eta Iruñeko jende askoren-
tzako erreferentzia da. Mendebaldeara eramanez gero, gune horrek asko galduko
du. Eta horrekin bezala gertatuko litzateke edozein ekipamendu kenduz gero.*

*-Musika Eskola adibidez, zatika-zatika erortzen ari omen da. Bi musika eskola dau-
de Iruñean, hau lehen hezkuntzako da eta erortzen ari da. Gezurra dirudi, zer ger-
tatzen da Iruñeko etorkizuneko musikari onekin? Zain ditzatela apur bat, ezta?
(ET5).*

Era berean, ontzat jotzen da Hiritar Kultura Zentroa kale Nagusiko *Condestablearen*
eraikinean kokatzea. Eraikin horrek aspaldiko behar bati erantzuteko aukera eskain
dezake: umeentzako liburutegi eta jolastokia. Bestelako kultura beharrak ere ase di-
tzake: margolaritza, eskultura, ikus-entzunezko tailerrak; eta multimedia gunea (zi-
nema, bideoa, jokoak...). Adin bakoitzaren arabera aisialdia kulturarekin lotzea li-
tzateke helburua. Horretaz gain, gune horrek izan beharreko kudeaketa eredia dago
ezbaian: enpresa pribatu bati kudeaketa esleitzearen ordean, hobe litzateke, auzoko
gizartearen bizitasuna kontuan hartuta, eredu publiko parte hartzailearen apustua

³⁰ Aurrekari interesgarriak baditugu "karrikan Etxean Bezala" kanpaina bezala. Aldezar-ek antolatutako kanpaina horretan kartelak, pegatinak, edalontziak eta pankartak zabaldu ziren jaiak egin nahi zutenak zarata eta zikintasanaren arazoak konturatu zituzten. Bigarren hezkuntzarako ere bideo bat egitea aurrikusia zen, baina, azkenean, ez zen egin.

egitea. Eredu horren arabera, administrazioak eta auzoko eragileek, arau argi eta hitzartu batzuk oinarri hartuta, bertako ekipamenduen kudeaketa partekatuko lukete.

Gisa berean, bestelako kultura eta hezkuntza azpiegiturak behar direla azpimarratu izan da: fakultate eta eskolak (Ostalaritza eskola esate baterako). Horrek auzoak galdu duen zentralitatea berpiztu lezake. Gai hori zabalago aztertuko dugu sozio-ekonomia atalean.

Halere, ekipamendu mailan, bada auzokideek gehiago errepikatu duten behar bat. Kulunkak eta kirolerako instalazioak izango lituzken kanpoaldeko gune bat. Belardi eta zuhaitzak lituzkeen gune bat kirola egiteko (skate-ko pistekin, kulunkekin, frontoiarekin...). Gune horri ere hiriko edonorentzat ekonomikoki eskuragarria liratekeen igerilekuak jartzea ere aipatu izan da.

...bemen umeentzako zerbaít falta zaigu, San Franciscoko patio besterik ez dago eta. Leben Jito-n futboleán aritzen abal ziren, baina, orain, Labrit-eko obrak direla eta, ezin dute. (ET8)

Kirol guneen falta nabaria da, nik uste dute kirol gune bat behar dugula. (ET5)

...gezurra dirudi auzo batean ezin kirolík egitea, beste auzo batera joan behar izatea, jendeari zerbitzu hori ematen ez badiozu... (ET2)

Halako gune batek beste aisialdi alternatiba batzuk sortuko lituzke adin guztientzat: haurrentzat, nerabeentzat, gazteentzat, nagusientzat eta adinekoentzat. Bestalde, auzoko eskolei ere osagarri moduan balioko lieke. Horregatik, Euskal Jai-en egin nahi dituzten igerileku termalak luxuzkotzat jotzen dituzte: auzoko beharrei erantzuten ez dien zerbaít.

... super-igerileku termalak? Alde Zabarrak ez du horrelakorik behar! Ezin dut ulertu!

-Gauza benetan bitxiak: jacuzzia, aerobic gelak, spinning, solarium-a, sauna... bari eta zur uzten nauten izenak. Donostiako Talasoterapia eta gimnasio baten arteko zerbaít. (ET5)

PEPRIak dioenez, *necesidad de construir un polideportivo convencional para el Casco Viejo, pues carece de esa dotación*. Auzoko beharrei egokitutako kiroldegi konbentzionala beraz, hartara.

... la rehabilitación urbana se apoyará sustancialmente en una política de apoyo a la mejora de las condiciones de habitabilidad de las viviendas, que conllevará acciones complementarias e integradas de dotación de infraestructuras y servicios de equipamiento comunitario. (Principios que deberían guiar las intervenciones en el Casco antiguo Sigifredo Martín. PEPRI arkitektu taldea).

Ildo berean, etengabe errepikatu den eskaera izan da gazteentzako gune autogestionatuarena. Bertan gazteek hainbat jarduera antolatu ahal izango lituzkete euren kaxa. Aisialdi taldeak, gazteen asanbladak, auzoko artistak (musikariak, antzerkilariak...) eta, orobat, bere garapen pertsonal eta kolektiborako gaztea protagonista bihurtzen duten kultur ekintzak. Merkatuaren ibilbidetik at, gazteak aisialdia libreki

eraikitzeko aukera anitza ahalbidetuko luke halako gune batek. Sormena, kritikarako gaitasuna eta ardura indartuko lituzke finean:

-Nik gaztetxea bezalako gune bat dut faltan. Jakina, zegoen bezala ondo zegoen. Bertan jan, zinema, ikastaroak, jaiak...

-Futboleko jokatzeko lekua ere bazenuen, edozein gauzatarako, kirolean aritzeko leku ederra zen bura.

-Ez zuten gaztetxea bakarrik bota, Iruñearen historia zati bat ere bota zuten, Iruñeko frontoi txukunenetako bat, Euskal Jai. (ET5).

Iruñeko Gazte Asanbladak egin duen gazteen beharrei buruzko txostenak Hiritar Zentroek gazteen behar batzuk asebetu ditzaketela aipatzen du, baina, ez gazteek dituzten behar guztiak. Gazteentzako autogestio gunea ere beharrezkoa omen litzateke:

Gune horrek zeregin garrantzitsua du auzoan kultura eta gizartea pizten, komunitatearen garapenerako. Kultura eta gizarte garapenak norbanakoen bizi kalitatea hobetzen duenez gero, komunitate osoarena ere bai.

Bi eskaera horiek, kirol berdegunea eta autogestiozko kulturagunea, Alde Zaharreko Dotazio Batzordeak eginiko inkestan agertzen dira. Orotara 634 auzokide galdetu zituen inkestan honako hauek ditugu lehentasunezko ekipamenduak:

1. Zer behar du Alde Zabarrak?

a- Frontoia-Plaza-Kulturagunea-Gaztetxea (Euskal Jai Gaztetxea zena)

b- Bigarren Hezkuntzako Zentroa

c- Kiroldegia

d- Nafarroako Antzerki Eskola (zabaltzea)

e- Haur Eskola (D ereduan)

f- Zebar etxea/Eguneko zentroa

g- Zentru Hidrotermala

h- bestelakoak

Ipini letrak lehentasunen arabera

1	2	3	4	5	6	7

Erantzunek “Frontoi-Plaza-Kulturagune-Gaztetxe”aren beharra lehenesten dute. Bigarrenik, Bigarren Hezkuntzako Zentroa eta, ondoren, hurrenez hurren, D ereduko Haur Eskola eta Kiroldegia.

13. taula: Alde Zaharreko Dotazio Komisioaren Alde Zaharreko beharren inkestako emaitzak

	A	B	C	D	E	F	G	H
1	43,85	12,78	13,41	0,63	12,15	8,99	1,42	5,21
2	11,67	20,66	22,87	6,94	20,82	8,99	1,42	2,21
3	13,09	18,45	14,83	8,04	20,66	16,40	1,26	1,42
4	11,99	14,51	14,83	10,41	17,51	20,03	1,42	1,89
5	7,89	14,51	12,15	16,72	11,67	22,24	1,89	2,37
6	3,63	7,89	11,36	31,39	4,26	13,25	7,89	5,21
7	0,95	2,52	1,42	8,83	1,26	2,84	38,96	15,93
8	0,16	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,32	0,16
Zuriak	6,78	8,68	9,15	17,03	11,67	7,26	45,43	65,62
Orotara	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

Iturria: Dotazio Batzordearen inkesta (2004)

Era berean, Euskal Jai orubearekin egin beharko litzatekeena galdetuz gero, %49,68k “Frontoi-Plaza-Kulturgune-Gaztetxe” funtzioa eman nahiko lioke, %18,45ek Bigarren Hezkuntza Zentroa eta %9,46k kiroldegia.

14. taula: Alde Zaharreko Dotazio Komisioaren “Euskal Jai”ko orubearen erabilerraren inkestako emaitzak

	Zenbat	%
A	315	49,68
B	117	18,45
C	60	9,46
D	44	6,94
E	34	5,36
F	11	1,74
G	10	1,58
H	8	1,26
Zuriak	35	5,52
Orotara	634	100

Iturria: Dotazio Batzordearen inkesta (2004)

Azkenik, kultura eta aisialdi ekipamenduei lotuta, azkenaldian Alde Zaharrean hobekuntzak nabari badira ere, historia eta kultura ondarearekiko halako utzikeria salatu izan da: katedrala itxita dago, seinalizaziorik eza, ibilbide gidatuen falta...

...ez dago katedrala, zezen plaza, informazio eta turismoa, etab. non dauden ipintzen duen errotulaziorik. Ez baduzu balakorik jartzen, dendariak biburtzen gara informazio eta turismokoak beti (ET8)

Kezka zabala da baita ere auzoko gune batzuek duten egoera kaxkarra (Done Jakue bideko guneak, Barbazan Gotzainaren ingurabidea, Jito Alai frontoira doazena eta Nabarrerria Plazako zaborrontzia, espaloi gorabeheratsuak, etab.). Horri lotuta, kezkarria da ere itxita ala gaizki zainduta dauden kale eta plazak egotea (Santa Ana, Pellejería, O Birginaren plaza). Zentzu horretan, auzoan gune zabal eta aireztatuak egitea zaila dela dioen diskurtsoaren aurrean, bada lehenago behar harko lukeen zerbaite, dagoena txukuntzea turistentzat ez ezik, bertakoentzat ere: plazak jolastoki moduan atondu, berdeguneak jarri, gazteentzat aisialdi alternatibak, espazio publiko eta irekiak auzokideen zein kanpokoen gozameneko... Esandakoa berretsiz, espazioaren falta dagoela esateari, erabiltzen ez diren orube eta gune itxiak kontrajartzen zaizkio (konbentuak, Elizako egoitzak eta orubeak,...), eta gainera, berrerabiltzeko obrak egiten direnean ez dira auzoko beharrik kontuan hartzen.

...San Francisco kaleko mojak, hor dagoen orubea! Salesiarrak, ea horko dena kendu eta aparkamendu eder bat egiten dugun, edo, ez dakit, bestela, zabar etxe bat, liburutegi bat, edo dena delakoa. Zer egingo dute? Nork egingo du? Ba ziurrenik enpresa pribatu bat sartu, gero banku edo aurrezki-kutxa batek eskua sartu eta euren interesen nabierara moldatuko dute dena, azalera pila alferrik galduz eta bebekoengan pentsatu gabe (ET2).

...ekipamendu mailan ditugun beharrei begira, elizak ditu sail onenak, baina, baita lortzeko zailenak ere. 60.000 metro koadro ditu Elizak Alde Zaharrean, gero gainera, lur horren gainean daukana gebituta. Eta ez dira ezta metro koxkor bat ere auzoarentzat emateko gai izan, bori niretzat...Alde Zabarraren bamarren bat da hori, eh! (ET6).

Horregatik guztiagatik, erabilerarik ez duten txoko guzti horiei erabilera publiko librea ematea proposatzen da, etxadien edo bestelako lekuen artean geratzen diren leku hutsak aprobetxatzea, hain zuzen ere.

5.4. Garapen ekonomikoa eta potentzial turistikoa

Hasteko, azal dezagun zer ulertzen dugun garapen sozioekonomikoaz. Garapen sozioekonomiko eredu baten estrategia eta filosofia nagusia hauxe dugu: pertsonen bizi kalitatea hobetzea. Garapen orekatua eman behar da bertan bizi direnen eta bertan jarduera ekonomikoren bat aurrera eramaten dutenen aldetik. Bi aldeek dute elkarren beharra eta, nahiz eta betidanik ez diren gauzak horrela ikusi, egun bi al-



deek onartzen dute elkarren beharra (ildo horretan hausnarketa batzuk planteatuko ditugu). Eta ez hori bakarrik, bi aldeek ere aliantza eta estrategia komunak adosteko beharra ere antzematen dute gaur gaurkoz.

Beste arloekin gertatzen ez den bezala, gai honi buruzko ikerketa pila egin da auzoan. Guk, alde batetik, Merkatarien Elkartek (auzoko merkatal guneen %67 biltzen duena) jada eginak dituen eztabaida eta hausnarketak bilduko ditugu. Bestetik, Urban prozesuan auzokide zein merkatariek eginikoa ere kontuan hartuko dugu. Azkenik, geure prozesu honetan auzokide eta merkatariek utzi diguten lekukotasun zuzena ere azterketa honen zati izango da.

Gaur egungo egoera ikusiko dugu, gero etorkizuneko perspektibak analizatzeko.

5.4.1. Auzoaren ezaugarri ekonomiko nagusiak

Auzoak hirian duen kokapen zentralak baldintzatu egiten du bertako jarduera ekonomikoa, eta horren harira, etorkizunera begira egoera hobetzeko hartu beharreko estrategiak ere bai. Zentraltasun horretatik eratoritzen diren aukerak aprobetxatu behar dira auzoko bizi-baldintzak hobetzarren.

Jarduera ekonomikoan nagusitzen zaigun sektorea hirugarrena dugu ez bairik gabe. Sektore horren barruan ostalaritza eta merkataritza gailentzen dira. Gainerakoak era askotako zerbitzu enpresak dira, batzuk tradizionalagoak (sendagile kontsultak, aholkularitza bulegoak...) dira eta, beste batzuk, azken urteotan ugaltu diren berrixeagoak: kultura, hezkuntza ala gizarte zerbitzuei loturiko enpresa edo ekimenak (2001ean 119 establezimendu ziren zerbitzu bezala izenpetuak).

Horietaz gain, turismoak ere badu garrantzirik auzoan. Hiria bisitatzen duenak derrigor bisitatu ohi du Alde Zaharra, eta horri gehituta, Done Jakue bideak ezinbestean ukitzen du auzoa. Ez da erraza turismoak auzoko ekonomian duen eragin zuzena neurtzen, baina, zalantzarik gabe, turismoa auzoaren pizgarri ekonomiko nagusietakoa dugu.

Azkenik, Alde Zaharrean biltzen dira instituzio publikoen egoitza nagusiak eta horrek, noski, bisitari gehiago ekartzen ditu auzora. Nafarroako Gobernuaren sei ordezkari daude bertan, eta Iruñeko udalaren hamazortzi ordezkari.

15. taula: 2005eko enpresa-iharduera Iruñeko Alde Zaharrean

		Ihard. Zenbat.	Ihard. %	Azalera m ²	Azalera %
MEREKATARITZA ESPEZIALIZATUA	Ekipamendu pertsonala	192		21.636	
	Elikadura	105		7.679	
	Etxeko hornidurak	78		16.151	
	Drogeria	14		1.224	
	Elikadura / ost.	8		649	
	Higiezinen ajent.	15		1.067	
	Bidaia-ajent.	5		532	
	Optika	7		1.437	
	Bestelakoak	35		4.479	
			459	53	54.854
BESTELAKO MEREKATARITZA	Botika-dendak	13		1.866	
	Loteriak	5		132	
	Estankoak	6		263	
			24	3	2.261
BILTEGI HANDIAK		1	0	5.919	4
OSTALARITZA		192	22	36.513	26
ZERBITZUAK	Bestelako zerbitzuak	57		25.885	
	Finantza-zerb.	13		5.258	
	Norb. Zaintza-zerb.	26		1.363	
			96	11	32.506
AISIALDIA eta KULTURA		86	10	8.796	6
TAILERRAK		12	1	1.008	1
OROTARA		870	%100	141.857	%100

Iturria: Iruñeko Alde Zaharreko Merkatarien Elkartea (2005)

5.4.2. Merkatal jarduera

Ezin atal hau hasi Merkatarien Elkarteari aipamenik egin gabe, izan ere, atalotako datu gehientsuenak emateaz gain, beste sektoreei dagozkien hausnarketetan parte hartu baitute.


Revitalización y Dinamización Comercial y Económica del Casco Antiguo da atal honen inguruan sakontzerik handiena ekarri duen ikerketa, eta 2001ekoa izanik datu batzuk aldatu diren arren, diagnosi honetan erabili egin dugu azaltzen duen analisiaren fintasunagatik (merkataritza motak, kokapenak...).

Merkatal guneek barne hartzen duten azalera 36.000 metro koadrokoa da (hirian da goenik handienetakoa). Horietatik 517 komertzioak dira eta 160 tabernak edo ostalaritza establezimenduak orokorrean.

2001ean erroldatutako 517 lokaletatik (2003ko datu batzuk 500 baino gutxiago dirrela erakusten digute) 124 elikadura/drogeria multzokoak dira, 124 ekipamendu pertsonalekoak, 76 etxe hornidurakoak eta 141 bestelakoak. Zenbateko horri Udal Merkaturako 99 elikagai postuak gehitu behar dizkiogu. Establezimenduen azaleraren batz bestekoa jardueraren arabera aldatzen da (etxe hornidurakoa da azalera gehien duena), baina, orokorrean, 40tik 60 metro koadrorra jotzen du. Beraz, merkataritza txikiak ari gara.

Merkataritza txiki hori, batz beste, antzintasun handikoa dugu: 17 urtekoa. Hala ere, establezimenduen %30ek 6 urte baino gutxiago du. Hortaz, komertzioak ixten badira ere, berriak ere ireki dira (%30 hori).

3. grafikoa: Iruñeko Alde Zaharreko merkataritza establezimenduen sailkapena



Iturria: Plan de Revitalización y Dinamización Comercial y Económica del Casco Antiguo (2001)

Interesa duen beste gaia komertzio hauen kokapenarena da. Orokorrean erradiografiak banaketa desorekatua erakusten digu, izan ere, komertzioaren %63 12 kaltetan pilatzen da (auzoak 66 kale ditu). Fintasun handiagoarekin erreparatuz hauek dira merkatal jarduera handiena duten 12 kaleak.

16. taula: Iruñeko Alde Zaharreko kalez kale merkatari establezimenduen distribuzioa

Kaleak eta zonaldeak	Lokalak
San Cernin Zonaldean	
Kale Nagusia	54
San Saturnino kalea	16
San Nicolás zonaldean	
Zapatería kalea	42
San Nicolas	31
San Antón kalea	27
Pozoblanco kalea	16
San Miguel kalea	15
Gaztelu plaza zonaldean	
Gaztelu plaza	18
Chapitela kalea	16
Navarrería eta Santo Domingo Zonaldean	
Estafeta kalea	53
Mercaderes kalea	22
Mañuela kalea	18

Iturria: Plan de Revitalización y Dinamización Comercial y Económica del Casco Antiguo (2001)

Banaketa hau aintzat hartzea garrantzitsua da, mugikortasunean eta hirigintzan ikusi dugun banaketari lotuta, auzoan dauden gizarte arazoak ziprintin batzuk erakusten dizkigulako. Ostalaritza eta merkatal jarduerak piztuen dauden guneak aditzera ematen dizkigu, eta ondorioz, baztertuen daudenak ere bai. Desoreka horiek saihestu behar dira eta helburu horri begira merkataritzak bere ekarpena egin dezake (instituzioen babes ekimenekin batera).

Datu objektiboez haratago, merkatarien eta auzokideen pertzepzioa bera ere analizatu beharra dago: zer nolako aldaketak ikusten dituzten sektore horretan.

Gaur egungo kontsumoan zabaltzen ari den joera da merkataritza galarazi edo, areago, galbidean egon daitekeela. Zentzu horretan, instituzioen babes handiagoa eskatzen da obrak eta eraberritzeak egiteko, batez ere, auzoko egitura urbano korapilatsua dela medio.

... komertzioak galbidean dira, komertzioak bere kaxa ezin du eraberritze lanik egin, ezin duelako, ez du pizgarririk, orduan, ez dago laguntzen dion inor eta hor doa merkataritza tradizionala amatatzen. Horregatik, bemen planteatua ikusita, gauza asko dago... (ET6).



Dena den, eztabaidetan zein elkarrizketetan aritu diren auzokideek miretsi egiten dute merkataritza txikia duen gizatasunagatik. Elkarren arteko ezagutza, hurbiltasuna edo fidagarritasuna dira goستن diren balioetako batzuk. Garapen eredu-ekologiko, sozial, ekonomiko- orekatuaren adierazletzat dute merkatal gune eta frankizia handien aurrean.

... egia da gebienbat eskaintzen diezuna eta gebien gustatzen zaiena ba bezeroari eskaintzen diozun arreta dela. Hona datorrenak ez du boztasunik sentitzen, langilea ez dabil arropa tolestu eta bere kaxa. Arreta hurbila, zuzena eskertzen dizute Alde Zaharrera erosketetan etortzen direnek... (ET8).

Gune handien mehatxuaz batera, bada beste mehatxu bat: kalitate baxuko merkataritzarena *Todo a cien*. Gainera, kezka handia sortu du ireki berri den *El Corte Inglés* (irekiera gatazkatsua izan da) eduki dezakeen eraginak.

Birgaitze Planean eta, geroxeago Urban-ean, jasotako merkataritzari begirako 28 ekimenek eta hirigintzari dagozkion 14ek era askotako laguntzen beharra (urbanistiko, errotulazioa, aparkalekuak...) mahai-gaineratzen dute. Horrekin batera, enpresa kudeaketa eta merkataritzaren sustapen eraginkorragoa planteatzen dute.

Merkataritza sektorearen biziraupena auzokideei, hiritarrei eta turistei ekar dakizkiokeen abantailen menpe dago. Eskaerari dagokion helburu hirukoitz hori ez da auzokideen eta merkatarien arteko interes gatazka moduan ikusi behar. Aitzitik, aparkalekuaren gisako gai gatazkatsuak egon badaude ere, orokorrean auzoaren interes orokorren inguruko adostasuna dago.

Merkatarien Elkartea ordutegi, banatzaile eta korporazio irudi bateratuaren inguruko estrategia komuna planteatzen ari da. Etorkizunari buruzko kezka dago, baina, arazoak ukitzen dituen sektoreen arteko batasuna zaintzea garrantzitsua dela uste dugu.

5.4.3. Ostalaritza

Aurreko atalean landu ditugun hainbat hausnarketa eta ekimen ostalaritzari ere badagozkio. Dena den, hainbat bereizgarri daudela jakinik, txoko berezia eskaini diogu ostalaritzari oraingoan.

Ostalaritzak auzoko zein kanpokoek aisialdia antolatzeko duten erarekin du zerikusia. Ostalaritzan ere aldaketa sozial orokorragoek ere bere arrastoa uzten dute.

Alde Zaharra primerako lekua da ostalaritzarentzat bi arrazoiengatik: hiriaren erdigunea da (historikoki, administratiboki) eta turismorako ezinbesteko lekua ere bada. Dena den, bere arazoak ere baditu. Gaur egun, erroldatuta ostalaritzako 192 establezimendu ageri zaizkigu. Sektorea honela banatzen da:

17. taula: Iruñeko Alde Zaharreko ostalaritza establezimenduen banaketa

Establezimendu mota	zenbatekoa	Azalera (metro koadrotan)
Taberna	131	18.191
Taberna/Jatetxea	29	3.688
Kafetegia	19	2.038
Jatetxea	7	1.551
Ostatua	6	11.045
Orotara	192	36.513

Iturria: Iruñeko Alde Zaharreko Merkatarien Elkarte (2005)

Carlos Vilches eta Yolanda Aranak *Diagnóstico de la situación de la hostelería del Centro Histórico de Pamplona*³¹ egin berri dute (2005ean aurkeztua) Merkatarien Elkartearentzat. Análisi horretatik datu batzuk aterako ditugu, eta batez ere, aholkatzen diren estrategiak eta merkatarien eta ostalarien ekimen bateratuak.

Egin diren 79 inkestetatik *Opinión sobre aspectos del Casco Antiguo* da gehien interesatzen zaiguna.

Hiru dira Ostalaritzak dituen behar behinenak: aparkalekuak, ordutegiak luzatzea eta jende gehiago etortzea. Aisialdirako ekipamenduei buruz galdetuta, ostalariak bat datoz auzokideen iritziarekin: kiroldegia eta kultura jarduera gehiago.

Ostalaritzaren eskaintza hobetze aldera bi ekimen nabarmentzen dituzte: aparkaleku publikoa eta, orokorrean, Alde Zaharra berpiztu eta sustatzea. Horri gaineratuta, kaleak birgaitzea eta oinezkoentzako bideak egokitzea ere errepikatzen duten eskaera da.

Azkenik, erdigunean ostalaritzarentzat zorrotz eta murrizgarri diren arauak kentzea eta garraio publikoen hobekuntza (hiriko beste lekuetako konpetenziari aurre egiteko) ere aipatzekoak dira.

5.4.4. Auzoaren potentzial turistikoa

Alde Zaharra hiriaren bihotza da hiriaren jatorri ere baden bezalaxe. Askotan esan izan dugu hori, baina, garrantzitsua da oraingoan horretan berrestea potentzial turistikokoaren arrazoi nagusia den aldetik. Potentzial hori aprobetxatzeak garapen ekonomikoan itzelezko eragina du, merkataritzan eta Ostalaritzan bereziki.

Auzokideak horretaz jabetzen dira eta, horregatik, dagoen potentziala aprobetxatzeko estrategietan administrazioaren inplikazio handiagoa eskatzen dute. Auzoa bisitatzeko leku ez ezik, bizileku ere bada, eta errealitate hori ondo uztartzean datza planen arrakasta.

Nik gaiez aldatu aurretik puntualizazio txiki bat: zonalde hau oso erakargarria gerta liteke turismoarentzat. Iturria, San Ferminak, katedrala, ez dakit ... hau gebixea-

³¹ Carlos Vilches eta Yolanda Arana (2005)

go aton daiteke kanpokoei begira. Egia esan, hori, bona iritsi eta zaborrontziak, espaloi gorabeheratsuak, kale irekiak, ez dakit, zera pixka bat ematen du...gunerik zaharrena da eta gehixeago sustatuko balute... barresi aldea, zenbait ordutan bona sartzeak beldurra ere ematen du... (ET5).

Carlos J. Martínez-en *6 Ibilbide Alde Zabarrean zehar* bezalako lanak hiriaren historia eta Nafarroakoa ezagutzeko lan egokiak dira. Lan hori 1999an argitaratu zen Auzo Elkarteak eta Nafarroako Gobernuak lagunduta.

Historiaz gain, Done Jakue bidea eta San Ferminak dira auzoaren turismo erreferentzia nagusiak. Bata eta bestea osagarriak dira, San Ferminetako jendetza ikaragarria da, baina, puntuala. Done Jakue bideari dagokionean, turismo jarraituagoa da. Iruñea bide horretan Estatuko lehen hiriburua izanagatik (bidaiari ostatua Alde Zaharrean dago), eta jakina, duen historia zein arkitektura ondareagatik, garrantzitsua litzateke bertako kale eta bazterrak paseatzeko txukun egotea.

Iruñeko Udalak bere aldetik, badu turismoa bultzatzeko gogorik eta, bide horretan, *Plan Estratégico de Actuación Turística* aurkeztu du³² (Mazars Turismo enpresak egina) hurrengo hiru urteetan turismoa %10ean hazteko asmoz. Horretarako 24 ekimen zehazten ditu plan horrek eta, horiek izango dira Turismo eta Merkataritza Sailaren gida.

Planean nabarmentzekoak diren helburuak honakoak dira:

- 343.132 turistik 446.000ra pasatzea 2008an, eta 890.000ra 2011n.
- 2004an 1,9ko batz besteko egonalditik 2ra pasatzea 2008an.
- 2004an 1,9 bazen igarotako gauen batz bestekoa, 2,98ra pasatzea 2011n.
- Nafarroara zetozenen %45 Iruñean kontzentratzen bazen, %60ra igarotzea 2011n.

Oraingoz, 24 ekimen horiek ez dira kaleratu eta, espero dezagun, auzokideen, merkatarien, eta ostalarien eskaerak kontuan hartuko dituela.

Sektore horien eskaerak aipatu ditugu: interes turistikoko guneen errotulazioa, arkitektura zein ondare historikoa sustatzea, etxeak birgaitzea, oinezkoen bideak egokitzea... Eskaera batzuk turismora zuzentzen dira soilik, beste batzuk aldiz, turismoaz aparte sektoreetan dute eragina. Helburua, azken batean, turismoa eta bertan bizi direnen ongizatea adiskidetzeta da. Bisitatzeko leku bat izateaz gain, bizitzeko leku ere badelako.

³² Iruñeko Udalak kaleratutako prentsa oharra.

6. Aurrerabiderako ondorio batzuk

Alde Zaharrak, azken urteotako bilakaeran, argi-itzalak, potentzialtasunak eta gabeziak erakusten ditu. 1996tik hona populazioa berreskuratzen ari da. Haurrak dituzten bikoteek bertan geratzeko joera handiagoa dute, eta horri, beste herrialdeetako jendea etortzen ari dela gaineratzen badiogu, auzoan gero eta haur gehiago dagoela konturatuko gara. Halere, oraindik ere umea eduki duten bikoteak beste auzoetara joateko joera mantentzen da hainbat gabezia direla medio: etxebizitzak, haurtzaindegia, haurrentzako jolastokiak, kotxearekin aparkaleku eta mugikortasun arazoak, zaratak,...

Horrek guztiak zirt edo zart hobetu behar diren aferen aurrean jartzen gaitu: zerbitzuak hobetu, azpiegiturak eta bizi-baldintzak. Populazio talde kopurutsuena haurra edukitzeko orenean dagoela kontuan hartuta (25 eta 40 urte artean) hurrengo urteetan gero eta haur gehiago izango dela pentsa daiteke.

Alde Zaharreko populazioa gartzetzen ari da. Haatik, 65 urtetik gorako jende asko bizi da. Euren behar bereziak dituzte. Gainera, emakumeak batz bestea adin altuagoa izaten dutenez (80 urtetik gorako 563 emakume eta 193 gizon bizi dira), asko bakarrik bizi dira baldintza oso kaxkarretan: errenta baxuekin, etxebizitza mailan (berogailuak), mugikortasunik gabe (igogailuak). Halako gabeziek euren kabuz bizitzea eta euren oinarrizko beharrak asetzea eragozten die. Hartara, errotik behar dira etxebizitzak hobetu eta gizarte zerbitzuak zabaldu.

Bestalde, auzokideek dituzten pertenezia, auzotasun eta laguntza loturak bertako elkarbizitzaren ondare preziatu ditugu. Balio hauek bihurtu dute erreferentziala auzo hau bertaratu nahi duenarentzat, balio hauek zipriztinduta ageri zaizkigu auzoko egoera asko eta asko: lagunekin bertara doazenak, komertzio txiki hurbiletan erosketak, kolektibo eta elkarteetan lan boluntarioa, edota kulturagintzari lotutako jarduerak. Auzoaren garapenari begira, beraz, lokarri afektibo horiek ditugu potentzial garrantzitsuenetakoak. Elkarteetan lan eskerga eskertzekoa da aipatu balioak sendotzen dituelako.

Txostenaren hasieran azaldu dugu, Alde Zaharrak, beste hirietako alde zaharrei gertatzen zaien bezala, izaera bikoitza duela: batetik, beste edozein auzotan bezalaxe, bertan bizi eta lan egiten duen jendea aurki dezakegu; bestetik, hiriko gune historikoa denez gero, Iruñear guztientzako (aisialdia, dibertsioa, erosketak, kultura, administrazioa...) eta hirira datozenentzako (historia ondarea, jaiak, turismoa...) erreferentzia dugu.

Bi ezaugarriok -auzo eta gune historiko izatea- nekez aurkitzen diren orekak bilatze- ra garamatza. Gune historiko den aldetik, turismo eta merkatal gune bihurtzeko jo-

era aldebakarrekoak bertako biztanleentzako zerbitzu eta azpiegiturak itzalpean utz ditzake. Lehentasuna hor datza beraz: bertan bizi direnentzako etxebizitza, hezkuntza ekipamendu, kirol-gune, berdegune, aisialdirako topagune, aparkalekuak eta abarretan baldintza duinak bermatzean. Horrek ez du esan nahi Alde Zaharrari gune historiko-sinboliko gisa dagozkion ekimenik egin behar ez denik.

Bi ezaugarriok indartzeak ez dakar inola ere kontraesanik. Bertakoen (umeak, gazteak, adinekoak, etorkina...) bizi-kalitatea hobetu eta beste edozein auzotakoarekin berdintzeak kanpora begirako onurak dakartza eskutik helduta: merkataritzak, ostalaritzak eta turismoak ez dezan kanpora bizitzera joan beharrean dagoen populazioa oinarri izan.

Ikuspegi integral hori (ekonomiko-komertziala ez ezik, soziala eta komunitateari begirakoa) era orekatuan garatzeak bi ezaugarriok nabarmen indar ditzake. Barrura begira zerbitzu eta ekipamenduak behar badira beraz, zentzuzkoa da bertan eragiten dutenek euren beharrez mintzatu eta auzo garapen orekatu horren ardatz izango diren zerbitzu eta ekipamenduak zehaztea.

Zentzu horretan, ekipamenduentzako dagoen espazio faltari, erabili gabe dauden eraikinak eta orubeak kontrajartzen zaizkio. Kasik zaindu gabe ala itxita dauden kale eta plazak erabilera publikorako berreskuratu behar dira.

Auzoaren garapen orekatuaz hitz egiten ari garen honetan, ezin ahantzi auzoaren barruan ere, zonaldeka, desberdintasunak badaudela. Gune batzuek (Jarauta, Eslava, Descalzos eta Navarrería-Carmen kaleak) hil ala biziko premiak dituzte espaloiak konpontzen edota eraberritze-lanetan. Hartara, hirigintza aldetik ez ezik, lehentasuna dauka guneotan gizarte zerbitzuen mailan ere era guztietako ekimen komunitarioak modu koordinatuan eta integralean abian jartzeak. Auzo osoaren bizi kalitateak berdintzera jo behar baitu.

Ekipamenduen mailan dagoen beste behar bat kirol kantzak, kulunkak, pasealekuak,... izango dituen berdegunea da. Era berean, Musika Eskola eta Liburutegia lekualdatzeak, hezkuntza eta kultura mailako ekipamenduen premia areagotzen du aipatu galera berdintze aldera.

Alde Zaharra, gutxinaka lehen zuen zentraltasuna galtzen joan bada ere, oraindik ere hiriko aisialdi eta dibertsiorako gune nagusia dugu. Horrek kalteak ere ekarri ohi ditu: zaratak, zikintasuna, etxeak eta kotxeak narrastea eta beste auzoetako jendeak bertan bizilagunak badaudela ahaztu, eta kanpokoek auzoa zaintzen ez dutenaren sententzia. Hortaz, komunitate elkarbizitza orekatua bideratzeko (deskantsua, ingurunea zaintzea eta dibertsioa uztartzen dituen) kontzientziazio eta jokaera berrien beharra dago.

Gazteen aisialdi gune eta alternatibak zabaldu behar dira euren kezkek garatu eta beharrak asetzeko. Zabaldu behar direla diogunean ere, dauden gazte-kultura anitzei erantzuteko ere esan nahi dugu. Aisialdi gune eta alternatiba anitzak gazteentzako: beraz, gazteak euren aisialdiaren protagonista izan daitezen, aisialdia ez dadin kontsumo huts bihurtu.

Gazteentzat, adinekoentzat eta auzokideen zati esanguratsu batentzat etxebizitza arazo garrantzitsuenetakoa da. Ezinbestekoa da etxebizitza hutsetan eragitea gazteei eta adinekoei alternatibak eskaintzeko. Adinekoei adibidez zaindutako apartamentuak eskaini lekizkieke. Bestelako neurriak ere badaude alokairua indartzera begira: alokairuei diru laguntza, etxebizitza hutsen alokairu-poltsa antolatzea, etxe-jabeen laguntza,...

Diagnosi honetan ikusi dugunez, etxebizitzaren arazoa ez da arazo ekonomiko, tekniko eta legala soilik. Horretaz gain, ikuspegi soziala ere garatu beharrekoa da pertsona bakoitzaren arazoari erantzuteko. Ikuspegi integral hau garatzen administrazioak gehiago inplikatu beharko luke, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko zama guztia ez dezaten bizilagunek bizkar-gaineratu.

Funtsezkoa da etxebizitzaren barrualdea hobetzea batez ere adinekoei begira: igogailuak, berogailuak eta saneamendua. Halako birgaitze oso bati aurre egiteko ahalmen ekonomiko urrikoek laguntzak beharko lituzkete. Bestalde, laguntzen tramitazioa errazteko zerbitzua eratze aldera, Auzo Unitatea (laguntza behar duten kasuetatik hurbil dagoela eta) eta Birgaitze Bulegoa (baliabide teknikoak dituela eta) elkarren artean koordinatu litezke.

Hortaz, orokorrean, beharrezkoa da zerbitzu guztiak koordinatuko dituen lankidetzazko zabaltzea gizarte sektore eta zonalde kolpatuenei euren arazoaren aurpegi desberdinetatik eusteko.

Zentzu horretan, osasun eta gizarte baliabideen kasuan ere, norbanakoen laguntza unean unekotik haratago, beharrezkoa litzateke baliabide guztiak koordinatzea sektore jakinei zuzendutako prebentzio programak garatzeko. Azken finean, pertsona erdigune izango duen ikuspegi lantzeko.

Eremu horretan diharduten lagunek faltan sumatzen dute aipatu baliabideen eta gizarte eragileen arteko koordinazioa. Arazoen prebentzio, identifikazio, esku-hartze eta jarraipena bermatzeko ezinbestekoa litzateke eta, askotan, koordinazio hori sortzea baino zailagoa da denboran kolaborazio horri eustea.

Horregatik garrantzitsua da Auzo Unitatea sendotzea bi aspektutan: baliabideak eta ordutegiak zabalduz. Lehen ikusi dugunez, adinekoentzat baliabide espezifiko batzuk faltan sumatzen dira: zahar etxea, jantokia, egunean zehar irekitako Zentroa, pisu komun eta zainduak. Azkenik, kalez kale eta etxez etxe ibiliko den profesional taldea behar da: informazio, balorazio tekniko, orientazio eta tramitazio kasuetan sakontzeko.

Haurren behar espezifikoak dagokienean, premiazkoa da Haur Eskolaren eskaintza zabaltzea: dagoen plaza eskaerari, euskaraz ikasteko nahiari, kalitatezko instalazioen beharriari, eta abar erantzuteko.

Lehen Hezkuntzako bi zentroek ere instituzioen babesa behar dute instalazioak eta baliabideak hobetzeko. Zentroen hobekuntza hau ez ezik, beharrezkoa litzateke auzoko ekipamendu eta giza baliabideekin lotzea. Horretarako hezkuntza komunitate

guztiak inplikatu beharko luke sektore bakoitzean behar diren ekimenak zehazteko. Zentzu horretan, premia berezia dute familia eta lan eremua bateratu ezin dutenek, ondorioz, onuragarria litzateke familien arteko komunitate laguntza sarea antolatzeari.

Formala ez den heziketa sare zabalak ere, babes eta laguntza beharrezkoa du. Aisialdian, euskalduntzean edota kulturagintzan diharduten eragileek ere babes handiagoa izan beharko lukete.

Hizkuntza-eredu desberdinak izango dituen Bigarren Hezkuntzako Zentro publikoa ere ezinbestekoa da. Horrekin batera, Haurrentzako Liburutegia, ikasteko gune izateaz gain, jolas eta harremanetarako gune izango dena.

Heziketaren ikuspuntutik ere, garrantzitsua litzateke auzoan bizi diren kultura ezberdinen arteko harremana eta adiskidetasunari begirako dinamikak bultzatzea. Dinamika horiek hezkuntza zentroetan edota auzoko jolastokietan gertatu beharko lukete. Norabide horretan kokatzen diren elkarteei ere laguntza handixeagoa eman behar litzaieke.

Auzoko identitateen aniztasunarekiko begirunea ere elkarbizitza armoniosuaren barruan sartzen da. Horri begira, elkarren ezagutza eta hurbilpena bideratuko duten ekimenak, estereotipo murriztatzaileak saihestuko dituztenak, mesedegarri lirateke: jatorri ezberdineko pertsonak elkarrekin arituko diren aisialdi eta bilkura guneak.

Auzoko elkarteek etorkinen elkarteetara urreratzeko zubi lana egin dezakete, hala, etorkinak ere auzoko kultura jardueratan ala aldarrikapenetan murgilduz.

Garapen ekonomikoak eta potentzial turistikoak ere garrantzia handia dute auzoari begira. Merkataritza eta kontsumoan dauden joera orokorrak direla medio, ostalaritza eta merkatal sektoreak instituzioen laguntza behar du maila orokorrean, baina, batez ere, establezimenduak eraberritzeari begira. Eraberritze hauek, gainera, sarritan oso nekezak suertatu ohi dira auzoaren egitura urbanistikoagatik.

Horretaz gain, beste atal batzuetan proposatu dugun bezalaxe, ostalaritza eta merkatal jarduera gutxiago duten zonaldeak lagundu behar dira berauek indarberritzeko.

Ostalaritza eta merkataritza indartzeko eta potentzial turistikoak aprobetxatzeko beharrezkoak dira baita ere eremu publikoetan zenbait hobekuntza egitea: oinezkoen bideak, aparkalekuak, ibilbide historikoak, errotulazioa... Norabide horretan, San Ferminez haratagoko aprobetxamendua ekarriko duen estrategiak diseinatu behar dira. Baina, edozein kasutan, turismo ereduak auzoko interesak eta turistenak uzartuko dituen garapen iraunkorrean oinarritu behar du.

Bestalde, ibilgailuen zaratak sor dezakeen kutsadura akustikoari begira arau sistema zorrotz bat ezartzea premiazkoa da. Horregatik, merkantzien kargatze-deskargatzerako ordenantza batzuk ezarri beharko lirateke, bestalde, espaloietako segurtasuna ere bermatzeko. Era berean, ibilgailuen mugikortasuna hobetze aldera, auzokideentzako aparkamendu plaza gehiago behar dira.

Mugikortasunarekin jarraituz, garraio publikoak hurbiltzeak ere hobekuntza nabarmenak ekar ditzake. Bizikletentzako aparkalekuak ere ongi letozke. Azkenik, pertsonen mugikortasuna errazteko espaloiak konpondu eta ezinduentzako karranpak jarri behar dira.

Auzogintzari lotutako antolakundeen emaria auzoaren garapenerako aktibo garrantzitsua dugu. Sarritan instituzioek errealitate horri entzungor egiten diete eta ez dira akordiorako parte hartze eta negoziazio mekanismoak abian jartzen. Hortaz, borondate politiko hori moldarazi beharra dago politika publikoak denek ekarpena izan dezan. Aldaketa horri begira, kolaboraziorako eremu jakinak zehaztu eta emeki-emeki mesfidantzak gainditu behar dira, desadostasun batzuk errespetatu eta, beste batzuk, elkarrizketaren bidez konpondu. Bazterketa eta aldebakarreko ekimenen aurrean errespetua eta, posiblea denean, kolaborazioa, koordinazioa eta denek osagarritasuna nagusitu behar dira.

Edonola ere, auzogintzari atxikitako eragileek bestelako erronka jarri dute mahai gainean. Elkarrekin eta kolektiboen artean kolaborazioa estutu behar da, aliantzak zabaldu, horrela, egitasmo kolektibo zehatzak areagotu eta auzokideen beharrei erantzun berritzaileak emateko. Erronka nagusia, beraz, guztion arteko proiektu kolektiboak aktibatzea da, behetik gora eta modu autonomoan, auzoan dauden beharrei erantzun komunitarioak emateko.

Lan hau azken helburu horri begirako akuilu izaten saiatu da. Txostenaren luze zabalean aipatu ditugun komunitatearen beharrak eta errealak iruditzen zaizkigun ekimenak komunitatearen mesederako izatea espero dugu. Gainera komunitatea helburu izateaz gain, komunitatea subjektu ere izaten saiatu gara eta, horretarako, prozesua ahalik eta parte hartzaileen izaten saiatu gara.

Bideak aurrera darrai. Bide horretan ere sektorekako gai bakoitzean, lanean ageri diren eragileek hausnartu eta konponbiderako ekimenak proposatu beharko dituzte: nola, nork, noiz eta zein baliabideekin aktibatu auzokideen bizi baldintzak hobetuko dituzten ekimenak. Horri gehituta, sektorekako ikuspegia gaindituz, denek ekarpena da beharrezkoa, arazok lehen esan bezala izaera globala baitute. Pertsonak eta baliabide guztiak, eta horien arteko koordinazio estua, beharrezko izango dira aurrerantzean azal daitezkeen arazo berriei konponbide egokiak planteatzeko.

Diagnosia honek lan-tresna izan nahi du erabili nahi izango duten eragile eta ekimen guztietarako. Auzogintzan aurrera jarraitzeko tresna izan nahi du, hau da, txosten osoan zehar, eta ondorioen atal honetan modu laburtuan, auzoko jendeak eta eragile ezberdinek identifikatu dituzten gabezi eta beharrei erantzun zehatzak eta bidegarriak aktibatzeko tresna.

Txosten honek komunitateari itzuli nahi dizkio komunitateak berak utzitako eza-gutza eta pertzepzioak, jakintza hori barik ezinezko zitekeen diagnosi hau. Komunitatea ezagutzarako subjektu izanagatik ere, ekintza kolektiborako subjektu ere bada. Lan hau, esan bezala, ez da errealitatearen deskripzioa egitera mugatzen, ekintzarako tresna ere badugu. Tresna dinamikoa da eta aldiro-aldiro berrikusi be-

harko da auzoko egoerak eta beharrak aldatuko diren neurrian. Diagnosi komunitarioek berezko ezaugarria dute dinamikoak izatea, soilik ekintza-hausnarketa-ekintzaren logikaren barruan etengabeko gaurkotze bat egiten badugu, tresna eraginkorra izango da hobekuntza eta aldaketa sozialerako. Ekintza-hausnarketa-ekintza kate horretan une honetarako katebegitza jotzen dugu lan hau. Gaur behar batzuk ikusi ditugu eta horientzako konponbide batzuk. Bihar beste batzuk izango dira kezka eta konponbideak. Denon artean hobekuntzen bide luzean beste mugarri bat jarri dugu. Ez da bidearen amaiera, bide emankorrako baten hasiera baizik.

Komunitate Diagnosiaren erredakzio Taldea

Iruñean, 2006ko Otsailaren 13an

7. Bibliografia

AAVV (2000) *Una escuela para el barrio: Analisis cualitativo de las expectativas educativas de los residentes frente a la imagen del colegio de San Francisco*, Iruñea.

ALDAPA ALDIZKARIA 2004-2005 aleak, Iruñea.

ALDE ZAHARREKO DOTAZIOEN TALDEA (2004), Inkesta, Iruñea.

ALDE ZAHARREKO MERKATARIEN ELKARTEA (2001) *El Futuro del Casco Antiguo y el de tu propio negocio*, Alde Zaharreko Merkatarien Elkarte, Iruñea

ALDE ZAHARREKO MERKATARIEN ELKARTEA (2003) *Casco Antiguo. El corazón de Pamplona*. Hauteskuntetarako ale berezia. Alde Zaharreko Merkatarien Elkarte, Iruñea.

ALDEZAR ELKARTEA. 2004ko Memoria, Iruñea.

CORTES ALCALÁ, L. (1995) *La cuestión residencial: bases para una sociología del habitar*, Madrid, Fundamentos.

DIARIO DE NAVARRA . 2005.

DIARIO DE NOTICIAS. 2005.

DIARIO DE NOTICIAS (2005) *Historia de los barrios de Navarra*, Iruñea.

IRUÑEKO ALDE ZAHARRA AUZO ELKARTEA (2005) *Alde Zaharra, bizitoki bizia. 2005 urterako 55 proposamen*, Iruñea.

IRUÑEKO UDALA (1998) *Informe sobre la situación social del Casco Viejo de Pamplona* Iruñea.

IRUÑEKO UDALA (1998) *Plan Integral de Servicios Sociales*, Iruñea.

IRUÑEKO UDALA (2001) *Plan Especial de Protección y Reforma Interior del Casco Antiguo (PEPRI)*, Iruñea.

IRUÑEKO UDALA (2001) *Programa Iniciativa Comunitaria URBAN. Pamplona 2001-2006*, Iruñea.

- IRUÑEKO UDALA (2002) *Proyecto Urban Centro Histórico-Rochapea de Pamplona: 2001-2006. La Participación Ciudadana en el proyecto URBAN. Actividades y resultados 2001-2002*, Iruñea.
- IRUÑEKO UDALA (2003) *Informe final de evaluación intermedia intervención Urban de Pamplona*, Iruñea.
- IRUÑEKO UDALA (2003) *Plan de Revitalización y Dinamización Comercial y Económica del Casco Antiguo*, Iruñea.
- IRUÑEKO UDALA (2004) *Iruñeko Zerbitzuaren Gidaliburua*, Iruña.
- IRUÑEKO UDALA (2004) *Informe al 4º Comite de Seguimiento Urban Pamplona 2001-2006*, Iruñea.
- IRUÑEKO UDALA (2005) *Elkarteen Gidaliburua*, Iruñea.
- IRUÑEKO UDALA (2005) *Pamplona 1974-2004*, Iruñea.
- MARCHIONI, M (1999) *Comunidad, participación y desarrollo*, Madrid Editorial popular.
- MARCHIONI, M. (2004) *La acción social en y con la comunidad*, Zaragoza., Certeza.
- MARTINEZ DE ALAVA, J (1999) *6 ibilbide Alde Zaharrean zehar* Alde Zaharreko Auzo Elkarteak argitaratua, Iruñea.
- NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALA, 109. zenbakia. 2002ko irailaren 7, Iruñea.
- PINANDO SANCHEZ, F (2002) *La participación ciudadana en la vida de las ciudades*, Madrid, Ed. Del Serbal.
- RUBIO, M.J. VARAS, J. (1997) *El análisis de la realidad en la intervención social*, Madril, CCS.
- SOS ARRAZAKERIA (2004) *Alde Zaharreko Komunitate Planak antolatutako Immigrazioari buruzko Topaketetan aurkeztutako txostena*.
- TONUCCI, F (1997) *La ciudad de los Niños, Madrid*, Fundación Sánchez Ruipérez.
- UZTARO, 53 zenb.
- VILCHES, C. ARANA, Y. (2005) *Diagnóstico de la situación de la hostelería del Centro Histórico de Pamplona*, Iruñea.
- VILLASANTE, T.R. MONTAÑES, M (2000) *La investigación social participativa en Construyendo Ciudadanía*, Madrid, Viejo Topo.

VILLASANTE, T.R. MONTAÑES, M (2000) "Prácticas locales de creatividad social" en *Construyendo Ciudadanía*, Madrid, Viejo Topo.

ZARREKO, 2004 eta 2005eko Memoriak, Iruñea.

WEB ORRIAK:

Auzo Elkartea: <http://www.aldezaharra.org>

Cáritas: <http://www.caritaspamplona.org>

Diario de Navarra: <http://www.diariodenavarra.es>

Diario de Noticias: <http://www.noticiasdenavarra.com>

Federación de Asociaciones de Inmigrantes: (FAIN): <http://www.fain-web.org>

Ikaskide: <http://www.epvasconia.com/antcatalogo.asp?cod=2696&Nombre=2696&sesion=1>

Instituto Marco Marchioni: <http://www.institutomm.org>

Instituto Nacional de Estadística: <http://www.ine.es>

Iruñeko Udala: <http://www.pamplona.net>

Iruñeko Alde Zabarreko Komunitate Plana: <http://www.plancomunitario.org>

Mancomunidad de la Comarca de Pamplona: <http://www.mcp.es>

Estatistika Institutua: <http://www.cfnavarra.es/estadistica>

Merkatarien Elkartea: <http://www.cascoantiguo-pamplona.com>

Parte Hartuz: <http://www.partehartuz.org>

Plan Urban Pamplona: <http://www.urbanpamplona.com>

Zabaldi-Casa de la Solidaridad: <http://www.nodo50.org/zabaldi>

Egileak

Iso Tinoco, Andoni

(Iruñea 1976), Soziologian lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta “Investigación Participativa para el desarrollo local” izeneko masterra egin zuen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Iruñeari buruzko hainbat ikerketatan aritu da lanean, eta honako hauek ditugu berrienak: “Identificación de indicadores orientados al reconocimiento de situaciones y grupos sociales de riesgo en el área metropolitana de Pamplona”, Jesús Oliva Serranok eta Luis Camarero zuzendua, eta “Pamplona Metròpoli, 1930... Modernidad y Futuro”, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak eta Nafarroako Unibertsitateak egina. Esku artean duzuen diagnostiko honen garapenean Komunitate Teknikari gisa aritu zen lanean.

Iruñeko hainbat gizarte entitatetan hartu du parte. 2000 eta 2001 urteetan Nafarroako Gazte Kontseiluaren presidentea izan zen, eta gaur egun Ahari Kultur Taldean eta Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Planean dihardu.

Jimenez Arellano, Patxi

(Iruñea 1969), Soziologian lizentziaduna Nafarroako Unibertsitate Publikoan. 2004tik Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Planean, talde eragilean eta Komunitate Diagnostikuan parte hartu du. Horretaz gain, eta boluntario lanetan, aisialdiko elkarte batzuetako hainbat esperientzietan eta borondatezko komunitate ekintza anitzetan.

Profesional arloan, pertsona eta gizarte-sustapenerako irabazi-asmorik gabeko Lan-txotegi Elkarteetan lan egiten du, zeinek gizarte-zailtasunean bizi diren gaztekin eta etxebizitzarik gabeko pertsonekin zenbait programa garatzen dituen. Etxebizitzarik gabeko pertsonentzako kale-arretako lan talde batean aritzen da, Logroño, Donostiako, Gasteizko, Bilboko eta Iruñeko profesionalak osatua. Kale-interbentziarako programa baten egite eta martxan jartzea.

Komunitate Planaren bitartez hainbat prestakuntza-jardueratan aritu da Marco Marchionirekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz Ikerketa Taldearekin. Jardunaldi batzuetako txostengile izatea (Bartzelona, Madril, Barañain, Irurtzun, Leioa...). 2004-2006 bitarteko urteetako Nafarroako Pobreziaren eta Bazterketaren aurkako borrokaldiaren Sarean partaidea. Estatu mailako jardunaldietan partaidetza, Gizarte Zerbitzuetako Kalitateari buruzko txosten bat eman.

Martinez Garcia, Zesar

(Barakaldo 1968) Soziologian Doktorea, Gizarte Zientzien Metodologia irakasten du, baita Aldaketa Soziala eta Gatazkaren Soziologia ere. Ikerketa-lanak globalizazio neoliberalari buruzko diskurtsoen inguruan eta gazteen aisialdiaren inguruan egin ditu.

Ikerketa-lerro nagusitzat du, aldiz, Partaidetza Sozio-politiko eta Ikerketa-ekintza. Parte-Hartuz lantaldearen kidea da, Demokrazia Partehartzaileari buruzko lantaldea, herritarren partehartze politikorako prozesuak eta mekanismoak aztertzen dituen. Momentu honetan gai horren inguruko ikerketa proiektuetan ari da lanean. Hauek dira (2004) Aldaketa soziala eta praxi kolektiboa: gizartearen produkzioa pentsamendu soziologikoan (2004) “Globalizazio neoliberalaren gezurrezko determinismoa”. (2003) Gaztetxoak eta Aisialdia: Etorkizuna Aurreikusten 2001-2002 (2003) Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritzak: globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak, “Participación, sociedad civil y administraciones públicas: el caso de la cooperación internacional”, La acción colectiva en el ámbito de la solidaridad internacional” (2000) El ocio organizado para niños y adolescentes en Guipúzcoa. (2000) “El futuro del tiempo libre educativo” (1999) “Herri Mugimenduak Alternatiba sortu nahian: Zapatismoaren haize berriak”. (1998) “Participación en formas de acción colectiva: potencial de movilización en el País Vasco”. Inguruak.

Telleria Herrera, Imanol

(Bilbo 1975), Soziologia eta Zientzia Politikoan lizentziatuta Deustuko Unibertsitatean 1999an eta “Globalizazioa, Garapena eta Nazioarteko Kooperazioa” Hegoako Ikasketen Institutuen Doktorego programan Ikasketen Aurreratuen Diploma lortu du garapen komunitarioari buruzko ikerketa baten bitartez non Euskal Herriko garapen komunitarioaren prozesu ezberdinak (Iruñea, Altza, Bilbao La Vieja) alderatzen diren.

Parte Hartuz, Demokrazia Partehartzaileko Ikerketa Taldearen lankidea eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea da. “Demokrazia Partehartzaileko Prozesuetan Aditua” Graduondokoa egin ondoren praktiketako moduluaren koordinatzailea eta tutorea izan da 2004-05 eta 05-06 ikastaroetan. Gaur garapen komunitarioa eta identitate kolektiboari buruzko beste ikerketa batzuetan lan egiten ari da; hauetariko bat “Deusto y Recalde: historia e identidad contada por sus protagonistas” Bilboko Udalak argitaratua (2007).

Pascual Ibiriku, Patxi

(Iruñea 1971), Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Hezkuntza Aisialdiko Aldezar Elkarteko kide-sortzailea, Iruñeko Alde Zaharrean, non parte hartu zuen 1992tik 2001 artean. Geroztik, 2002an, Iruñeko Alde Zaharreko “Alde Zaharra” Auzo Elkartearen parte hartzen hasten da, eta elkarte horretan jarraitzen du boluntario lanetan gaur egun.

2003ko hasieran, militantziako beste kide batzuekin batera, Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Plana geroxeago izanen litzatekeena paperean aritzen dira hazten, eta han, Komunitate Planean jarraitzen du boluntario gisan gaur egun. Ibilbide aberasgarri honetan auzoko elkarteetan zehar (non bizi den orain dela 10 urte), kale animaziorako Trikimako Taldean hartzen du parte, eta iruindar beste herri-antzezlariekin Oreka Zirko Eskola sortzen dute,



Profesional arloan, beste anitzeko ogibideen artean, Iruñeko Alde Zaharreko Haur eta Gazteentzako Prebentzio eta Sustapenerako “Zarreko” lehendabiziko Programan teknikari moduan aritzen da, Aldezar Elkarteak eta Iruñeko Udalak hitzarmendua, 1997 eta 1999 artean. 2000an Nafarroako Gazte Kontseiluan lan egiten du Elkarte Koordinatzaile, eta 2003an auzora bueltatzen da, “Auzoenea” gizarte-hezkuntzazko komunitate interbentziorako proiektuaren koordinatzaile gisan. Azkenik Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Planeko lehenengo urtean, teknikari lanak egiten ditu.

Komunitate garapenak abiapuntu bat behar du. Komunitate baten barnean gauzatu nahi diren asmoak eta ekimenak, ez dira gorpuztuko errealitatea ondo ezagutzen ez badugu. Partekatutako ezagutza horren bila abiatu ginen orain dela bi urte.

Eginkizun horretan, metodologia zuzena eraikitzea eta partaidetza ziurtatzea genituen behar nagusiak. Horrela sinetsi zuen Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Plana Elkarteak, eta abiapuntu horrekin, alde batetik bere giza errekurtsoekin eta bestetik kanpotik emandako laguntzari esker (Parte Hartuz kasu), 2005ean Iruñeko Alde Zaharreko Komunitate Diagnostia eratzeari ekin zion.

2006ko otsailean, Elkarteak, Diagnostiaren aurkezpena egin zuen, urte bateko hedatze prozesu bat zabalduz.

Komunitate Diagnostia, abiatzeko "kilometro 0" bezalakoa izan da. Gaur egun, Komunitate Planak hiru urte betetzen dituenean, elkarri ematen ahal diogun oparirik onena "kilometro 1"era ibiltzen hastea da. Horretarako, Komunitate Planeko Talde Eragileak, Diagnostiaren irakurketa zehatza egin du, eta gai orokor bat proposatu nahi du, jende guztiaren artean epe luzean lan egiteko, hiru edo lau urtean, alegia. Egun hauetan proposatutako gaia hauxe da: "Elkarrekin ikasten auzoarekin", gauzak hobetu ahal ditugulako, elkarri irakasten badiogu.